EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



# Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean

## 2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

# Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean

## 2 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

**BERRITZEGUNEAK**

**Aholkulariak: “Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna”**

Itxaso Bernaola Arriortua (Ingelesa)
Mertxe Basterretxea Polo (Ingelesa)
Mª del Mar Pérez Gómez (Lengua Castellana y Literatura)
Mª Victoria Apraiz Jayo (Euskara eta Literatura)
Teresa Ruiz Pérez (Hizkuntzen Trataera Bateratua)

**Berritzegune Nagusiko aholkulariak: “Eskola inklusiboa eta HPB”**

Belén Odriozola Albizu
Isabel  Galende Llamas

**IKASLE GORREN KOORDINATZAILEAK**

Guillermo Azkarate Maturana (Gipuzkoa )
Marisol Hornas García (Araba )
Kesare Calzacorta Arteta (Bizkaia)

**IRAKURKETA KRITIKOA**

Javier Granja Pascual

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**Vitoria-Gasteiz, 2013**

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

Argitaraldia:
1.a, 2013ko urtarrila

Ale-kopurua:
600 ale

©
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 010010  Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.:  VI 025 - 2013

# Aurkibidea


## LEHENENGO ATALA: IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN CURRICULUMEAN TXERTATZEA

**1. SARRERA** 9

**2. ALDAGAI BEREIZGARRIAK** 10

- 2.1. Gorreria eta entzumen-galera kontzeptuak 10
- 2.2. Entzumena galtzen den unea 11
- 2.3. Entzumen-galeraren kokapena 11
- 2.4. Entzumen-galeraren maila 12
- 2.5. Entzumenaren funtzionaltasuna banakako laguntza teknikoen bidez 12

**3. ENTZUMEN GALERAREN ONDORIO OROKORRAK** 14

**4. IKASLE GORRARI EMANDAKO HEZKUNTZA ERANTZUNAREN EZAUGARRI OROKORRAK ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN** 16

**5. IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAREN AURREAN**

- 5.1. Irakurmena eskuratzea 19
- 5.2. Idazmena eskuratzea 20
- 5.3. Elebitasuna (ahozko hizkuntza / zeinu-hizkuntza) 21
- 5.4. Beste hizkuntza batzuen ikaskuntza 22

**6. EREDU PROGRAMAREN XEDE DIREN IKASLEAK** 24

**7. CURRICULUMA ESKURATZEKO PLANTEATUTAKO NEURRIAK** 26

**8. GLOSARIOA** 33

**9. BIBLIOGRAFIA** 35

## BIGARREAN ATALA: IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN CURRICULUM ARRUNTEAN TXERTATZEKO EREDU PROGRAMA

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA. GAZTELANIA ETA LITERATURA 39

ATZERRIKO HIZKUNTZA 79

# Lehenengo atala

## Ikasle gorrak hizkuntzen curriculumean txertatzea

## 1. Sarrera

Ikasle gorren Lurralde arteko Batzorde Teknikoko kideok uste dugu Ikasle gorrak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hizkuntzen curriculumean txertatzeko eredu-programa baten Lanketa Proiektua beharrezko elementua dela, bai inplikatutako ikasleentzat eta bai ikasle horiek eskolatuta dauden ikastetxeetako profesionalentzat.

Garrantzi handiko proiektu bat da, hiru faktore lotzeko ahalegina egiten baitu, lotura hori egitea zaila den arren. Lehenik eta behin, entzumenaren galerak norbanakoaren hizkuntza-garapenerako dituen ondorioak. Bestalde, norbanako horrek hezkuntza- eta gizarte-inguruko hizkuntzak eskuratzeko duen aukera, eta, azkenik, ikasleen heterogeneotasuna, honako aldagai hauek kontuan hartuta:  entzumenaren galeraren maila, galera hori zenbat urterekin hasi zen, entzumen-funtzionaltasuna, etab. Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanda, norbanako bakoitzaren erantzuna desberdina eta bakarra izango da.

Esate baterako, lokuzio-aurreko gorreria sakona duen ikasle batek, Lehen Hezkuntzako ibilbide akademikoaren hasieran, 200 hitz ezaguneko hizkuntza-euskarria izango du (Marschak, 1993; Paul, 1996); horrez gain, irakurtzen ikasteko prozesua abiatzearekin batera, ahozko ikaskuntzarekin jarraitu behar du (lehen hizkuntza), eta beste hizkuntza batzuk (bigarren hizkuntza edo hirugarren hizkuntza) bai ahoz eta bai idatziz barneratzeko zailtasuna begien bistakoa da.

Halaber, ikuspegi morfosintaktikotik, entzuten duen ikaslearekin alderatuta, ikasle gorraren ezaguera oso pobrea da; entzuten duen ikasleak, irakurtzen hasten denean, hizkuntza-masa kritikoa du, eta, horri esker, linguistikoki «hazten» jarrai dezake. Gorreria duten ikasleak sorgin-gurpilean murgiltzen dira, izan ere, modu naturalean barneratzen duten hizkuntza-corpusa –entzumenaren bidez– nahiz programatutako ikaskuntzaren bitartez egingo luketen ikaskuntza autonomoa urria da.

Lokuzio-aurreko gorreria sakona duten ikasleen kasuan, hizkuntza-ikaskuntza guztiak asmo sendoz programatu eta transmititu behar dira, eta oso gutxi gertatzen dira bat-batean.

Ikasle horiek gaitasun kognitibo ukigabeak dituzte, eta, beraz, curriculumeko ezagutzak eskuratzeko eta garatzeko, ahozko hizkuntzez gain, zeinu-hizkuntza ere erabil dezakete. Horregatik, ahozko hizkuntza – zeinu-hizkuntza elebitasunaren eta hizkuntza guztiak ahozkoak direnen arteko ezaugarri desberdinak zehaztea merezi du.

Entzumen-gabeziak ahozko hizkuntzak ikasteko orduan sortzen dituen zailtasunak begien bistakoak dira, eta prozesu hori are gehiago nahasten da curriculum arrunteko gainerako ahozko hizkuntzak txertatzen direnean. Horrek dituen inplikazioei buruz gogoeta egiteko, aurkezpen honetan, gorreria duten ikasleen eta horiek curriculumaren garapenean dituzten inplikazioen ezaugarriei buruzko gogoeta teoriko bat txertatu da.

# 2. Aldagai bereizgarriak

## 2.1. Gorreria eta entzumen-galera kontzeptuak

Gorreria izen orokorraren barruan biltzen ditugu entzumen-galerari dagozkion maila eta mota guztiak. Gorreria, entzuteko desgaitasuna eta hipoakusia terminoak sinonimotzat hartzen dira askotan, eta entzumen-galera arin zein sakonetarako erabiltzen dira.

Azken urteetan, entzuteko desgaitasunaren esparruan erabiltzen den terminologia zehaztu egin da, entzumenaren erabateko galera –kofosia– batere arrunta ez dela eta hondar-entzumen mailaren bat egon daitekeela nabarmentzeko. Ikuspuntu horrek eragina izan du baita ere «entzumen-galera» terminoa erabiltzeko; batzuetan, termino hori eufemismo moduan erabiltzen da, «gorra» edo «ikasle gorrak» hitzak ez erabiltzeko, izan ere, zenbaiten ustez konnotazio negatiboak dituzte hitz horiek. Hala ere, pertsona askoren ustez, entzuten duen gizartearen beraren aurreiritziak dira horiek, eta pertsona gorren[1] taldeak berak taldearen nortasun-zeinutzat hartzen du.

Ikuspegi audiologiko horrekin jarraitzeko, Monfort eta Juárez (2001) egileek hondar-entzumenarekin eta horren ahalmenarekin lotutako sailkapena egin zuten, eta sailkapen hori asko erabiltzen da entzumenaren errehabilitazioaren esparruan. Sailkapena honako hau da:

- *Entzumen arrunta*. Mintzairako edozein soinu ezagutzen du eta imitatzen du, zentzua kontuan izan gabe. Entzumen maila hau duten haurrek mintzairako bokal- eta kontsonante-hots guztiak ondo hautemateko adierraztasun nahikoa dute.
- *Entzumen funtzionala*. Hitz eta esaldi ezagunak entzuten dituzte, testuinguruaren laguntzarik gabe. Mintzairako bokal-hotsak ondo hautematen dituzte, eta baita kontsonante-hots asko ere, baina ez dute entzumen-bereizketa nahikoa adierraztasun nahikoaz ezagutzeko, batez ere hitza luzea bada edo soinuak silaba azentugabean eta beste kontsonante-hots baten ondoan edo hitz baten bukaeran esaten badira. Osaera fonetiko oso antzekoa duten hitzak bereizteko zailtasunak dituzte.
- *Hondar-entzumena*. Ahozko hizkuntza hobeto ulertzeko, ezpainak irakurtzen dituzte eta testuinguruaren laguntza behar dute. Soinuak identifika ditzakete eta hitzak elementu prosodikoei esker bereiz ditzakete, hala nola luzerari edo intentsitateari esker, baina oso zaila da osagai fonetikoengatik bereiztea.

[1] Gorren komunitatean, zenbaitzuek ondoko bereizketa hau egiten dute: gorreria audiologikoari "g" xehea esleitzen diote, hizkuntza- eta kultura-entitatea adierazten duen Gorreriari, berriz, "G" larria. Alde horretatik, gorren komunitate terminoak irizpide soziolinguistikoak ditu, eta hainbat kontzeptu hartzen ditu barnean: pertenentzia, parte-hartzea eta faktore kulturalak. Alde horretatik, "pertsona gorra, entzumen-galera alde batera utzita, gorren komunitateko kide sentitzen dena da, gorren hizkuntza ezagutzen duena eta haien ezaugarriak partekatzen dituena; ezaugarri horiek ikus-esperientziak hartzen duen funtzio nagusiarekin lotuta daude". Andersson, Y. (1989): The Deaf World as A Linguistic Minorit"**.** In: Sign Language Research and Application. Proceedings of the International Congress on Sign Language Research and Application, Hamburg: signum-Press, 155-161.

## 2.2. Entzumena galtzen den unea

Gaitzaren une ebolutiboaren garrantzia haur gorrak lortutako hizkuntza-gaitasunaren arabera mugatu da.

Hala, gaitzaren unearen arabera, honela sailka daiteke:

- *Lokuzio-aurrekoa:* ahozko hizkuntza barneratu aurrekoa.
- *Lokuzio ondokoa:* ahozko hizkuntza barneratu ondorengoa. Begien bistakoa da, kasu honetan, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta handiagoak izango direla ahozko hizkuntzak finkatzeko hizkuntza-oinarriak. Oro har, gorreria hizkuntza barneratu ondoren gertatzen bada, ez dira arazoak sortzen hizkuntza-gaitasunean, baina pertsonak zailtasunak izan ditzake ezpainen eta aurpegien irakurketa ikasteko orduan edo norberaren kontzeptuan eta nortasun pertsonalean (N. Silvestre, 1998).

Hala ere, ikerketek hizkuntza barneratu aurreko aldiei ematen dieten garrantzia kontuan hartuta, lokuzio-aurreko gorreriari dagokion lehenengo taldearen barnean honako hauek bereiz daitezke: jaiotzetikoak direnak eta bizitzako lehenengo urtean sortutakoak. Azken talde horretako pertsonek ikaskuntza komunikatibo eta fonologiko batzuk egin dituzte, eta, aurrekoekin alderatuta, azken horien egoera desberdina da ahozko hizkuntza ikasteko orduan: intonazioaren balioa ezagutzen dute, badakite hitzek esanahi bat dutela, etab. Dena den, garrantzitsutzat jotzen da baita ere entzumen-galera hautemateko unea, bai eta errehabilitatzeko arretaren hasiera ere.

## 2.3. Entzumen-galeraren kokapena

*Transmisio-gorreria*

Soinua airearen bidez transmititzeko edo garraiatzeko funtzioan nahasmendua izatearen ondorioz sortutako entzumen-galerak kanpoko edo erdiko belarrian kokatzen dira. Gorreria horiei transmisio-hipoakusia esaten zaie. Hainbat arrazoiren ondorioz gertatzen dira.

Entzumen-galera horien kasuan, haurrak ahozko diskurtsoari jarraitzeko zailtasun handiak izan ditzakeen arren diagnostikoaren edo tratamenduaren ondoren ere, ehuneko handi batean, entzumena arrunta berreskura daiteke.

Berorien prebalentzia handiena bi urtetik sei urtera bitartean gertatzen da, eta diagnostiko goiztiarra egitea garrantzitsua da hezkuntza-sistemarentzat, aldi ebolutibo horretan gertatzen diren ahozko ikaskuntzak nahiz ikaskuntza idatziak kontuan hartuta.

*Pertzepzio-gorreria, zentzumen-gorreria edo gorreria neurosentsoriala*

Nahasmendu horiei hipoakusia koklearrak ere esaten zaie, zelula ziliatuetan (koklean daude) soinuaren transdukzioan nahasmenduak daudelako. Nahasmenduren bat gerta daiteke, halaber, NSZan, soinu-sentsazioaren pertzepzioari dagokionez, entzumen-bidearen zatiren bat kaltetuta dagoelako; kasu horretan, koklea atzeko hipoakusiak izango dira.

Ikasle gor horiei zuzentzen zaie nagusiki berariazko hezkuntza-baliabideen nahiz hezkuntza-baliabide arrunten esku-hartzea.

*Gorreria mistoa*

Zenbait kasutan, aldi berean gerta daiteke gorreria neurosentsoriala eta transmisio-gorreria.

*Gorreria zentrala*

Zenbait egilek laugarren tipologia hau aipatzen dute, eta garuneko entzumen-zentroetako lesioak aipatzen dituzte soilik. (J. Peña Casanova, L. Barraquer Bordas, M. A. Surís Jordá, 1981[2]; Valmaseda eta Díaz-Estébanez, 1999).

## 2.4. Entzumen-galeraren maila

Aldagai hau oso garrantzitsua da, eta ondorengo azpi-motak sailka daitezke:

- *Entzumen arrunta:* 0 eta 20 dB artekoa.
- *Entzumen Galera Arina (EGA):* 20 eta 40 dB artekoa. Hizkeraren pertzepzio orokorra, toki jakin batzuetan kokatutako zenbait fonemaren kasuan eta oso intentsitate baxuko emisioetan edo ezkutatuta dauden kasuetan izan ezik. Nahasmendu artikulatorioren bat ere ager dezakete, dislalia audiogenoena adibidez.
- *Entzumen Galera Ertaina (EGE):* 40 eta 70 dB artekoa. «Elkarrizketaren eremua» (Lafon, 1987) dago arriskuan. Mintzairaren pertzepzio orokorra lortzeko audifonoen egokitzapen ona behar da.
- *Entzumen Galera Larria (EGL):* 70 eta 90 dB artekoa, batez beste. Entzumen-galera larria duen pertsonak mintzairaren elementu suprasegmentarioak hauteman ditzake, baina entzumenaren bidez jasotzen dituen elementuak ezpainen eta aurpegiaren irakurketarekin osatu behar ditu; hori guztia audifonoaren laguntzari esker eta entzumenaren entrenamenduari esker lor daiteke.
- *Entzumen Galera Sakona (EGS):* 90 dB baino gehiagoko galera, batez beste. Hizkuntzaren pertzepziorako, garrantzi handia hartzen dute estimulazio bibratilak eta bisualak. Audifonoen aplikazio egokiak aukera ematen du gehienetan subjektuaren emisioaren kontrola egiteko, eta, beraz, ekarpen garrantzitsua da mintzaira ulertzeko orduan (Silvestre, 1998). Dena den, audifono digitalen eta inplante koklearren belaunaldi berriei esker izugarri hobetu da irabazi protesikoa. [3]

## 2.5. Entzumenaren funtzionaltasuna banakako laguntza teknikoen bidez

Puntu honetan, banakako erabilera duten tresna teknikoak aipatzen dira –audifonoak eta inplante koklearrak–, alde batean edo bi aldeetan erabiltzen direnak eta norbanakoaren hondar-entzumenak erabiltzeko aukera ematen dutenak, bai inplanteen bitartez, bai audifonoen bitartez; tresna horiei esker, bestela lortuko ez litzatekeen entzumen-funtzionaltasuna lortzen da.

[2] J. Peña Casanova, L. Barraquer Bordas, M. A. Surís Jordá (1981): *Sordera Central*. Logopedia Fonoaudiológica, I. lib., 2. zk. (86-91).

[3] Irabazi protesikotzat honako hau hartzen dugu: audifono batek eskain dezakeen anplifikazio maila, sarrera maila desberdinetan eta pertsona bakoitzaren profil audiometrikoaren arabera. Audifono batzuek hainbat irabazi maila eskain ditzakete hainbat maiztasun-bandatan, hala, pertsona bakoitzaren entzumen-profilera hobeto egokitzeko.

Une honetan, laguntza tekniko horien erabilera orokortu egin da haurtzarotik, eta eskola-ikasleen entzumen-aukerak gero eta handiagoak dira. Laguntza tekniko bat erabiltzeak edo inplantatzeak ez dakar berarekin «entzumena berreskuratzea», entzuten duten pertsonek ulertzen duten moduan, behinik behin. Haur gorren kasuan, beharrezkoa da denboran iraungo duen prozesu gaitzaile egokia ezartzea. Entzumenaren funtzionaltasunaren hobekuntza horrek ondorio positiboak ditu ahozko hizkuntzaren garapenean.

## 3. Entzumen-galeraren ondorio orokorrak

Entzuteak etengabeko lotura ezartzen du norbanakoaren eta inguruaren artean, uneoro jakin baitaiteke zer gertatzen den inguru horretan, eta, horren aurrean, norbanakoak planifikatu egin dezake eta erantzun bat eman dezake. Halaber, segurtasuna sentiarazten dio pertsonari.

Entzuten diren zarata, soinu, berbalizazio edo adierazpen batzuek gure arreta erakartzen dute, eta aztertzera, ikertzera edo galdetzera eramaten gaituzte. Entzuteak jakin-mina pizten du, eta esperientzia eta informazio berriak eskuratzeko aukera ematen du.

Entzundakoaren bitartez, zer gertatuko den aurreratu daiteke, edo zer gertatu den ondoriozta daiteke, zarata bati esker, ahots-tonuari esker edo entzumenaren bidez iristen den ahozko adierazpen bati esker.

Entzumenaren bitartez, haurrak ahozko hizkuntza garatzen du, inguruko pertsonekin izaten dituen ahozko elkarrizketen bidez. Haurrak hitz egiten duenez eta esaten duena eta esaten diotena entzuten duenez, helduak eskaintzen dion eredu zuzenaren arabera egokitzen ditu bere ahoskera eta hizkuntza. Poliki-poliki, hitz batek esanahi bat baino gehiago izan dezakeela jabetzen da, eta zenbait adierazpide erreferentzia literalik gabe erabil daitezkeela ohartzen da. Hitzen esanahiaz gain, ahoskatzeko moduaz eta esaldiak ordenatzeko moduaz gain, haurrak ingurukoei entzuten die, eta jabetzen da testuinguruaren eta solaskidearen arabera desberdin hitz egiten dutela, eta hitzen esanahia aldatu egiten dela beroriei ematen zaien intonazioaren arabera. Ingurukoei entzunez mintzairaren erregistro desberdinak erabiltzen ikasten du, eta solaskideen, testuinguruen eta asmoen arabera gauzak modu batean edo bestean adierazten.

Entzumenak etengabe informazio berriak jasotzeko aukera ematen du, bai antolatutako irakaskuntzan, bai komunikabideen bitartez eta bai elkarrizketa informaletan. Informazio horrek berori jasotzen duen pertsonaren ezaguerak zalantzan jartzen ditu, birplanteatu egiten ditu, eta areagotu.

Hizkuntza da goi mailako funtzio kognitiboak garatzen dituen tresna, eta garapen emozionala eta gizarteko integrazioa errazten ditu. Hizkuntzaren bitartez, helduek irakatsi eta hezi egiten dute, eta haurrek ikaskuntzan parte hartzen dute, beren kideekin ideiak eta esperientziak erkatuz.

Entzumen-galera duten haurren kasuan, ikusmena esperientziak barneratzeko iturri garrantzitsutzat jotzen den arren, ez da inoiz gertatzen «*zentzumen-ordezkapen*» deritzona, hau da, entzumenaren galeraren ondorioz jasotzen ez den informazioa ez da ikusmenaren bidez jasotzen. Entzuteko zailtasunak dituen pertsona batentzat, ondo entzuten duen pertsonarentzat neutroak diren ikusizko estimuluek esanahia hartzen dute edo har dezakete, esate baterako, errezelen mugimenduak, zoruaren edo mahaiaren bibrazioak, etab.

Entzumena da urrutiko sentsazioak jaso ditzaketen bi zentzumenetatik inguruarekin etengabe lotzen gaituen bakarra; ez dago entzumenaren zentzua ixteko modurik, eta, ikusmenaren kasuan, aldiz, bai; horrez gain, esnaldiaren eta loaren zikloa daude. Entzumenak etengabe erne egotera behartzen gaitu.

Entzumenaren kasuan, ez da beharrezkoa soinua eragiten duen estimuluaren presentzia, eta, ikusmenaren kasuan, aldiz, presentzia hori beharrezkoa da. Oro har, entzumenaren bidez jasotzen dugun informazioa ikusi egiten dugu gero.

Halaber, entzumena denborarekin lotutako zentzumena da, hau da, estimuluek beroriek gertatzen diren denbora-ordenan hartzen dute zentzua; ikusmenaren kasuan, aldiz, nozio

espaziala eskaintzen du, hau da, estimuluen kokapen espazialari buruzko informazioa ematen du, bai eta norberaren kokapen espazialari buruzkoa ere.

Dena den, entzumena urruneko zentzumena da, eta pertsonaren inguruarekiko etengabe erne egoteko aukera ematen du; beraz, informazio-iturri garrantzitsuena da pertsonarentzat. Entzumenaren bitartez, norbanakoak ingurua kontrolatzen du, eta horri esker hartzen du zentzua. Entzumen-galeraren ondorioz, pertsonaren arreta erakarriko duten soinuen, zaraten, ahots-tonuen, adierazpenen eta abarren kopurua txikiagoa izango da.

Bestalde, entzumen-galeraren ondorioz, ahozko hizkuntza bide naturaletik, hau da, pertsonekiko bat-bateko elkarrerakintzetatik, barneratzeko aukera txikiagoa izango da; eta, gainera, norbanakoaren garapena bermatuko duten esperientzien kopurua eta kalitatea ere txikiagoa izango da.

Azken bi inplikazio horiek –lehena bigarrenaren ondorio da–, eta baita gaitasunen integritateak ere, pertsona gorra zaurgarri egiten dute, informazioa bi noranzkoetan eskuratzeko zailtasunaren erruz:

- Esperientzia eskuratzeko zailtasuna.
- Inguruko ahozko hizkuntzak garatzeko zailtasuna.

Vygotsky-k (1981) planteatutakoaren ildotik, pentsamenduaren eta hizkuntzaren artean interdependentzia dialektiko konplexua dago: hizkuntza pentsamendu da, eta pentsamendua hizkuntza bihurtzen da. Hizkuntzak gizarte-komunikazioari dagokion funtzioa betetzen du hasiera batean, eta, aurrerago, barneratu egiten du norbanakoak, jarduera intelektuala zuzentzeko eta antolatzeko. Bestalde, hizkuntzak berak gizarteko esperientzia kategorizatu egiten du eta forma ematen dio, hala, esperientzia horretatik urrundu ahal izateko. Horren ondorioz, ikasle gorren garapen kognitiboari ondoko bi inplikazio hauek eragiten diote: batetik, komunikatzeko kode baliagarri bat barneratzeko zailtasunak; eta, bestetik, aurre egin behar dien esperientziak kategorizatzeko zailtasunak.

Hala ere, komenigarria da azpimarratzea gorra izateak edo entzuteko zailtasunak izateak ez dituela gizartean egokitzeko zailtasunak inplikatzen. Komunikatzeko aukerak badituzte pertsona gorrek, bai eta komunikatzeko asmoa ere, baina, hala ere, beharbada ez dute nahikoa gaitasun inguruko hizkuntza-kodean.

## 4. Ikasle gorrari emandako hezkuntza erantzunaren ezaugarri orokorrak eskola inklusiboaren esparruan

Hezkuntzaren esparruan ezartzen diren irakasteko eta ikasteko prozesuak hainbat hizkuntzatako ahozko estrategietan oinarrituta daude funtsean. Estrategia horietan ikasleek nahiz irakasleek hartzen dute parte. Egoera bakoitzerako laguntza egokiena kontuan hartzeko, beharrezkoa da ondoko markatzaile hauek nabarmentzea (CREENA[4], 2006):

- Hizkuntza barneratzeko orduan jartzen den arreta, ikasle gorrak dituen arreta mailak balioetsiz.
- Zein azalpen ulertzen dituen hobeto: banakako azalpenak edo talde txikietan ematen direnak.
- Ikaskideek ematen duten informazioaren ulermena, informazio hori parte-hartzea kontrolatua den kasuetan soilik ulertzen duen edo informazioa edozein egoeratan jasotzeko gai den balioetsiz.
- Eskolako azalpenen jarraipen maila, zer ulertu duen egiaztatuz.
- Taldeko elkarrizketen edo eztabaiden jarraipena. Garrantzitsua da elkarrizketak eta eztabaidak jarraitzen dituen eta laguntza teknikoa nahiz pertsonaren baten laguntza behar duen egiaztatzea.
- Ahozko ulermena zaildu dezaketen faktoreak. Horretarako, garrantzitsua da honako hauek egiaztatzea:
    - *Aurpegira begiratzen die hitz egiten dien pertsonei.*
    - *Nahikoa arreta eskaintzen du, edo beharrezko denboran.*
    - *Beste zarata batzuk entzuten dira.*
    - *Ikasgelako argia egokia da ezpainen irakurketa errazteko.*
    - *Irakasleen eta ikasleen arteko distantzia egokia da.*
    - *Irakaslearen aurpegia ondo ikus dezake.*
    - *«Arreta zatitu»ari dagozkion egoerak planteatzen dira: ikasle gorrak ikusizko bi estimulu edo gehiago jasotzen ditu aldi berean, ikus-eremu zabalean, eta ikasleak guztiei zuzendu behar die bere arreta. Esate baterako, arbela digitalean egindako aurkezpen bat, irakaslearen ahozko azalpena eta, horrez gain, berariazko irakasleek zeinu bidezko hizkuntzan emandako azalpena.*
    - *Ikaslea azkar nekatzen da.*
    - *Azalpenak luzeak dira eta ikusizko laguntza gutxi ditu.*
    - *Hainbat pertsonak aldi berean hitz egiten dute.*

[4] CREENA (2006): *Alumnado con grave discapacidad auditiva en Educación Infantil y primaria. Orientaciones para la respuesta educativa.* Iruña. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa.

Halaber, doikuntza eta laguntza hauek bultzatuko lukete gehien ikasgelako ahozko ulermena:

- Ikaslearen arreta erakartzea, begiratu dezan.
- Motelago hitz egitea, argiago ahoskatuz, baina gehiegikeriarik egin gabe.
- Azalpen laburrak ematea.
- Azalpen osagarriak ematea.
- Azalpenaren ideia nagusiak errepikatzea.
- Irakaslearen hizkuntza haurraren ulermen-aukeren arabera egokitzea (ohiko hiztegia eta esaldi errazak erabiltzea).
- Zeinu bidezko komunikazioa etengabe erabiltzea.
- Ahozko hizkuntzarekin batera terminoren bat azpimarratzeko edo argitzeko keinuak edo zeinuak erabiltzea.
- Azalpenekin batera ikusizko materiala eskaintzea (eskemak, diapositibak, power pointak).
- Erabiliko diren hitz nagusiak arbelean idaztea, edo azalpenaren eskema egitea.
- Elkarrerakintzarako egoerak ezartzea, binaka edo talde txikietan ahal bada.
- Kideen arteko laguntza antolatzea.
- Eztabaidetan arau jakin batzuk erabiltzea erritmoa eta txandak kontrolatzeko, hala, ikasle gorren parte-hartzea errazteko.

Azkenik, entzumen-galera duten ikasleen zailtasunetako bat talde handian egindako jardueretan gertatzen diren elkarrekintzen ingurukoa da. Talde handietan garatzen diren jarduera horietan parte hartzeko txandak errespetatzen ez badira, oro har, ikasle gorrentzat ezinezkoa da ikaskideek nahiz irakasleak adierazitakoa jasotzea. Helburu horrekin, hainbat gomendio egin nahi ditugu, baliabide metodologikotzat talde handiko lana erabiltzen denean kontuan hartzeko:

- Ikasle gorra toki egokian kokatzea, irakasleari eta arbelari zuzenean begiratzeko aukera izateko moduan eta, halaber, ikaskideen ikuspegi orokorra duela bermatzeko moduan, hala, parte hartzeko aukera izan dezan. Bigarren ilara toki egokia da.
- Planteatutako jarduera talde handian egin behar badute, «U» formako kokapena egokia izan daiteke.
- Jarduera hauetan, garrantzitsua da ikasle gorrak ikaskideek ikasgelan ematen duten informazioan parte hartzea; horretarako, beharrezkoa da ikaskideen esku-hartzeen erritmoa kontrolatzea, ikasle gorra galduta senti ez dadin. Zeinu-hizkuntzan aditua den irakasle baten laguntza izanez gero, horixe izango da irakasle horren egiteko bat, noski.
- Prozesua ahalik eta eraginkorrena izan dadin, gainerako ikaskideei ikaskide gorrak dituen zailtasunen berri ematea komeni da, eta esku hartzeko txandak errespetatu beharko dituzte, komunikazioa eraginkorragoa izan dadin.
- Eztabaidetan, garrantzitsua da parte hartzeko arauak azaltzea (entzutea – txanda eskatzea – gaiaren arabera esku hartzea – entzutea).

- Ikasleak ikaskideak ikusi egin behar ditu horiek hitz egiten dutenean. Laguntza teknikoren bat izanez gero –FM irrati-igorgailua, esate baterako–, ikaskideen artean eskuz esku ibiliko da, parte hartzeko txanda aldatzearekin batera.
- Eraginkorragoa da talde txikian egiten den lana talde handian egiten dena baino. Talde txikietan, ikasle gorrak ikaskideek ematen duten informazioa jaso dezake, seguruago sentituko da eta hobeto parte hartuko du prozesuan.
- Interesgarria da ideia nagusiak zuzenean adieraztea. Irakasle espezialistaren irudia egongo balitz, horixe litzateke berorren egiteko bat, hau da, taldeko kideek adierazitako informazioa helaraztea.

Laguntza osagarri teknikoak (FM irrati-igorgailua) nahiz beste pertsona batzuen (ikasle gorrei laguntzeko irakasleak, beste baliabide batzuk, etab.) laguntza behar diren balioetsi behar da.

# 5. Ikasle gorrak hizkuntzen irakaskuntzaren aurrean

## 5.1. Irakurmena eskuratzea

Beharrezkoa da esperientziekin eta egiaztatutako ikerketekin justifikatzea ikasle gorrek, irakurtzeko eta idazteko prozesu mekanikoak baino gehiago, ulertzeko prozesu mekanikoak eskuratzeko dituzten zailtasunak.

Irakurtzen ikastea ahozko hizkuntzaren gaitasunarekin lotuta dago, fonologiari dagokionez funtsean. Bestalde, irakurketa da norbanakoa autonomo bihurtzen duen tresna, ikaskuntzei dagokienez. Hala ere, ahozko hizkuntzan ez bezala –naturalki ikasten da, eskolan hasi aurretik–, irakurtzen eta idazten ikasteko irakaskuntza formala beharrezkoa da.

Entzuten duen haurra irakurtzen ikasten hasten denean eskolan, milaka hitz sortzeko eta ulertzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna du jada, eta hitz horiekin osa daitezkeen esaldi gehienak ezagutzen ditu, egitura sintaktiko konplexuenak menperatu ez arren.

Azken hogeita hamar urteotako datuak ugariak5 izan dira , eta, sistematikoki eta historikoki, haur gorrek irakurtzen eta idazten ikasteko prozesu mekanikoen ikaskuntzan zailtasunak izateaz gain, irakurtzeko orduan maila egokia eta funtzionala eskuratzeko arazoak erakutsi dituzte.

Alde horretatik, Gillot txostenak (1998)[6] datu esanguratsua ematen du: pertsona gorren % 80 alfabetatugabe funtzionalak dira gaur eta baita duela mende bat ere, hau da, ez dute ulertzen irakurtzen duten hizkuntza.

Ikasle gorrek lortutako emaitzei buruzko azterketa klasikoa egin zuen Conradek[7], 1979an argitaratutako lanean. Lan horretan, Ingalaterran eta Galesen 1974. urtetik 1976. urtera bitartean gorrei zuzendutako berariazko irakaskuntzan eskolatutako eta gorreria sakona zuten 15etik 16 urte eta erdi arteko gazte guztien irakurketa maila ebaluatu zuen. Azterketak erakutsi zuen gazte horietako bakar batek ere ez zuela bere adinari zegokion irakurketa maila; batez besteko maila Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren maila artekoa zen, eta % 15ek soilik lortu zuen Lehen Hezkuntzako seigarren mailari zegokion maila. Azken maila hori funtzionala dela esan daiteke, hau da, irakurketa informazioa lortzeko baliabide gisa erabiltzeko maila dela.

Datu horiek kontuan hartu behar dira, izan ere, askotan, entzuten duten profesionalek egiten duten oker bat, borondate onenarekin egiten badute ere, «*irtenbide*» kurrikular gisa testu idatziak erabiltzea izaten da, eta egiten duten planteamendua sinplista izaten da neurri batean: «*entzuten ez dutenez, idatziz emango diegu, eta horrela konponduko dugu arazoa*».

Emaitza horien arrazoiei dagokienez, egileak ez dira ados jartzen, baina ondoko arrazoi hauek azpimarratzen dira:

- Ahozko hizkuntzaren ezaguera maila baxua.
- Irakurtzen denari buruz dituzten ezaguera urriak.
- Esperientzia urriak eta ekoizpen idatzirako motibazioa.

[5] *«Hizkuntza idatzia eta ikasle gorrak»* gaia sakonago aztertzeko, bi erreferentzia hauek erabil daitezke: Domínguez, A. B.; eta Alonso, P. (2004)**:** *La educación de los alumnos sordos hoy: Perspectivas y respuestas educativas*. Malaga. Aljibe argitaletxea; eta Acosta, V. (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera*. Bartzelona. Masson argitaletxea, VIII. kapitulua.

[6] Gillot, D. (1998). *Informe en 115 proposiciones sobre los derechos de los sordos*. Frantziako Parlamentua eta Ezintasunaren Europako Foroa (EEF).

[7] Conrad, R. (1979). *The Deaf School Child***.** Londres: Harper & Row.

- Kodetze fonologikorako zailtasuna.
- Irakurtzen eta idazten irakasteko metodologia (Domínguez, A. B. eta Alonso, P., 2004)[8]

## 5.2. Idazmena eskuratzea

Hizkuntzaren erabilera bost trebetasun hauen bidez agertzen da: ahozko adierazpena, adierazpen idatzia, ahozko ulermena, ulermen idatzia eta ahozko elkarrekintza.

Ikusmenaren laguntza behar izatea da ikasle gorrentzat irakurtzen eta idazten ikasteak duen ezaugarri adierazgarriena. Soinuen denbora-ordenaren ondorioz, mintzaira iraupen gutxikoa den bitartean, idazkera iraunkorra da, behin eta berriro irakur daiteke. Idazkeraren iraunkortasunari esker, irakurleak nola irakurri kontrola dezake, azkarrago edo polikiago irakur dezake, eta, horrez gain, ikusizko hainbat arrasto ere eskaintzen ditu ulermena errazteko. Gainera, idazkerak hitzen forma zuzena adierazten digu. Horrek argi erakusten du ikasle gorrek hizkuntza idatzia ikasteak eta menderatzeak duen garrantzia, honako hauek errazten baitizkio:

· inguruko informazioa eskuratzeko aukera.

· hizkuntza-gaitasuna hobetzea.

· hiztegi berria ikasteko aukera.

· hizkuntza-eredu asko ezagutzeko aukera.

Hala ere, idazkera edo testuen ekoizpena jarduera kognitibo konplexua da. Ulertu gabe deskodetzea ez da irakurtzea; testu idatziak ezagutzeko prozesuei egiten die erreferentzia. Horretarako, kontzientzia fonologikoa garatu behar da, hitzak ezagutzeko trebeziak garatzeko funtsezko puntua baita. Sistema alfabetikoa ezagutu behar da, eta baita ahozkoarekin duen lotura, fonemen eta grafemen arteko lotura eta ortografiaren arauak ere.

Ulertzeko, beharrezkoa da hizkuntza-ezaguerak hitz berriak eta gero eta esaldi-egitura konplexuagoak barneratzea inplikatzea; bestalde, mundu fisikoa eta soziala ere ezagutu behar dira, eta beharrezkoa da testuei esanahia ematetik abiatuta zertarako irakurtzen den eta testu bakoitzak zer komunikazio-funtzio duen jabetzea ere.

Hizkuntza idatzia eta ahozko hizkuntza trebetasun interdependenteak dira. Hizkuntza idatziak beharrezko duen hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko lotura eta ahozkoak behar duena desberdinak dira.

Hizkuntza idatziak ahozkoaren estrategia eta trebetasun desberdinak eskatzen ditu, eta testuak ondo adierazteko eta ulertzeko estrategia eta trebetasun horiek garatu behar dira.

Oro har, ikasle gorrak idazteko zailtasunak izaten ditu derrigorrezko eskolaldian nahiz ondoren.

Hainbat azterlanek nahiz irakaskuntza-esperientziak berak erakusten dute ikasle gorren ekoizpen idatziek ondorengo ezaugarri hauek izaten dituztela:

- ikasle gorrek estilo sinplea eta zurruna dute.
- errepikapen estereotipatu ugari agertzen dituzte.
- aldaera sintaktiko urria agertzen dute.
- elkarren artean loturarik ez duten hizkuntza-unitateak erabiltzen dituzte.
- esaldi laburragoak eta sinpleagoak idazten dituzte.

---

[8] Op. cit., 98. eta 99. or.

- esaldiko hitzak desberdin banatzen edo ordenatzen dituzte.
- testu idatzian omisio-, ordezkapen-, gehitze- eta ordena-akatsak egiten dituzte.
- zailtasunak dituzte izenordainak, aditz laguntzaileak eta hizkuntza-egitura konplexuak erabiltzerakoan.
- preposizioak eta izenordain pertsonalak beharrezkoak ez direnean erabiltzen dituzte, eta hitzen generoa nahasten dute.
- aditz-denborak gaizki erabiltzen dituzte, edozein komunikazio modutan hezi badira ere (ahozkoan edo zeinu bidezkoan).

Zer unetan kokatzen dira ikasle gorren zailtasunak hizkuntza idatziaren ikaskuntzan? Domínguez Gutiérrezek (1999)[9] elkarren artean lotuta dauden bi faktore-multzo adierazten ditu: alde batetik, ikasle gorrek hizkuntza idatzia ikasten hasten direnean duten hizkuntza-gaitasun orokorra; eta, bestetik, irakurketan eta idazketan berariaz inplikatutako prozesuak.

Ikasle gorren eta entzuten duten ikasleen hizkuntza-gaitasuna hizkuntza idatzia ikasten hasteko unean oso desberdina da, entzuleen gaitasuna handiagoa baita. Beraz, esan daiteke hizkuntza-gaitasun orokorrean duen zailtasuna dela ikasle gorrek hizkuntza idatzia eskuratzeko arazo nagusia. Esate baterako, irakurtzen ikasten hasten direnean duten hiztegia oso urria da, eta, horrekin batera, lexikoaren ulermen faltak ere arazoak sortzen ditu ahozko hizkuntzaren egitura sintaktikoak menderatzeko garaian eta, nagusiki, hizkuntza figuratiboa, metaforak eta esapideak ulertzeko garaian.

## 5.3. Elebitasuna  (ahozko hizkuntza – zeinu hizkuntza)

Ikuspegi elebidunek bi komunitateko kide potentzial gisa ikusten dute haur gorra: gorren eta entzuten dutenen komunitateetakoa; hala, ikuspegi horren arabera, pertsona gorrak bai gorren komunitatean eta bai entzuten dutenen komunitatean pertsonalki nahiz sozialki integratzeko moduan hazi behar dira. Bestalde, ikuspegi horren arabera, ikuspegi psikolinguistikotik, zeinu-hizkuntza eskuratzeak inguruko gehiengoak hitz egiten duen hizkuntza ikastea erraz dezake.

Profesionalek eta familiek zeinu-hizkuntzaren arloan duten prestakuntza eta ezagutza gero eta handiagoa denez, eta, bestalde, zeinu-hizkuntza erabiltzen duten guraso gorrak dituzten haur gorrek ikaskuntzak barneratzeko prozesua eta pertsona gorrek lortutako emaitzak gero eta hobeto ezagutzen direnez, zenbait joerek haur gorrek komunikatzeko eta hezteko tresna gisa zeinu-hizkuntza erabiltzeko proposamena egiten dute. Zeinu-hizkuntza erabiliko litzateke ikaskuntzak eskuratzeko.

Beraz, zeinu-hizkuntzaren bitartez haur gorrak hizkuntza-gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta gaitasun kognitiboa barneratzen baditu, errazagoa izango da hasierako gaitasun horren gainean bigarren hizkuntza-gaitasun bat eraikitzea. Bestalde, haur gorrak eskola-curriculuma eskuratzeko tresna bat izango du, eta, beraz, entzuten duten ikaskideen antzera garatu ahal izango du berori (Valmaseda, M. 1995[10]) .

Ikuspegi horrek bultzada handia izan zuen Suedian edo Danimarkan, izan ere, herrialde horietan elebitasuna eskola guztietan txertatu zen, eta estatuak legeak eta arauak eman zituen.

---

[9] Domínguez, A. B.; eta Velasco, C. (1999): *Lenguaje escrito y sordera. Enfoques teóricos y derivaciones prácticas.* Salamanca. Publicaciones de la Universidad Pontificia de Salamanca.
[10] Verdugo Alonso, M.A. (1998): *Personas con discapacidad. Perspectivas psicopedagógicas y rehabilitadoras*. Madril. Siglo XXI de España Editores, S.

EAEn, 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez arautu zen egoera hori, Ikasle Gorren Lurralde arteko Hezkuntza Batzordeak idatzitako txosten baten bitartez; saileko teknikariek nahiz hiru lurraldeetako Familia Elkarteek hartu zuten parte txosten horretan. Txostenak ikasle gorrei eman beharreko erantzuna arautu zuen, bai trataera elebiduna duten Taldekatze Zentroetan (AH – ZH), bai banakako inklusioan.

### 5.4. Beste hizkuntza batzuen ikaskuntza

Batzuetan, ikasle gorrek ahozko hizkuntza bat baino gehiago eskuratzea zailtasun osagarritzat hartzen da; hala ere, psikolinguistikaren ekarpenek erakutsi digute hizkuntza baten ikaskuntzak, kode berri baten ikaskuntzaz gain, beste kultura bat, munduaren beste ikuspegi bat, beste komunitate bat ezagutu beharra dakarrela. Alde horretatik, EAEko zentro gehienen errealitate eleanitzak eta hezkuntza-elkarteak eskola inklusibo baten alde egindako apustuak ikasle gorrak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen den irakaskuntzatik ez baztertzeko gomendatzen dute, izan ere, ikaskuntza bi hizkuntzatan jasoz gero, ikasle gorrak hizkuntza-gaitasuna hobetuko du. Toronton egindako eta Cummins-ek[11] aipatutako ikerketen arabera, hizkuntzen artean ezagueren eta ikaskuntza-prozesuen transferentzia gertatzen da, eta lehen hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikasteak beste hizkuntza batzuk ikasteko abantaila zehatzak sortzen ditu.

Entzumen-galera duen ikasle batentzat, edozein hizkuntza ikastea zailtasun osagarria da, baina garrantzitsua da beste hizkuntza batzuk ikasteko eta erabiltzeko aukera ematea, beste edozein ikasleri bezala. Egoera bakoitzak hainbat aldagai kontuan izango dituen norbanakoaren balioespena eskatzen du: entzumen maila, inguruak eskaintzen dizkion aukerak, hizkuntza-gaitasunaren maila, etab.

Alde horretatik, ikasle gorrak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza sistematikoarekin hasteko unerik egokiena zein den zehazteko orduan, esan behar da entzuten duten ikasle gehienek ikaskuntza horri Haur Hezkuntzan heltzen dioten arren, EAEko curriculum ofizialak ez duela derrigortzat jotzen Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara arte. Ikasle gorren ahozko hizkuntzaren garapen-fase emankorrena 5 urtetik 9 urtera bitartekoa[12] denez , zuhurra izan daiteke atzerriko hizkuntza ikasten hasteko unea atzeratzea, hala, ikasle horiek lehen hizkuntza eta ikasten ari diren ikastetxeko irakaskuntza-hizkuntza(k) finka ditzaten. Atzerriko hizkuntza ikasten hasteko unearen atzerapenak ez du zertan hizkuntza horretan egin beharreko ikaskuntza-helburuei uko egitea ekartzen, izan ere, hainbat adituren ustez[13], ikasle heldua (edo nerabea) gaztea baino hobeto moldatzen da, haurrak baino azkarragoa eta eraginkorragoa da ikaskuntzaren lehenengo faseetan, baliabideak edo estrategiak areagotu egiten baitira adinean aurrera egin ahala, eta garapen kognitibo handiagoak irakaskuntza formalari probetxu handiagoa ateratzeko aukera ematen baitio. Ikasle gazteenek abantaila duten ikaskuntzaren alderdi bakarra fonologikoa dela diote azterlan horiek, baina hori ez da alderdi garrantzitsuena gorreria duten ikasleen kasuan.

Beharrezko baliabideak eta estrategiak kontinuum baten barnean mugitzen dira, eta horren muturrean honako hauek leudeke: grabazio bat gehiagotan entzutea, entzun aurretik testu idatzia ematea edo irakasleak testua irakurtzea, ezpainak irakurtzeko aukera izan dezaten. Beste

---

[11] CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, Poder y Pedagogía*. Madril. Morata

[12] SILVESTRE, N; LABORDA, C. *Los inicios de la comunicación y la adquisición del lenguaje oral en el alumnado con sordera*. In: *La sordera desde la diversidad lingüística*.

[13] MC LAUGHLIN (2006) *Mitos y falsas creencias acerca del aprendizaje de una segunda lengua: lo que todo profesor debería olvidar*. Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura, 41. zk.
Askoren artean (1999): *En torno a los efectos de la edad en el aprendizaje de una lengua extranjera.* Azkeneko lotura: < http: \\www.ub.es\ice\portaling\eduling\cat\n_I\munoz-article-nl.pdf>

muturrean, hala ere, informazio idatzia eskuratzea ahalbidetuko dieten estrategien eta baliabideen lehenespena egin beharko litzateke (FM ekipoaren erabilera, begizta magnetikoaren instalazioa…).

Zeinu-hizkuntzako interpretea erabiltzen duten ikasleek ezaugarri bat dute: zeinu-hizkuntzako interpretea irakasleen eta ikasleen arteko bitartekaria denez, ebaluatzen denean, azkenean interpretea ebaluatzen da, eta ez ikaslea. Berariazko faktore hori kontuan hartu beharko litzateke beste hizkuntza batzuetan curriculuma lantzen denean.

## 6. Eredu programaren xede diren ikasleak

«*Ikasle gorrak ahozko hizkuntzen curriculumean txertatzeko*» eredu programaren lanketa proiektua oso garrantzitsua da, ezintasun hori duten ikasleen garapen ekonomikoa lortzeko.

Proiektu horrek derrigorrezko irakaskuntzako eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzako hizkuntza-arloen ibilbide kurrikularra hartu nahi du barnean; hala ere, ikaslearen banakako ezaugarriak eta Eredu Programa batzeak ez du esan nahi ikasleek programan zehaztutakora mugatu behar dutenik. Ikasleen errealitateak zehaztuko du programa erabiltzeko malgutasuna. Beharbada, zenbait ikasle beste batzuk baino gehiago hurbilduko dira curriculum arruntera, eta, beste ikasle horien kasuan, egokitzapen gehiago egin beharko lirateke; halaber, beste talderen batentzat Eredu Programa bera curriculum-erreferentzia egokia izan daiteke. Ikasle gorrak dituzten ikastetxeek hizkuntza-arloetan curriculumaren erreferentziazko adibidetzat har dezakete Eredu Programa.

Azkenik, *xede-ikasleen* deskribapenarekin hasi baino lehen, esan behar da ikasle gorren artean gertatzen ari diren aldaketak ere begien bistakoak direla; lehenago ere aipatu ditugu horietako batzuk:

- Alde batetik, Euskal *Autonomia Erkidegoko Haur Gorreria Goiz Detektatzeko Programaren*[14] ondorioz, EAEn jaiotako haur guztiei egiten zaizkie entzumena hautemateko probak; proba horiei esker, haurtxoaren entzumena egokia den egiazta daiteke edo entzumen-gabeziaren diagnostiko goiztiarra egin daiteke, eta, horren ondorioz, haurtxoaren behar orokorren tratamendu terapeutikoa bermatzen da, kasu askotan haurrak urtebete egin baino lehenago ere.
- Bestalde, garapen teknologiko garrantzitsua gertatu da, eta, askotan, entzumen-funtzionaltasun handiagoa eskaintzen zaio haurtxo gorrari.
- Azkenik, hezkuntza-errealitatea ere aldatu da, eta, aniztasunarekiko trataerari dagokionez, ikasleekiko oro har, eta, bereziki, ikasle gorrekiko jarrera eta estrategia didaktiko ulerberagoak sustatu dira.

Hala ere, goian adierazitako aldagai horiei bi baldintzatzaile erantsi behar zaizkie:

- Alde batetik, hezkuntza-sisteman berandu hasten diren ikasle gorrak daude, esate baterako, immigrazio-faktoreen ondoriozkoak; kasu horietan, EAEkoa ez den beste ama-hizkuntza bat dute haur horiek, eta ahozko nahiz zeinu bidezko hizkuntza-gaitasuna berandu garatzen dute.
- Bestetik, gortasunaz gain, beste ezintasun batzuk izan ditzakete haurrek.

Aldagai horiek eta sarrera honen hasieran deskribatutakoak kontuan hartuta, ikasle gorren multzoa aldakortasun funtzional handikoa dela esan behar da, eta, beraz, ikasle gorren kasuan, guztiz beharrezkoa da banakako ebaluazioa eta hezkuntza-planteamenduak egitea.

Aldagai horiek nahiz aldagai audiologikoak eta hizkuntzari dagozkionak kontuan hartuta, ikasle gorrak hainbat taldetan kokatzen saiatu gara, ezaugarri horiek kontuan hartuta beti, eta ahozko hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuetan curriculumaren esparruko hainbat neurri planteatu ditugu ikasle horientzat.

[14] Azkeneko lotura:
http://www9.euskadi.net/sanidad/osteba/datos/d_05-06_programa_cribado_sordera_infantil.pdf

| | IKASLEAK | CURRICULUM NEURRIAK |
|---|---|---|
| 1. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: alde bietako entzumen-galera neurosentsorial larria edo sakona.<br>-Entzumenari laguntzeko tekniken (inplante koklearra, audifonoak, inplante osteointegratua…) funtzionaltasun egokia.<br>- Ahozko komunikazio-gaitasuna. | Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentza |
| 2. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera arina edo moderatua. Alde bateko entzumen-galera.<br>- Entzumen-protesien aprobetxamendu egokia.<br>- Ahozko komunikazio-gaitasuna. | Curriculum arrunta nahiz Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat |
| 3. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera aldakorra. (Entzumen-galera arinetik entzumen-galera sakonera arte)<br>- Entzumen-protesien aprobetxamendu urria.<br>- Beste ezintasun osagarriak izan ditzake.<br>- Ahozko hizkuntza pobrea. | Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat lehen hizkuntzan nahiz curriculumaren egokitzapen esanguratsuak (ahozko beste hizkuntza batzuetan) |
| 4. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera aldakorra.<br>- Sisteman berandu sartu direnak.<br>- Familian ahozko beste hizkuntza bat edo batzuk erabil ditzakete, EAEkoaren desberdinak. | Aukera zabala, ezaugarrien arabera balioetsi beharrekoa:<br>· Programazio arrunta errefortzu-neurriekin.<br>· Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat<br>· Egokitzapen esanguratsuak |

## 7. Curriculuma eskuratzeko planteatutako neurriak

Curriculuma eskuratzeko planteatzen diren neurriak orientazio moduan erabiltzeko proposamenak dira, ikasle gorren inklusio hobea lortzeko bai hezkuntza-bizitzako parte-hartzean, bai irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzeko.

Ikasle gorrak eskolatzeko prozesuan ahozko hizkuntzen curriculuma egokitzeko proiekturako planteatutakoaren ildo beretik, orain neurri horiek ikasle gorraren errealitate zehatzera egokitzea da helburua. Ez da, beraz, eredu itxia, baizik eta proposamen malgua.

Ondoren, curriculuma ikasle gorren beharretara egokitzeko hainbat estrategia aurkeztuko ditugu, berorren zehaztapen mailak kontuan hartuz: ikastetxea, ikasgela eta banakakoa; curriculumeko elementuak ere hartu dira kontuan.

**CURRICULUMEKO ELEMENTUAK**

| OINARRIZKOAK | CURRICULUMEAN TXERTATZEKOAK |
|---|---|
| ▪ **Zer eta noiz irakatsi**<br>*Helburuak*<br>*Edukiak*<br>▪ **Nola irakatsi**<br>*Metodologia*<br>*Ikasteko eta irakasteko jarduerak*<br>▪ **Zer, nola eta noiz ebaluatu** | ▪ **Elementu pertsonalak**<br>▪ **Elementu materialak**<br>▪ **Antolamenduari dagozkion elementuak** |

## IKASTETXEKO EGOKITZAPENAK

| OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Helburuak eta edukiak** | **Metodologia eta jarduerak** | **Ebaluazioa** |
| · Prozedurei buruzko helburuei lehentasuna ematea.<br>· Jarrerei buruzko helburuak esplizitu bihurtzea.<br>· Ikasgaien globalizazioa sustatzea.<br>· Jarduera esanguratsuen lanketa bultzatzea.<br>· Hizkuntzaren erabilera eta funtzionaltasuna nabarmenduko dituzten helburuak sustatzea.<br>· IHPn eta ICPn ikasle horiei eman beharreko erantzuna jasotzea, ikastetxeko aniztasunaren zati den heinean.<br>· Komunikazio-hesien desagerpena kudeatzea.<br>· Familien eta gorren elkarteekin batera lan egitea ikasle gorren eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko orduan.<br>· Jarduera ludikoak, jolas kooperatiboak, erakusketa tematikoak eta antzekoak antolatzea, entzuten duten pertsonak erakartzeko: nortasun-jokoak (ezpainak irakurtzea, arreta zatitua, mezu bat zeinu bidez bidaltzea, komunikazio-lantegiak, komunikazio-hesiak desagerrarazteko lantegiak, etab.).<br>· Eskola-testuinguruan zeinu-hizkuntzaren bidezko komunikazio funtzionala lantzeko eskolak antolatzea, parte hartu nahi duten irakasleentzat.<br>· Zeinu-hizkuntzaren presentzia ikastetxeko hizkuntza-paisaian (kartelak, iragarkiak, oharrak, mezuak..). | · Ikasleen taldekatzeei dagokienez ikastetxearen malgutasuna sustatuko duten irizpide metodologiko orokorrak ezartzea.<br>· Ikaskuntzetan autonomia ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea.<br>· Ikasle gorraren eta entzuten duen ikaslearen arteko bi noranzkoetako komunikazioa sustatzea.<br>· Ikaskuntza berriak hainbat testuingurutan aplikatzea, irakasle guztien ardurapean, beroriek orokortzea bultzatzeko.<br>· Pertsona gorraren komunikazio-arazoaren ulermena sustatuko duten jarduerak.<br>· Lankidetzazko zereginak esleitzea. | · Ikastetxearen baliabideen eta aurretiazko esperientzien hasierako ebaluazioa.<br>· Erabilitako prozedura egokiak zehaztea.<br>· Hezkuntza-premia bereziak (gorreria) dituzten ikasleen promoziorako irizpide orokorrak definitzea.<br>· Komunikazioaren ebaluazio-irizpideak zehaztea.<br>· Hesiak desagerrarazteko gailuen funtzionamenduaren balioespen sistematikoa. |

## IKASTETXEKO EGOKITZAPENAK

| CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Pertsonalak eta materialak** | **Antolamenduari dagozkionak** | **Komunikazioa** |
| · Irakasleen prestakuntza ahalbidetzea.<br>· Esku-hartzeko taldearen zereginak modu egokian zehaztea.<br>· Logopedia-zeregina eta eskola-laguntzako zeregina modu egokian bereiztea..<br>· Ikasleen heziketan parte hartzen duten pertsona heldu gorrekiko harremana sustatzea.<br>· Sentiberatzeko jardunaldiak antolatzea entzuten duten ikasleen gurasoei begira.<br>· Beharrezko material pedagogikoa eta teknikoa erabiltzeko aukera ematea.<br>· Gorreriari buruzko dokumentazio-funts bat antolatzea.<br>· Inplikatutako irakasleak koordinatzeko bilerak zehaztea.<br>· Kanpoko aholkulariekin koordinatzeko bilerak zehaztea. | · Aniztasunarekiko arreta ikastetxearen proiektuan bertan lantzen da.<br>· Zuzendaritza-taldearen eta inplikatutako profesionalen arteko aldian behingo koordinazioa bultzatzea.<br>· Ikasleen taldekatzeak egiteko aukera aztertzea.<br>· Hainbat hezkuntza mailatako ikasle gorren arteko elkarrekintza sustatzea.<br>· Ikasmailak irakasleen aldez aurreko jarrerak eta eskumenak kontuan hartuta banatzea.<br>· Beharrezko tresna teknikoak kokatzeko guneak izatea.<br>· Bidezko tutoretza bateratuak errazteko neurriak bultzatzea (ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza erabiltzen duten irakasleen artekoa).<br>· Zeinu-hizkuntzaren presentzia bultzatzea ikastetxean (eskolako hizkuntza-paisaiako beste hizkuntzen ondoan).<br>· Ikasle gorren eta ohiko irakasleen elkarrekintzarako estrategia errazak sustatzea. | · Ikasle gorrekin erabiltzeko komunikazio-sistema bat (zeinu-hizkuntza) hautatzea, eta irakasleek eta entzuten duten ikasleek gero eta gehiago ezagutzea.<br>· Komunikatzeko sistema osagarriak erabiltzeko aukera aztertzea.<br>· Ezpainen irakurketa egiteko ahalegin txikiena egin behar izateko beharrezko baldintzak azaltzea.<br>· Laguntzen funtzioari (FM, protesiak) buruzko informazioa ematea ikaskideei.<br>· Irakasleak ez entzuteak dakarrenaren inguruan sentiberatzeko jarduerak (simulazioa).<br>· Ikastetxeko irakasleei zeinu-hizkuntzan hiztegi funtzionala ikasteko aukera ematea (eskolako testuinguruarekin lotutakoa: korridorea, jolastokia, jangela…).<br>· Ikastetxeko ikasleei zeinu-hizkuntzan hiztegi funtzionala ikasteko aukera ematea.<br>· Ikastetxeko hizkuntza-paisaian zeinu-hizkuntza txertatzea: ikasgeletan (irakasteko guneetan), jangelan, komunetan, liburutegian, korridoreetan...). |

## IKASGELAKO EGOKITZAPENAK

| OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Helburuak eta edukiak** | **Metodologia eta jarduerak** | **Ebaluazioa** |
| · Ikaskuntzari dagozkion helburuak eta edukiak txertatzea, eta komunikatzeko sistema alternatiboak (zeinu-hizkuntza) eta osagarriak erabiltzea.<br>· Gorreriarekin eta gorren komunitatearekin lotutako oinarrizko alderdiei buruzko edukiak txertatzea.<br>· Ikaskuntza esanguratsuak eta motibatzaileak sustatzea.<br>· Errealitatea eskolako helburuekin lotzea.<br>· Edukien sekuentzia aldatzeko edo eduki batzuk kentzeko edo gehitzeko aukera.<br>· Malgutasuna aurreikusitako helburuen tenporalizazioan.<br>· Ikasgelan logopediako esku-hartzetik ondorioztatutako lan osagarriak egiteko aukera izatea.<br>· Ikasgelako programazioan ahozko hizkuntzaren lanketan laguntzeko jarduerak jasotzea.<br>· Edukiak ondo ulertzeko transmisio-baliabide egokiak bermatzea.<br>· Hizkuntzen presentzia orekatua ahalbidetzea ikasgelan.<br>· Hesiak kentzeko laguntzei eusteko modua sustatzea (FM, protesiak…).<br>· Ikaslearen eta ikasgelaren arteko bi noranzkoko komunikazioa erraztuko duten estrategiak garatzea<br>· Ikasgelako programazioan banakako egokitzapenak kontuan hartzea.<br>· Ikasleen hizkuntza-gaitasuna aztertzea (ZH-AH) haien komunikazio mailaren balioespena egiteko orduan. | · Egokitzapen metodologikoak txertatzea ikasgelan: lan kooperatiboa sustatzea (kideen arteko tutoretza, oharrak hartzea…).<br>· Lan-erritmo desberdinak errespetatzea.<br>· Lana interesguneen, proiektuen, lantegien eta abarren arabera sustatzea.<br>· Erantzun maila desberdinetako jardueren plangintza egitea, arrakasta eta errefortzu positiboa eskaintzeko.<br>· Azalpen osagarriak ematea banaka nahiz taldean.<br>· Ikusizko material eta material tekniko egokien erabilera sustatzea.<br>· Jardueren dibertsifikatzea: irekiak (erantzun bat baino gehiago izan dezaketenak), mailakatuak, ikasleen interesen eta gaitasun mailatik hurbil egongo direnak eta zailtasun maila desberdinekin ikasmaila bakoitzerako.<br>· Jarduera batzuk zeinu-hizkuntzan aurkeztea (zeinu-hizkuntzako irakaslearen tutoretzapean). | · Ikasgelan zehaztutako curriculumaren egokitzapenen prestakuntzazko ebaluazioa egitea.<br>· Hainbat ebaluazio-estrategia aplikatzeko aukera.<br>· Ikasleak arrakasta handien duen komunikazio-estrategiara egokitzea ebaluazioa (idazmena, zeinu-hizkuntza, ahozko hizkuntza…).<br>· Ebaluaziorako tresnak ikasleen beharren arabera egokitzea: denbora-malgutasuna, hizkuntza-formulazioa, zeinu-hizkuntza erabiltzeko aukera ematea…<br>· Ikasgelan hesiak desagerrarazteko gailuen funtzionamenduaren balioespen sistematikoa.<br>· Garatu ahal izan den ikasgelako programazioaren barnean, norbanakoen araberako egokitzapenen garapen mailaren balioespena. |

## IKASGELAKO EGOKITZAPENAK

| **CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK** | | |
|---|---|---|
| **Pertsonalak eta materialak** | **Antolamenduari dagozkionak** | **Komunikazioa** |
| · Tutoreak ikasleen bana-banako laguntza pedagogikoa eskaintzeko espazioak sortzea.<br>· Espezialisten arreta errazteko antolamenduan edo ordutegian egin beharreko aldaketak sustatzea.<br>· Logopedarekin koordinazioa bermatzea aldian-aldian.<br>· Ikasgelako tutoreen koordinazio sistematikorako denborak bermatzea.<br>· Intsonorizazio- eta argi-baldintza egokienak izatea.<br>· FM irrati-igorgailuak erabiltzeko aukera.<br>· Material didaktiko eta tekniko egokia izatea ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza lantzeko.<br>· Aurkezpenak edo diapositibak erabiltzea arbelaren ordez, irakasleak arbelera begiratzen ez badu ikasle gorrak ezpainak irakurtzeko aukera izango baitu.<br>· Astero kontsulta sistematikoak egiteko espazioak eta denborak sustatzea. | · Irakasleak ikasgelan antolamenduarekin lotutako aldaketak egiteko prest agertzen dira:<br>- *Ikasleen taldekatze homogeneoak edo heterogeneoak egitea, jarduera bera zailtasun maila desberdinarekin eta hainbat erantzun emateko aukerarekin egiteko.*<br>- *Malgutasuna zereginen tenporalizazioa zehazteko orduan.*<br>- *Malgutasuna ikasgelako espazioaren aprobetxamendua zehazteko orduan.*<br>· Inplikatutako pertsona guztiak koordinatzeko espazioak bermatzea.<br>· Hezkuntza-ekintzaren plangintza egitea, aurretiazko laguntzak, jarduera egiten den uneko laguntzak nahiz ondorengo laguntzak kontuan hartuz.<br>· Kideen arteko tutoretza. | · Ikasle gorrarekiko komunikazio interaktiboa sustatzea ikasgelaren barnean.<br>· Elkarrekintzetan, honako hauetan jartzea arreta:<br>- *jarreren sinkronia hitz egiteko txandetan.*<br>- *txanda hartzeko eta azalpen lasaiak emateko denborak hartzea.*<br>- *besteei hitz egiteko aukera erraz ematea.*<br>- *txandak hasteko aukerak ematea.*<br>- *ekarpenak zabaltzea edo berriro formulatzea (ez zuzentzea).*<br>· Beharrezkoa bada, Bigarren Hezkuntzatik aurrera zeinu-hizkuntzako interprete bat izateko aukera ematea.<br>· Ikasgelaren barnean beste sistema handigarri batzuk erabiltzeko aukera izatea.<br>· Ikasgelako jardueren aurkezpena bi hizkuntzetatik edozeinetan egiteko erraztasunak ematea, partekatutako tutoretzaren antolamendua kontuan hartuta.<br>· Irakasleekiko elkarrekintzan:<br>- *jarrerari dagokion sinkroniari eustea hitz egiteko txandetan.*<br>- *ikaslearen hitz egiteko txandarako eta azalpenerako denborak ematea.*<br>- *besteei hitz egiteko aukera erraz ematea.*<br>- *txandak hasteko aukerak ematea.*<br>-*ikaslearen ekarpenak zabaltzea edo berriro formulatzea, baina zuzenean ez zuzentzea.*<br>· Zeinu-hizkuntzaren edo hizkuntza arruntaren erabilera sustatuko den komunikazio-egoerak sortzea. |

## BANAKAKO EGOKITZAPENAK

<table>
<tr><th colspan="3">OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK</th></tr>
<tr><th>Helburuak eta edukiak</th><th>Metodologia eta jarduerak</th><th>Ebaluazioa</th></tr>
<tr>
<td>· Norbanakoei zuzendutako helburuak eta edukiak txertatzeko aukera: logopediako programazioa, eskola-errefortzua, etab.<br>· Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak: ikasgai bakoitzean aginduzkoak diren edukiak eta helburuak lehenestea, hautatzea edo kentzea.<br>· Curriculumerako esanguratsuak ez diren egokitzapenak: ikasgai bakoitzean aginduzkoak ez diren edukiak eta helburuak lehenestea, hautatzea edo kentzea.<br>· Denboraren edota kontzeptuen sakontasun mailaren egokitzapena.<br>· Adierazpen idatziaren hobekuntza sistematikoa: mamia eta forma bereiztea.<br>· Hizkuntzen tratamendua: zeinu-hizkuntza, ahozko hizkuntza (euskara / gaztelania).<br>· Gorren komunitatearen kultura edo hizkuntza ere barnean hartuko duen curriculuma (berariazkoa) txertatzea.</td>
<td>· Zereginaren zailtasuna txikitzeko aukera.<br>· Lan-erritmoa moteltzea.<br>· Banaka azalpen osagarriak emateko aukera izatea.<br>· Konplexutasun maila desberdineko erantzunak emateko aukerak dituzten zereginak.<br>· Kideen arteko errefortzu-zereginak antolatzea hainbat ikasgaitan.<br>· Ikasle gorraren arabera egokitutako ikusizko estrategiak maiz erabiltzea (ikaslearen iritzia kontuan hartuko da).</td>
<td>· Ikaslearen curriculum-gaitasuna ebaluatzea, bai aurreikusitako helburuei eta edukiei dagokienez, bai motibazioari eta ikasteko estilo eta estrategiei dagokienez.<br>· Norbanako Curriculum Egokitzapenean (ACI) zehaztutakoaren arabera ebaluatzea, bertan ikasle jakin baten curriculuma jasotzen denean.<br>· Familia-ingurua ebaluatzea:<br>- Gorrak diren edo entzuten duten<br>- Gorreriaren aurrean dituzten jarrerak<br>- Etorkizuneko itxaropenak<br>- Lankidetzarako ahalmena.<br>· Ikaslearen ahozko komunikazio-gaitasuna ebaluatzea, eta baita zeinu-hizkuntzan duena eta duen egonkortasun emozionala ere.<br>· Azterketetan, idatziz adierazteko dituen aukerak kontuan izatea. Mamia eta forma bereiz ebaluatzea.</td>
</tr>
</table>

## BANAKAKO EGOKITZAPENAK

<table>
<tr><th colspan="3">CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK</th></tr>
<tr><th>Pertsonalak eta materialak</th><th>Antolamenduari dagozkionak</th><th>Komunikazioa</th></tr>
<tr>
<td>· Ikasleak bere beharrei erantzungo dien adituen talde bat izateko aukera: Ikasgelako irakasleak, PT, logopeda edo EHI…<br>· Gehiegi edo gutxiegi babesteko jarrerak saihestea.<br>· Ikasle gorrari zuzendutako tutoretza areagotzea.<br>· Ikaskidearen edo taldearen laguntza ahalbidetzea. Kideen arteko tutoretza.<br>· Banaka eta taldean zaratarik eta erreberberaziorik gabe lan egiteko espazio bat erabiltzeko aukera izatea.<br>· Material didaktiko egokitua erabiltzeko aukera.<br>· Testu idatziak ikaslearen hizkuntza-trebezien arabera egokitzea.<br>· Ikusizko euskarrien erabilera sistematikoa.<br>· Landu beharreko gaiaren edo lanaren aurkezpen sistematikoa edo jardueraren laburpen-eskema.<br>· Denborak sistematizatzea, irakasleak koordinatzeko aukera izan dezaten.<br>· Ikaslearen arabera, ahozko hizkuntza ulertzen laguntzen duten baliabideak edo estrategiak erabiltzea (FM,…).</td>
<td>· Ikasle gorrentzat oharrak hartzeko sistema bat antolatzea (irakasleen eta/edo ikaskideen artean).<br>· Familiarekin komunikatzea:<br>- protesien mantenimendurako.<br>- garapenaren alderdiak eta komunikazio eraginkorrenaren estiloa aztertzeko.<br>· Unitate didaktikoetako edukien –kontzeptuen– eta lexikoaren aurrerapena.<br>· Errefortzuko zereginez arduratzen diren profesionalen eta ohiko irakasleen lana koordinatzeko denbora sistematikoak.<br>· Ikasleen arteko lankidetza sustatzea.</td>
<td>· Hiztegia egokitzea eta ikasleek ulertzeko moduko esaldiak erabiltzea.<br>· Komunikatzeko baldintza egokiak ez urratzea:<br>Aurrez aurre hitz egitea.<br>Argi ahoskatzea.<br>· «Arreta zatituaren» fenomenoa saihestea; ikasle gorrak aldi berean eta ikus-eremu zabal batean ikusizko bi estimulu esanguratsu edo gehiago dituenean gertatzen da fenomeno hori, estimulu guztiek bere arreta eskatzen dutenean.<br>· Ahozko hizkuntzaren alderdi pragmatikoei eta funtzionalei ematea lehentasuna ekoizpenaren kalitatearen aurrean.<br>· Komunikatu duela jakinaraztean ikasleari segurtasuna ematea, nola egin duen alde batera utzita.<br>· Inguruko aldaketen berri esplizituki eta zuzenean ematea.<br>· Adierazpen idatzia: mendeko esaldien ordez beste batzuk erabiltzea, ohikoak ez diren aditz-jokaeren ordez adberbioak erabiltzea, etab.</td>
</tr>
</table>

## 8. Glosarioa

- ***Arreta zatitua.*** Ikasle gorrak bi estimulu edo gehiago jasotzen ditu aldi berean eta ikus-eremu zabalean, eta ikasleak guztiei zuzendu behar die arreta.

- ***Audifonoak.*** Erabiltzaileak gorde dituen entzumen-hondarren arabera, entzumen-seinalea handiagotzen duten gailuak.

- ***Audiometria.*** Entzumena neurtzeko proba subjektiboa.

- ***Hezkuntza elebiduna.*** Gorreria duten ikasleen kasuan, hezkuntza elebiduna dela esango dugu komunikazio-hizkuntza gisa ahozko hizkuntza nahiz zeinu-hizkuntza erabiltzen direnean. Planteamendu horrek aldaketa metodologiko eta kontzeptual garrantzitsuak eskatzen ditu.

- ***FM irrati-igorgailua.*** Laguntzeko produktu bat da, igorgailu bat eta hargailu bat dituen tresna txiki bat. Sistema horiek entzumen-seinalea hobetzen eta hurbiltzen dute, inguruko zarata arintzen dute, eta, horrela, erabiltzaile horiekin komunikatzeko aukera ematen dute. Banaka erabiltzekoak dira, eta ez dute inolako instalaziorik eskatzen.

- ***Fonologia.*** Hizkuntzalaritzaren atala, komunikazioan funtzio bat betetzen duten hotsak soilik aztertzen dituena; hau da, hizkuntzaren ikuspegitik ezaugarri bereizleak dituztenak soilik aztertzen ditu. Hizkuntza horrek dituen fonemen inbentarioa, horiek segida zuzenak osatzeko elkartzeko moduak, fonema bakoitzak ondoan dituenen arabera izaten dituen egokitzapenak eta doinuari, metrikari eta azentuari buruzko arauak biltzen ditu. Haur gorren kasuan, osagai fonologikoak alde bisual eta kinestesikoa ere baduela egiaztatu da; horregatik, ezpainak irakurriz, hizkuntzari buruzko informazio fonologikoa ematen dute, nahiz eta, kasu askotan, modu nahasian.

- ***Irabazi protesikoa.*** Audifono batek eskain dezakeen anplifikazio maila, sarrera maila desberdinetan eta pertsona bakoitzaren profil audiometrikoaren arabera. Audifono batzuek hainbat irabazi maila eskain ditzakete, hainbat maiztasun-bandatan, hala, pertsona bakoitzaren entzumen-profilera hobeto egokitzeko.

- ***Hipoakusia.*** Entzumena erabat edo neurri batean galtzea.

- ***Inplante koklearra.*** Entzumenerako produktu lagungarria da, eta soinuen kalitatea eta kopurua hobetzea du xede. Horretarako, zeinu akustikoak zeinu elektriko bihurtzen ditu, eta horiek entzumen-nerbioa estimulatzen dute.

- ***Entzumen-screeninga.*** «*Jaioberrien entzumen-baheketa*» ere esaten zaio. Jaioberriei entzumen-galerarik ez dutela ziurtatzeko egiten zaizkien probak dira.

- ***Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarriak.*** SAAC siglen bidez ere ezagutzen dira. Zentzu orokorrean, komunikatzeko baliagarria den edozein baliabide da, mintzamena izan ezik. Adibidez: seinaleak, piktogramak, esku-zeinuak...

## 8. Bibliografia


- ASKOREN ARTEAN (1999): *En torno a los efectos de la edad en el aprendizaje de una lengua extranjera.* Azken lotura: <http:\\www.ub.es\ice\portaling\eduling\cat\n_l\munoz-article-nl.pdf>.

- ASKOREN ARTEAN (2002): Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación. Anaya, Madril.

- ACOSTA, V. (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera.* Bartzelona. Masson Elsevier.

- ALONSO, P. (1991): *Evaluación curricular: Detección y evaluación en el proceso de enseñanza/aprendizaje de los alumnos sordos*. Madril. Centro Nacional de Recursos para la Educación Especial-MEC.

- ALONSO, P.; DOMÍNGUEZ, A.B. (2004): *La educación de los alumnos sordos hoy.* Perspectivas y respuestas educativas. Málaga. Aljibe.

- ÁLVAREZ, A.; DEL RÍO, P. (1990): «Educación *y Desarrollo: la teoría de Vigotsky y la zona de desarrollo próximo*», in Marchesi, A.; COLL, C.; PALACIOS, J.: *Desarrollo psicológico y Educación II. Psicología de la Educación.* Madril. Alianza Psicología.

- ASENSIO, M. (1989): *Los procesos de lectura en los deficientes auditivos.* Argitaratu gabeko doktorego-tesia. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

- CALVO, J. C. (1999): *La sordera. Un enfoque socio-familiar.* Salamanca. Amarú. (Psicología, 46)

- CLAUSTRE CARDONA, M. ETA BESTE BATZUK (2010): Alumnado con pérdida auditiva. Escuela inclusiva: Alumnos distintos pero no diferentes. Bartzelona. GRAO.

- CONRAD, R. (1979): *The Deaf School Child.* Londres. Harper & Row.

- CREENA (2006): *Alumnado con grave discapacidad auditiva en Educación Infantil y Primaria. Orientaciones para la respuesta educativa.* Iruñea. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa.

- CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, Poder y Pedagogía.* Madril. Morata.

- DOMÍNGUEZ, A.B.; ALONSO, P. (2004): *La educación de los alumnos sordos hoy. Perspectivas y respuestas educativas.* Málaga. Aljibe.

DOMÍNGUEZ, A.B. eta VELASCO, C. (1999): *Lenguaje escrito y sordera. Enfoques teóricos y derivaciones prácticas*. Salamanca. P.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Oinarrizko Hezkuntzarako curriculumaren dekretua (azaroaren 13ko EHAA).*

*Eusko Jaurlaritza.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Haur Hezkuntzarako curriculumaren dekretua.*

GILLOT, D. (1998): *Informe de 115 proposiciones sobre los derechos de los sordos.* Frantziako Parlamentua eta Ezintasunaren Europako Foroa (EEF).

JÁUDENES, C. ETA BESTE BATZUK (2004): *Manual Básico de Formación Especializada sobre Discapacidad Auditiva.* 3. edizioa. Madril. Fiapas.

JUÁREZ, A.; MONFORT, M. (2001): *Algo que decir. Hacia la adquisición del lenguaje. Manual de orientación para padres.* Madril. Entha.

MARCHESI, A. (arg.) (1987): *El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos.* Madril. Alianza.

MC LAUGHLIN (2006): *Mitos y falsas creencias acerca del aprendizaje de una segunda lengua: lo que todos profesor debería olvidar.* Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura, 41. zk.

PEÑA CASANOVA, J. et al. (1981): *Sordera Central*. Logopedia Fonoaudiológica. I. liburukia, 2. zk. (86-91), 1981.

SILVESTRE, N. ETA BESTE BATZUK (2003): *Sordera. Comunicación y aprendizaje.* Bartzelona. Masson.

TORRES, S. eta beste batzuk (1995): *Deficiencia auditiva. Aspectos psicoevolutivos y educativos.* Málaga. Aljibe. (Educación para la diversidad)

VALMASEDA, M. eta beste batzuk (1991): *Comunicación y lenguaje. El lenguaje de los alumnos sordos.* Madril. Centro Nacional de Recursos para la Educación Especial-MEC.

VERDUGO, M.A. et al. (1998). *Personas con discapacidad. Perspectivas psicopedagógicas y rehabilitadoras.* Madril. Siglo XXI de España Editores, S A.

VIGOTSKY, L.S. (1979): *El desarrollo de los procesos psicológicos*. Bartzelona. Crítica.

VIGOTSKY, L.S. (1996): *Pensamiento y Lenguaje*. Bartzelona. Paidós.

# Bigarren atala

## Txertatzeko eredu programa

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
# EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA

## HELBURUAK

Etapa honetan, euskal hizkuntza eta literatura eta gaztelania eta literatura irakasgaien helburua honako gaitasun hauek lortzea izango da:

1. Hizkuntza erabiltzeko hainbat eremutatik jasotako idatzizko testuak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.

2. Komunikatzeko sistema alternatiboen laguntzarekin hizkuntza erabiltzeko hainbat eremutatik jasotako ahozko diskurtsoak ulertzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.

3. Idatziz modu egokian, koherentean eta zuzenean adieraztea, komunikazio-egoeren ezaugarriak eta hizkuntzaren oinarrizko arauak kontuan izanik, hala, hainbat komunikazio-premiari eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

4. Zuzen eta koherentziaz adieraztea eta elkarrekitea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, errespetuan eta lankidetzan oinarritutako jarrera hartuta eta komunikazio-premien ezaugarriak kontuan hartuta.

5. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, gure errealitate elebidunaren n ahiz eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa baloratuko da.

6. Hizkuntzen idatzizko erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

7. Idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, hizkuntza bakoitzaren sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.

8. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza erabiltzeko.

9. Irakaslearen laguntzarekin, norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan, baita zeinu-hizkuntzan ere, jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, nork bere buruan gero eta konfiantza handiagoa izango du ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko.

10. Literatura-generoen oinarrizko konbentzioei buruzko ezaguerak erabiltzea, testu literarioak ulertzeko eta sortzeko nahiz literatura-xedeko testuak egiteko.

11. Literatura-ondarea baloratzea norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzeko; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko adibide garrantzitsuak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura-identitatea eraiki ahal izango da.

12. Literatura-testuak irakurtzearekin eta ikus-entzunezko ekoizpenekin gero eta autonomia gehiagoz gozatzea, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz sentikortasun estetikoa garatzeko.

## LEHENENGO MAILA

### EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrekin aritzea.***

- Ikasgelaren barnean eta ikastetxean hainbat helbururekin garatzen diren ahozko elkarrekintzetan nahiz ikus-entzunezko jardueretan parte hartzea, beharrezkoa balitz, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, ikasleen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, betiere: gizarte-harremana eraikitzea, testuak ulertzea eta idaztea, komunikazio-prozesuez gogoeta egitea.
- Ikaskuntza-jarduerak antolatzen eta kudeatzen parte hartzea.
- Elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien erabilera, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea eta identifikatzea –beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke–, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan.
- Informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (oharrak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketak…) entzuteko prozesuan; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Landutako ahozko testuen egitura osoaren eta testuen atalen lotura logikoen berreraikuntza; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea –lagundu egingo zaie–, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Jarduera akademikoari edo gertaera interesgarriei buruzko gero eta ahozko azalpen zailagoak egitea, aurrez plangintza eginez, eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Esperientziarekin lotutako gertaeren ahozko narrazioa, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz eta aurrez prestatutako gidoi batean oinarrituz.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko; laguntza eskainiko zaie.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.

- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Jarrera positiboa ahozko elkarrizketetan hainbat hizkuntzaren erabileraren aurrean, baita zeinu-hizkuntzaren erabileraren aurrean ere.
- Elkarrekintza balioestea, komunikatzeko eta jarduera arautzeko baliabide den heinean.

***2. multzoa: Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Eguneroko bizitzari buruzko testu idatzietatik eta ikasle-interesen hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta curriculumeko hainbat irakasgaitako narrazioen, deskribapenen nahiz azalpen-testu sinpleen ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea.
- Landutako testu idatzien identifikazioa: igorlearen asmoa, testuinguru-elementu esplizituetatik abiatuta.
- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Testuinguruan oinarrituta, lexiko ezezagunaren esanahia bilatzea, eta esanahi horiek testualizatzea; horretarako, hitzen forma aztertu eta hiztegiak erabiliko dira.
- Eskemak eta laburpenak egitea.
- Plangintza egin ondoren, paperean edo euskarri digitalean testu idatziak ekoiztea, hainbat komunikazio-asmorekin eta hainbat testuingurutan: gutunak, oharrak, jakinarazpenak, narrazioak eta deskribapenak; betiere, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.
- Plangintza egin ondoren, bizitza akademikoko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); bereziki, laburpenak, azalpen laburrak eta egindako lanen eta ikaskuntzen ondorioak. Horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
- Plangintzarako prozedurak, komunikazio-egoeraren ezaugarrien identifikazio gidatua egin ondoren, egokitzapen maila egokia eta testu idatzien koherentzia lortzeko.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Testualizatzeko eta berrikusteko pausoz pausoko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Testuak lagunarteko erabilerara eta erabilera formalera egokitzea, komunikazio-egoeraren arabera.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko: oinarrizko testu-lokailuak, izen-sintagmaren nahiz aditz-sintagmaren barneko komunztadura.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Forma-ezaugarriei dagokienez, testua egituratzea; horretarako, idatzizko lanak aurkezteko oinarrizko arauak jarraituko dira.
- Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei dagokienez, testu idatziek paperean nahiz euskarri digitalean aurkezpen egokia izan dezaten interesa agertzea.

- Idazmena hainbat modutan baloratzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inplizituririk dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak) autonomiaz eta laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.
- Ipuinen eta kontakizun laburren, poemen eta bertsoen nahiz antzezlanen edo horien zatien irakurketa gidatua eta partekatua, berorien oinarrizko elementuak ezagutuz.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Literatura-xedea duten testuen ekoizpena, aurrez plangintza egin ondoren, gogoetan eta ereduen azterketan oinarrituta.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak zuzen erabiltzea.
- Plangintza egin ondoren, bizitza akademikoko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); bereziki, laburpenak, azalpen laburrak eta egindako lanen eta ikaskuntzen ondorioak. Horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Irakurtzeko autonomia etengabe eskuratuz joatea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Ahozko literatura kultura transmititzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeko baliabidetzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentsibilitate estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak baloratzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuez jabetzea.
- Testu narratiboen eta azalpen-testuen ezaugarriak bereiztea.
- Ikasturtean landutako ahozko eta idatzizko testuetan, pertsona-deixiaren hizkuntza-formak identifikatzea eta erabiltzea.
- Zenbait testu-lokailu identifikatzea eta ongi hausnartuz erabiltzea; zehazki, arreta berezia jarriko da lekuari, denborari, antolaketari, konparazioari edota erreferentea mantentzeko zenbait prozedurari buruzkoetan.
- Landutako testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea.
- Erlazio lexikoak eta semantikoak nahiz hitzak (eratorpena eta konposaketa) eta esapideak eratzeko bideak identifikatzea.
- Euskarazko hitz, adierazpen eta esaera bereziak ezagutzea eta erabiltzea; horiek, hain zuzen, funtzio desberdinak betetzen dituzte komunikazio-egoera zehatzetan.
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea, eta puntuazioa, berriz, testu idatzia antolatzeko mekanismotzat.

- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, euskararen kasuan, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinazioari eta aditz-komunztadurari.
- Hartzaileak mezua uler dezan erabili beharreko prozedurak erabiltzea (aposizioa, adibideak eta erlatibozko esaldi esplikatiboa).
- Perpausaren egitura semantikoa ezagutzea eta aditza beharrezko elementutzat hartzea.
- Ortografia-arauak ondorioztatzea, horien erregulartasunetan oinarrituta.
- Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea.
- Oinarrizko gramatika-kategoriak ezagutzea: substantiboak, adjektiboak, determinatzaileak, pertsona-izenordainak, aditza (aditz-jokoak eta, jokatutako aditzei dagokienez, erreferentzia egiten dieten pertsonak).
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –bi hizkuntzetan baliagarria dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– helburu berdinarekin erabilitako prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Hizkuntzetako batean –baita zeinu-hizkuntzan ere– jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, gainerako hizkuntzei buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Hizkuntzen arteko kalko eta transferentzia oker batzuk ezagutzea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritan dauden eskola-hiztegiek hizkuntzari buruz ematen dituzten informazioak interpretatzea, testuetako hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak garatzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Nork bere egite-prozesuak eta ekoizpenen emaitzak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, ereduetan oinarrituta.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinalerentzat baloratzea.
- Egungo euskal gizartean eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna existitzen direla onartzea, eta, horretarako, hainbat hizkuntzatako testuak bilatzea eta irakurtzea.
- Nork bere euskalkia erabiltzea eta gainerakoak hizkuntza-aberastasunaren ezaugarritzat baloratzea.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren idatzizko kalko okerrak identifikatzea eta zuzentzea; horretarako, euskararen hitz eta adierazpen propioak ezagutu eta erabiliko dira.
- Hizkuntzen aurreko jarrera positiboak garatzea, zehazki, euskara berreskuratzeko prozesuaren aurrekoa, euskararen erabileraren aurrean lotura afektibo positiboak sortzea sustatuz.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea –komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin–, bai ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan. Horrela, ikaskuntza-zereginak beteko dira, eta, informazio zehatzak identifikatzeaz gain, azterketa gidatua egiteko argibideak jarraituko dira.**

1.1. Ahozko testuak aztertzeko azaldutako argibideak erabiltzen ditu.
1.2. Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.3. Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
1.4. Landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraiki eta ahoz adierazten ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.5. Diskriminazioa adierazten duten esapide arruntenen zentzua ulertzen du.

**2. Ikasleen esperientziatik hurbil dauden gizarte-eremuetako eta bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea, eta narrazio- nahiz azalpen-testuetan (deskripziozkoak eta sekuentzialak) arreta berezia jartzea; horretarako, testu-zatiak eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta horietan azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.**

2.1. Testuak aztertzeko azaldutako jarraibideak erabiltzen ditu.
2.2. Testu baten gai nagusia eta bigarren mailako gaiak identifikatzen ditu.
2.3. Testuaren esanahi orokorra hartzen du: zer kontatzen duen.
2.4. Irakurketarako egokiak diren informazioak identifikatzen eta ondorioztatzen ditu.
2.5. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.6. Landutako testuaren egitura osoa eta bere atalen arteko lotura logikoak berreraikitzen ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.7. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.8. Edozein motatako bereizketa agerian uzten duten ohiko adierazpenak identifikatzen ditu.

**3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak, argiak eta ongi egituratuak egiten laguntzea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.**

3.1. Hainbat iturritatik jasotako informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen du: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak; komunikazio-sistema alternatiboen laguntza du.
3.2. Aurrez zehaztutako gidoiari jarraiki eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, bizitako esperientziekin lotutako gertaerak hurrenkera errespetatuz eta argitasunez kontatzen ditu, eta, gainera, deskripzio txikiak gehitzen ditu.
3.3. Ahozko aurkezpenak egitean, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.
3.4. Erabilera baztertzaileak saihesten ditu.

**4. Eskola-barruko ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea –komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin–, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Norberaren esku-hartzeari buruzko galderei erantzuten die.
4.2. Gainerakoek esku hartzen dutenean, galdera eta azalpen egokiak ematen ditu.
4.3. Gainerakoen esku-hartzeak errespetatzen ditu.
4.4. Hitz egiteko txanda errespetatzen du eta kortesia-arauak betetzen ditu.
4.5. Talde txikietako elkarrizketetan modu egokian eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin parte hartzen du, bere ideiak adierazteko, iritziak alderatzeko eta erabakiak hartzeko; aurrez informazioa ondo ulertu dela bermatu behar da beti.

**5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea: gertaera-narrazioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarraibideak eta argumentuak; horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gain, egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia izango da.**

5.1. Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen ditu, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
5.2. Helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa hautatzen du.
5.3. Testu-edukia ereduetan oinarrituz planifikatzen du, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen ditu; horrez gain, komunikazio-egoerako parametroak kontuan hartzen ditu, eta sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen du.
5.4. Informazio garatzeko paragrafoetan antolatzen du.
5.5. Ikasturtean landutako oinarrizko kohesio-elementuak erabiltzen ditu, ideiak eta testu-zatiak lotzeko.
5.6. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.7. Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.
5.8. Gramatikako, ortografiako eta tipografiako oinarrizko arauak betetzen ditu.
5.9. Baliabide propioak edo kontsulta-baliabideak (hiztegiak, testu-liburuak, testu-prozesadoreak...) erabiltzen ditu, testua idazteko eta zuzentzeko.
5.10. Adierazpen baztertzaileak ez ditu erabiltzen.
5.11. Era argian eta txukunean aurkezten du testua: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna…

**6. Hainbat generotako testu idatzien (narrazioak eta azalpen deskriptiboak) eduki osoa idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.**

6.1. Testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa bereizten ditu.
6.2. Jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatzen eta adierazten ditu; horretarako, hain zuzen, aurrez egindako eskema batean oinarritzen da.
6.3. Aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, laburpenean jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak sartzen ditu, modu kohesionatuan eta zuzenean.

**7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna interpretatzea.**

7.1. Ikastetxeko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du idatziz, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.2. Ukipenean dauden bi hizkuntzen ondorioz sortutako kalko okerrak (ikasturtean zehar landuak) identifikatzen eta zuzentzen ditu emandako testuetan.
7.3. Euskal Herriko hizkuntza ofizialekiko errespetuzko jarrera agertzen du.

**8. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea eta euskara ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.**

8.1. Eskolan nahiz inguruan euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sorkuntzarekin lotuta antolatzen diren jardueretan parte hartzen du.

**9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.**

9.1. Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntzak identifikatu eta errespetatzen ditu, baita zeinu-hizkuntza ere, eta hizkuntzekiko eta horien hiztunekiko aurreiritziak baztertzen ditu.
9.2. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.

**10. Egoeraren eta inplikatutako pertsonaren edo pertsonen arabera egokitutako erregistroan adierazteko formulazio egokia hautatzea; horretarako, komunikazio-sistema alternatiboak eta, beharrezkoa balitz, zeinu-hizkuntza erabiliko ditu.**

10.1. Landutako hiztegia erabiltzen du, komunikazioan dituen gabeziak gainditzeko.
10.2. Elkarrekintzak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzen ditu.
10.3. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, desadostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
10.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.

**11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

11.1. Era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.
11.2. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testuak ulertzeko eta sortzeko.
11.3. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
11.4. Emandako argibideei jarraiki, hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai berak egindako testuetan, bai besteek egindakoetan.

**12. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta idatzizko erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.**

12.1. Hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko ikasturte horretan landu den oinarrizko terminologia ulertzen du.
12.2. Ikasturtean zehar landutako zenbait hizkuntza-ezagutza erabiltzen ditu –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak–, gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
12.3. Hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak oinarritzat erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.**

13.1. Bilatzaileak erabiltzen ditu informazioa aurkitzeko.
13.2. Informazioa gordetzen eta berreskuratzen daki.
13.3. Beste norbaiten laguntzari esker, gai da web orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratzeko eta inprimatzeko.
13.4. Testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu: edizioa, zuzentzaile ortografikoa...
13.5. Testu-prozesadore baten funtzio estandarrak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu, eta tresna hori baliatzen du testu idatziak sortzeko.

**14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.**

14.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen du.
14.2. Ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu eta idatziz edota komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin adierazten ditu.
14.3. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzen ditu eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzen du.
14.4. Ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago da.
14.5. Eredu batean oinarrituta, berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartzen du (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta besteek egindako ekarpenak baloratzen ditu.

**15. Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu-zatiak ulertzea.**

15.1. Laguntzaz, hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen ditu, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan parte hartzen du.
15.2. Azterketa egiteko emandako argibideak behar bezala jarraitzen ditu, landutako testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak identifikatzean.
15.3. Hainbat literatura-testu konparatuz, zein literatura-genero den ezagutzen du.

**16. Hainbat generotan, literatura-asmoko testuak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); horretarako, ikasgelan irakurri eta landutako literatura-testu bat hartuko da eredu –komunikazio-sistema alternatiboen laguntza izango dute–, edo, bestela, testu horietan aldaketak egingo dira.**

16.1. Hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura erabiltzen ditu.
16.2. Literatura-asmoko testuak sortzeko bizi izan dituen ideia eta esperientziak erabiltzen ditu.
16.3. Transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu.
16.4. Testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen ditu.
16.5. Gelako eta eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.

**17. Ahozko euskal literaturaren adierazpenak eta berezko baliabide erretorikoak ezagutzea eta erabiltzea, norberaren nortasun kulturala eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarearen transmisore izateko.**

17.1. Euskal literaturako oinarrizko ahozko adierazpenak identifikatzen ditu.
17.2. Euskal kulturako ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzen esanahia interpretatzen du eta horiek erabili egiten ditu.

**18. Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea idatziz, eta aurrez landutako irizpideetan oinarrituta arrazoitzea.**

18.1. Landutako literatura-lanen edukia aztertzen du, emandako jarraibideak kontuan hartuta: kontakizuneko elementuak, narratzailearen zeregina…
18.2. Literatura-narrazio bati buruz duen iritzia ematen du, eta, aipatutako elementuei dagokienez, arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen ditu.

**19. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

19.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu, une atseginak igarotzeko.
19.2. Bere bizipenekin erlazionatzen du obraren edukia.
19.3. Gogotsu parte hartzen du, eta bere bizipenak eta literatura-gertaerari buruzko ikuspegia adierazten ditu txat batean, blog batean...
19.4. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura kultura, sentimenduak eta pentsamenduak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

## BIGARREN MAILA

### EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrekin aritzea.***

- Ikasgelaren barnean eta ikastetxean hainbat helbururekin garatzen diren ahozko elkarrekintzetan nahiz ikus-entzunezko jardueretan parte hartzea, beharrezkoa balitz, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, ikasleen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, betiere. Helburu horietako bat gizarte-harremana eratzea izan daiteke.
- Testuak ulertzea eta idaztea eta komunikazio-prozesuez gogoeta egitea.
- Ikaskuntza-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien erabilera, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea eta identifikatzea –beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke–, bai ikasleen eguneroko bizitzari nahiz ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuei buruzkoak, bai bizitza akademikoari buruzkoak; zehazki, arreta berezia jarriko da narrazio, azalpen labur, jarraibide, argibide eta elkarrizketetan.
- Informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (oharrak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketak…) entzuteko prozesuan; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Landutako ahozko testuen egitura osoaren eta testuen atalen lotura logikoen berreraikuntza; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea –lagundu egingo zaie–, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.

- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Jarduera akademikoari edo gertaera interesgarriei buruzko gero eta ahozko azalpen zailagoak egitea, aurrez plangintza eginez, eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Komunikabideetatik hartutako informazioen ahozko azalpena, aurrez plangintza eginez, eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko; laguntza eskainiko zaie.
- Landutako estrategiak eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Jarrera positiboa ahozko elkarrizketetan hainbat hizkuntzaren erabileraren aurrean, baita zeinu-hizkuntzaren erabileraren aurrean ere.
- Elkarrekintza balioestea, komunikatzeko eta jarduera arautzeko baliabide den heinean.

***2. multzoa: Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Eguneroko bizitzari buruzko testu idatzietatik eta ikasle-interesen hurbil dauden komunikabideetako testuetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaeren azalpenetan, argibideetan, arrazoiketa sinpleetan eta narrazioetan arreta jartzea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta narrazioen, deskribapenen eta arrazoiketen ezaugarri espezifikoetan arreta jartzea; horrez gain, curriculumeko irakasgaien ideiak eta kontzeptuak azaltzea eta hainbat baliabidetatik informazioa lortzeari arreta jartzea.
- Igorlearen asmoa identifikatzea landutako testu idatzietan.
- Paperean edo euskarri digitalean dauden testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Testuinguruan oinarrituta, lexiko ezezagunaren esanahia bilatzea, eta esanahi horiek testualizatzea; horretarako, hitzen forma aztertu eta hiztegiak erabiliko dira.
- Eskemak eta laburpenak egitea.
- Plangintza egin ondoren, eguneroko bizitzako eta ikasle-esperientzietatik hurbil dauden gizarte-eremuetako (foroetako parte-hartzea, gutunak…) testu idatziak nahiz esparru akademikoko testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean), bereziki: narrazioak, deskribapenak, gertaeren, ideien eta kontzeptuen azalpena, egindako lanen eta ikaskuntzen txostenak, laburpenak eta arrazoiketak. Horretarako, komunikazio-egoera hartuko da kontuan, eta egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna zainduko da.
- Liburutegia eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
- Plangintzarako prozedurak, komunikazio-egoeraren ezaugarrien identifikazio gidatua egin ondoren, testu idatzien egokitzapen maila egokia eta koherentzia lortzeko.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Testualizatzeko eta berrikusteko pausoz pausoko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.

- Erregistro formaleko eta ikasketa-eremuko testuak egokitzea.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko. oinarrizko testu-lokailuak, izen-sintagmaren nahiz aditz-sintagmaren barneko komunztadura.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).
- Edozein hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– eta alorretan garatutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Forma-ezaugarriei dagokienez, testua egituratzea; horretarako, idatzizko lanak aurkezteko oinarrizko arauak jarraituko dira.
- Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.
- Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei nahiz ikono-elementuei dagokienez, testu idatziek paperean nahiz euskarri digitalean aurkezpen egokia izan dezaten interesa agertzea.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Idazmena hainbat modutan baloratzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inplizitурik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testu idatziak berrikusteak duen garrantzia baloratzea, egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko eta herri-literaturako lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokituak) autonomiaz eta laguntzaz irakurtzea, eta, gero, norberaren eta besteen esperientziak alderatzea.
- Euskal eta espainiar literaturako gaur egungo egile ezagunenak ezagutzea, berorien lanen edo lanen zatien irakurketa iruzkindua eginez.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Ipuinen eta kontakizun laburren, poemen eta bertsoen nahiz antzezlanen edo horien zatien irakurketa gidatua eta partekatua, berorien oinarrizko elementuak ezagutuz.
- Literatura-xedea duten testuen ekoizpena, aurrez plangintza egin ondoren, gogoetan eta ereduen azterketan oinarrituta.
- Plangintza egin ondoren, irakurritako testuaren balioespen pertsonalak egitea.
- Informazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea, nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak zuzen erabiltzea.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Irakurtzeko autonomia etengabe eskuratuz joatea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentsibilitate estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak baloratzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuez jabetzea.
- Testu narratiboen, azalpen-testuen eta argudiozko testuen ezaugarriak bereiztea.
- Igorlearen aztarnak identifikatzea eskolan landutako testuetan: pertsona-deixia, ziurtasuna edo probabilitatea adierazteko hizkuntza-formak, eta balioespen positiboa edo negatiboa.
- Zenbait testu-lokailu (bereziki, lekuari, denborari, antolakuntzari, kausari eta ondorioei dagozkienak) eta barne-erreferentziako zenbait mekanismo (esaterako, testuko aditzaren eta izenaren arteko koherentzia nahiz erreferenteak mantentzeko prozedurak) identifikatzea eta zuhurtasunez erabiltzea; horrez gain, arreta berezia jarriko zaio lexiko-ordezkapenari, bai eta pronominalen ordezkapenari ere.
- Erlazio lexikoak eta semantikoak nahiz hitzak (eratorpena eta konposaketa) eta esapideak eratzeko bideak identifikatzea.
- Hitz, adierazpen eta esaera bereziak ezagutzea eta erabiltzea; horiek, hain zuzen, funtzio desberdinak betetzen dituzte komunikazio-egoera zehatzetan.
- Paragrafoa esanahidun unitatetzat hartzea, eta puntuazioa, berriz, testu idatzia antolatzeko mekanismotzat.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Hizkuntza-elementuak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinazioari eta aditz-komunztadurari.
- Hartzaileak mezua uler dezan erabili beharreko prozedurak erabiltzea (aposizioa, adibideak, definizioa eta erlatibozko esaldi esplikatiboa).
- Perpausaren egitura semantikoa ezagutzea, eta subjektua eta predikatua identifikatzea.
- Gramatika-kategoriak eta horien funtzioa ezagutzea.
- Norberaren testuetan, ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testu-prozesadoreetako ortografia-zuzentzaileak erabiltzen hastea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –bi hizkuntzetan baliagarria dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Helburu berarekin hainbat hizkuntzatan erabilitako zenbait hizkuntza-prozedura konparatzea eta hizkuntza horietako batean jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, hizkuntzari buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Hainbat hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea.
- Hainbat euskarritan dauden eskola-hiztegiek eta beste kontsulta-lan batzuek hizkuntzari buruz ematen dituzten informazioak (batez ere, hitz motei, horien arteko semantika-loturei eta araudiari buruzkoak) interpretatzea, eta testuetako hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak garatzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Nork bere egite-prozesuak eta ekoizpenen emaitzak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, ereduetan oinarrituta.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia- eta fonetika-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat baloratzea.
- Egungo euskal gizartean eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna existitzen direla onartzea, eta, horretarako, hainbat hizkuntzatako testuak bilatzea eta irakurtzea.
- Azterketa gidatuak eginez eta testuak trukatuz, euskararen bilakaera historikoa eta euskalkiak ezagutzea, hizkuntza errespetatzeko, beste edozein hizkuntzaren kasuan bezalaxe.
- Nork bere euskalkia erabiltzea eta gainerakoak hizkuntza-aberastasunaren ezaugarritzat baloratzea.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzea, testuen azterketa gidatutik abiatuta.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren idatzizko kalko okerrak identifikatzea eta zuzentzea; horretarako, euskararen hitz eta adierazpen propioak ezagutu eta erabiliko dira.
- Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa behatzea eta aztertzea.
- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- Hizkuntzen aurreko jarrera positiboak garatzea, zehazki, euskara berreskuratzeko prozesuaren aurrekoa.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Bizitza akademikoari eta ikasle-interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideei buruzko ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea (aurkezpenak, argibideak, arrazoiketa errazak, narrazioak); horrez gain, aurrez emandako argibideak jarraituz, informazio zehatzak identifikatuko dira.**

1.1. Ahozko testuak aztertzeko azaldutako argibide batzuk erabiltzen ditu.
1.2. Entzute-helburuaren arabera egokitutako informazioak identifikatzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.3. Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
1.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
1.5. Landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzen eta ahoz adierazten ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.6. Diskriminazioa adierazten duten esapide arrunt batzuen zentzua ulertzen du.

**2. Bizitza akademikoko eta ikasleen esperientziatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testu idatziek (deskribapen- eta sekuentzia-egitura duten azalpen-testuak, narrazioak eta arrazoiketa sinpleak) duten esanahia interpretatzea; horretarako, informazio eta datu garrantzitsuak identifikatu eta azterketa egiteko emandako argibideak jarraituko dira.**

2.1. Testuak aztertzeko azaldutako argibideak eraginkortasunez jarraitzen ditu.
2.2. Testu baten gai nagusia eta bigarren mailako gaiak identifikatzen ditu.

2.3. Testuaren esanahi orokorra identifikatzen du, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten ditu.
2.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.5. Landutako testuaren egitura osoa eta bere atalen arteko lotura logikoak berreraikitzen ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.6. Iritzi bat defendatzeko, emandako enuntziatuetako informazio garrantzitsua bereizten du.
2.7. Edozein motatako bereizketa agerian uzten duten ohiko adierazpenak identifikatzen ditu.

**3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak egiten laguntzea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.**

3.1. Hainbat iturritatik jasotako informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen du: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak; komunikazio-sistema alternatiboen laguntza du.
3.2. Zeregina planifikatzean eta egitean autonomia maila onargarria agertzen du.
3.3. Erabilera baztertzaileak saihesten ditu.
3.4. Ahozko aurkezpenak prestatzerakoan, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**4. Eskola-barruko ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izatea –komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin–, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Norberaren esku-hartzeari buruzko galderei erantzuten die.
4.2. Gainerakoek esku hartzen dutenean, galdera eta azalpen egokiak ematen ditu.
4.3. Gainerakoen esku-hartzeak errespetatzen ditu.
4.4. Hitz egiteko txanda errespetatzen du eta kortesia-arauak betetzen ditu.
4.5. Talde txikietako elkarrizketetan komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin parte hartzen du, bere ideiak adierazteko, iritziak alderatzeko eta erabakiak hartzeko; aurrez informazioa ondo ulertu dela bermatu behar da beti.

**5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea: gertaera-narrazioak, ideia- eta kontzeptu-aurkezpenak, jarraibideak eta argumentuak; horretarako, plangintza-prozedurak erabiliko dira, eta, horrez gain, egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia izango da.**

5.1. Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomia apur batez erabiltzen ditu, informazioa biltzeko eta testu idatzien ereduak lortzeko.
5.2. Helburua lortzeko garrantzitsua den informazioa hautatzen du.
5.3. Testu-edukia planifikatzen du, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen ditu; horrez gain, komunikazio-egoerako parametroak kontuan hartzen ditu, eta sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen du.
5.4. Informazio garatzeko paragrafoetan antolatzen du.
5.5. Oinarrizko kohesio-elementuak erabiltzen ditu, ideiak eta testu-zatiak lotzeko.
5.6. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.7. Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.
5.8. Gramatikako, ortografiako eta tipografiako oinarrizko arauak betetzen ditu.
5.9. Baliabide propioak edo kontsulta-baliabideak (hiztegiak, testu-liburuak, testu-prozesadoreak...) erabiltzen ditu, testua idazteko eta zuzentzeko.

5.10. Adierazpen baztertzaileak ez ditu erabiltzen.
5.11. Era argian eta txukunean aurkezten du testua: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna…

**6. Hainbat generotako testu idatzien (narrazioak, deskribapen-egiturako azalpenak eta arrazoiketa errazak) eduki osoa idatziz laburtzea, eta horiei buruzko irakurketa hausnartua egitea.**

6.1. Testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa bereizten ditu.
6.2. Jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatzen eta adierazten ditu; horretarako, hain zuzen, aurrez egindako eskema batean oinarritzen da.
6.3. Aurrez emandako argibide batzuetan oinarrituz, laburpenean jatorrizko testutik hartutako ideiak edo informazioak sartzen ditu, modu kohesionatuan eta zuzenean.

**7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna interpretatzea.**

7.1. Euskararen jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuenak azaltzen, kontatzen edo deskribatzen ditu.
7.2. Euskararen eta gaztelaniaren arteko ukipen-egoeraren ondorioz sortutako fenomenoak identifikatzen ditu, eta egoera zehatzak aztertzen ditu.
7.3. Inguruko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du idatziz, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.4. Ukipenean dauden bi hizkuntzen ondorioz sortutako kalko okerrak (ikasturtean zehar landuak) identifikatzen eta zuzentzen ditu emandako testuetan.
7.5. Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa aztertzen eta baloratzen du.
7.6. Euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera azaletik deskribatzen du.

**8. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea, eta euskara ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.**

8.1. Euskal kulturaren transmisiorako eta sorkuntzarako jardueretan parte hartzen du.

**9. Oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz, hizkuntza-errealitateen aniztasunaz kontzientziatzea.**

9.1. Soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du, eta, halaber, errespetua agertzeaz gain, hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak baztertzen ditu.
9.2. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
9.3. Hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko zenbait faktore ezagutzen ditu, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

**10. Egoeraren eta inplikatutako pertsonaren edo pertsonen arabera egokitutako erregistroan adierazteko formulazio egokia hautatzea; horretarako, komunikazio-sistema alternatiboak eta, beharrezkoa balitz, zeinu-hizkuntza erabiliko ditu.**

10.1. Landutako hiztegia erabiltzen du, komunikazioan dituen gabeziak gainditzeko.
10.2. Elkarrekintzak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzen ditu.

10.3. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, desadostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
10.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.
10.5. Mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu. adibideak, aposizioa…

**11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

11.1. Era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.
11.2. Emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatzen ditu eta horien ondorioak ateratzen ditu.
11.3. Testuak ulertzeko eta idazteko landutako hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.
11.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
11.5. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
11.6. Ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza erabiltzen ditu –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak–, gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

**12. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta idatzizko erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.**

12.1. Hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko oinarrizko terminologia ulertzen du eta horiek erabiltzen hasten da.
12.2. Gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen du oinarrizko eskola-hiztegietatik eta beste kontsulta-lan batzuetatik; hiztegi horiek, gainera, hainbat euskarritan egoten dira.
12.3. Ereduetan oinarrituta, hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak oinarritzat erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**13. Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jarduerako premiei erantzuteko behar duen informazioa bilatzeko, hautatzeko eta prozesatzeko.**

13.1. Bilatzaileak behar bezala erabiltzen ditu informazioa aurkitzeko.
13.2. Hainbat euskarritako informazioa gordetzen eta berreskuratzen daki.
13.3. Irakaslearen laguntzari esker, gai da web orri bateko eduki osoa edo zatiak (testuak, irudiak...) biltzeko, berreskuratzeko eta inprimatzeko.
13.4. Testu-prozesadore baten oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu: edizioa, grafikoak, taula errazak, zuzentzaile ortografikoa...
13.5. Hainbat euskarritan sortutako informazioa laguntzaz osatzen du (testuak, grafikoak, irudiak...).
13.6. Testu-prozesadore baten funtzio estandarrak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu, eta tresna hori baliatzen du testu idatziak sortzeko.

**14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.**

14.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartze aktiboa du.
14.2. Ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu eta idatziz edota komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin adierazten ditu.
14.3. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzen ditu eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzen du.
14.4. Ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago da.
14.5. Berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartze aktiboa du (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gain, besteek egindako ekarpenak baloratzen ditu.
14.6. Literaturan dituen ezagutzak baliatuz, testu laburrak edo literatura-lanetako testu-zatiak ulertzea.
14.7. Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen ditu, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan parte hartzen du.
14.8. Azterketa egiteko emandako argibideak behar bezala jarraitzen ditu, landutako testuaren oinarrizko elementuak edo ezaugarriak identifikatzean.
14.9. Hainbat literatura-testu konparatuz, testuaren literatura-generoa eta horren oinarrizko ezaugarriak ezagutzen ditu.
14.10. Oinarrizko ezaugarri estilistikoak sailkatzen ditu, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.
14.11. Landutako testuetan, aztertutako oinarrizko baliabide estilistikoetako batzuk ezagutzen ditu.

**15. Hainbat generotan, literatura-asmoko testuak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean); horretarako, ikasgelan irakurri eta landutako literatura-testu bat hartuko da eredu –komunikazio-sistema alternatiboen laguntza izango dute–, edo, bestela, testu horietan aldaketak egingo dira.**

15.1. Hautatutako generoan bereziki erabiltzen diren erretorikaren eta estiloaren zenbait egitura eta prozedura erabiltzen ditu.
15.2. Literatura-asmoko testuak sortzeko bizi izan dituen ideia eta esperientziak erabiltzen ditu.
15.3. Transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu.
15.4. Testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen ditu.
15.5. Gelako eta eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.

**16. Ahozko euskal literaturaren adierazpenak eta berezko baliabide erretorikoak ezagutzea, norberaren nortasun kulturala eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarearen transmisore izateko.**
16.1. Euskal literaturako oinarrizko ahozko adierazpenak identifikatzen ditu.
16.2. Euskal kulturako ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzen esanahia interpretatzen du.

**17. Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea idatziz, eta aurrez landutako irizpideetan oinarrituta arrazoitzea.**

17.1. Landutako literatura-lanen edukia aztertzen du, emandako jarraibideak kontuan hartuta: kontakizuneko elementuak, narratzailearen zeregina…
17.2. Literatura-narrazio bati buruz duen iritzia ematen du; halaber, horren edukia planifikatu eta, aipatutako elementuei dagokienez, arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen ditu.

**18. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

18.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu, une atseginak igarotzeko.
18.2. Bere bizipenekin erlazionatzen du obraren edukia.
18.3. Gogotsu parte hartzen du, eta bere bizipenak eta literatura-gertaerari buruzko ikuspegia adierazten ditu txat batean, blog batean...
18.4. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura kultura, sentimenduak eta pentsamenduak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

## HIRUGARREN MAILA

### EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrekin aritzea.***

- Ikasgelaren barnean eta ikastetxean hainbat helburuarekin garatzen diren ahozko elkarrekintzetan nahiz ikus-entzunezko jarduertan parte hartzea, beharrezkoa balitz, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, ikasleen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, betiere. Helburu horietako bat gizarte-harremana eratzea izan daiteke.
- Testuak ulertzea eta idaztea eta komunikazio-prozesuez gogoeta egitea.
- Ikaskuntza-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Lagunduta, ahozko hizkuntzan gertatzen diren lagunarteko erabilerak eta erabilera formalak bereiztea, eta horiek zein komunikazio-egoeratan erabili behar diren jabetzea.
- Parte-hartze gidatua gero eta zailtasun handiagoko gai akademikoei buruzko debateetan, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
- Elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien erabilera, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea eta identifikatzea –beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke–, bai ikasleen bizitza akademikoari buruzkoak (jarraibideak, ahoz emandako arauak, azalpen laburrak, elkarrizketak), bai komunikabideetakoak (konbentzitzeko, informazioa emateko eta iritzia emateko testuak).
- Informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (oharrak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketak…) entzuteko prozesuan; beharrezkoa bada, laguntza teknikoak edo/eta komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke.
- Landutako ahozko testuen egitura osoaren eta testuen atalen lotura logikoen berreraikuntza; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea –lagundu egingo zaie–, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak eta inplizituak kontuan hartuta.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz.

- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Aurrez planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke.
- Aurrez plangintza egin ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Estrategiak eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
- Oinarrizko estrategiak kontzienteki erabiltzea, ahozko testu gero eta zailagoen ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Jarrera positiboa ahozko elkarrizketetan hainbat hizkuntzaren erabileraren aurrean, baita zeinu-hizkuntzaren erabileraren aurrean ere.
- Elkarrekintza balioestea, komunikatzeko eta jarduera arautzeko baliabide den heinean.
- Lan bateratua egitean iritzi desberdinak izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta bestekiko errespetua agertzea.

***2. multzoa: Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Eguneroko bizitzari buruzko eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetako testu idatzietatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea; horrez gain, konbentzitzea helburu duten testuetan eta kazetaritza-testuetan (albistea, erreportajea, elkarrizketa, iritzia) arreta berezia jartzea, eta informazioa eta iritzia bereiztea.
- Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea, eta honako hauetan arreta berezia jartzea: narrazioak, deskribapenak, gertaeren azalpenak, ideien eta kontzeptuen esplikazioak, arrazoiketak eta iritzi arrazoitua ematen dutenak.
- Testu idatzien edukia aztertzeko jarraibideak erabiltzea: koadro sinoptikoak, diagramak, eskemak.
- Komunikazio-egituraren identifikazioa: igorlearen asmoa zein den hautematea, testu idatzietan agertzen diren testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Igorlearen tesia eta argudioak identifikatzea.
- Informazioa eta iritzia bereiztea.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia identifikatzea eta interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Testu idatzien edukiaren balioespen kritikoa egitea eta norberaren ezagutzekin konparatzea.
- Testu idatziak ekoiztea, hainbat komunikazio-asmorekin eta hainbat testuingurutan: azalpenezkoak eta kazetaritzaren esparrukoak (albistea, erreportajea, elkarrizketa, iritzia).
- Planifikatu ondoren, paperean nahiz euskarri digitalean, bizitza akademikoan edo komunikabideetan maiz erabiltzen diren testu idatziak sortzea (narrazioak, deskribapenak, gertaeren aipamenak, ideien eta kontzeptuen azalpenak, argudioak...); horiek ongi egituratua egon behar dute, eta liburutegietatik edo beste iturri batzuetatik lortutako informazioa izan

behar dute oinarri. Horrez gain, eskemen, fitxen, laburpenen bidez antolatzea, eta ikono-elementu egokiak erabiltzea.
- Plangintzarako prozedurak, komunikazio-egoeraren ezaugarriak aurretiaz identifikatu ondoren, egokitzapen maila egokia eta testu idatzien koherentzia lortzeko.
- Testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak aplikatzea, testu idatzietako edukien egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroa erabiltzea.
- Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko: testu-lokailuak, aditz-jokoen trataera, erreferentziakidetasunezko elementuak…
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko.
- Lan akademikoetan elementu formalak erabiltzea: bibliografiako aipamenak.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak sortzeko eta zuzentzeko.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– eta alorretan garatutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Idazmena hainbat modutan baloratzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.
- Testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Adin horretarako egokiak diren haur-literaturako eta literatura klasikoko obrak edo obra-zatiak autonomiaz edo norbaiten laguntzaz irakurtzea; horretarako, bide bat jarraituko da, eta irakurleak dituen ezagutzak izango dira oinarri.
- Literatura-lanen ezagutza, berorien zatien irakurketa iruzkinduna eginez eta ikasturtean landutako euskal literaturako, espainiar literaturako eta literatura unibertsaleko garai eta egile nagusiekin lotuz.
- Literatura-testua irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.
- Ipuinak eta eleberriak modu gidatuan eta partekatuan irakurtzea, obrako pertsonaiei, ahotsari eta narrazio-ikuspegiari arreta berezia eskainiz.
- Poemen eta bertsoen iruzkina egitea eta behin eta berriz aipatzen diren gaiei eta elementu sinbolikoen eta erretorika- eta metrika-baliabideen funtzioari erreparatzea.
- Antzerki-lanak edo zatiak iruzkinak eginez eta lagunduta irakurtzea, eta gaiari eta formari dagokienez dituzten zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Literatura-testuen konparazio kritikoa, hainbat ikuspuntu kontuan hartuta: testuingurua, mugimenduak...
- Irakurgaiak oinarri hartuta, tradizioko literatura-genero handiak bereiztea eta horien ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Literatura-xedea duten testuen ekoizpena, aurrez plangintza egin ondoren, gogoetan eta ereduen azterketan oinarrituta.
- Literatura-irakurketei buruzko lan errazak egitea.

- Informazio-teknologiak erabiltzea nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak autonomiaz erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta komunitatean antolatzen diren literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia eskuratzea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentsibilitate estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak baloratzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Komunikazio idatzian erabili ohi diren oinarrizko hizkuntza-elementuak identifikatzea eta erabiltzea.
- Azalpen-testuen eta konbentzitzeko testuen ezaugarriak bereiztea.
- Testu idatziak antolatzeko puntuazioa erabiltzea.
- Testu idatzietako inkoherentzia semantikoez jabetzea.
- Testu-kohesioko zenbait mekanismo identifikatzea eta zuhurtasunez erabiltzea (lexiko-ordezkapenak, pronominalen eta adberbioen ordezkapenak, eta antolatzeko, argibideak emateko, kausa eta ondorioa adierazteko eta kokapen adbertsatiboa adierazteko lokailuak).
- Testuetan agertzen diren erlazio lexikoak eta semantikoak identifikatzea.
- Igorleak testuan duen inplikazioa adierazten duten hizkuntza-formak identifikatzea eta erabiltzea: pertsona-deixia; ziurtasuna, probabilitatea eta betebeharra adierazteko hizkuntza-formak, eta balioespena.
- Landutako testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea; aspektu-balioetan arreta berezia jartzea.
- Hartzaileak mezua uler dezan erabili beharreko prozedurak erabiltzea (aposizioa, adibideak, definizioa eta erlatibozko esaldia).
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea), eta konklusioak ateratzea.
- Euskarako hizkuntza-elementu bereziak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatu kohesionatuak eta zuzenak sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinazioari eta aditz-komunztadurari.
- Perpausaren eskema semantikoa eta horren garapen sintaktikoak ezagutzea.
- Subjektua eta predikatua identifikatzea, bai eta beste osagarriak ere.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testuen hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak erabiltzea; horretarako, hiztegiak eta ortografia-zuzentzaileak kontsultatuko eta erabiliko dira.
- Bi hizkuntzetan, beharrezko hizkuntza-terminologia erabiltzea, bietan erabilgarria dena.
- Hainbat hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– helburu berberarekin erabilitako prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Hainbat hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea.
- Hizkuntzetako batean –baita zeinu-hizkuntzan ere– jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, gainerako hizkuntzei buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.

- Ebaluazioan parte hartzea eta norberaren testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala.***

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat baloratzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea, egungo euskal gizartearen ezaugarri den eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.
- Azterketa gidatuak eginez eta testuak trukatuz, euskararen bilakaera historikoa eta euskalkiak ezagutzea.
- Testu idatzietan, euskalkiak eta gaztelaniako dialektoak nahiz horiek dituzten funtzioak identifikatzea.
- Bakoitzaren euskalkia baloratzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Gaztelaniaren eta berorren aldaera geografikoen bilakaera ezagutzea, testuen irakurketa gidatuaren bitartez.
- Hizkuntzen arteko ukipenaren ondorioz sortutako oinarrizko fenomenoak aztertzea eta ezagutzea, bai eta hizkuntzei eta hiztunei buruzko oinarrizko kontzeptu soziolinguistikoak ere.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela-eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren kalko okerrak identifikatzea eta zuzentzea hizkuntzaren ohiko erabileran.
- Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa identifikatzea.
- Hizkuntzak garatzeko, sustatzeko eta normalizatzeko erakundeak ezagutzea.
- Hizkuntzen aurreko jarrera positiboak garatzea, zehazki, euskara berreskuratzeko prozesuaren aurrekoa.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. **Eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak (argibideak, ahoz emandako arauak, azalpen laburrak...) nahiz komunikabideetako testuak (konbentzitzea, informatzea edo iritzia ematea helburu dutenak) ulertzea, eta, horrez gain, aurki ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuak identifikatzea.**

1.1. Ahozko testuak aztertzeko baliabide batzuk eraginkortasunez erabiltzen ditu.
1.2. Entzute-helburuaren arabera egokitutako informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.3. Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
1.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.

1.5. Landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.6. Eskemen eta diagramen bidez, ideien arteko loturak adierazten ditu.
1.7. Iritzia eta informazioa bereizten ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.8. Informazioa ematen duten ahozko testuen ideia nagusiak eta elkarrizketa edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburbiltzen ditu.
1.9. Diskriminazioa adierazten duten esapide askoren zentzua ulertzen du.
1.10. Konbentzitzea helburu duten mezu batzuk jarrera kritikoz interpretatzen ditu; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuak.

**2. Bizitza akademikoko eta komunikabideetako testu idatziek duten esanahia interpretatzea: konbentzitzekoak eta kazetaritzako iritzi- eta informazio-artikuluak, horien zentzu orokorra identifikatuz edo barneratuz eta edukia kritikoki balioetsiz.**

2.1. Testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak bereizten ditu.
2.2. Testuaren esanahi orokorra identifikatzen du, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten ditu.
2.3. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.4. Testu idatzien egitura osoa berreraiki eta horien atalen arteko lotura logikoak egiten ditu.
2.5. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.
2.6. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.7. Egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak identifikatzen ditu (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
2.8. Gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta adierazpenak identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.
2.9. Bere iritzia adierazten eta arrazoitzen du, bere hizkuntza-gaitasunaren arabera, eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabilita; horretarako, testu-unitateak hautatuko dira, iritzi horien aldekoak edo aurkakoak.

**3. Jarduera akademikoarekin lotutako gaiei edo gertakari interesgarriei buruz ahozko aurkezpen errazak egiten laguntzea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.**

3.1. Hainbat iturritatik jasotako informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen du: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak; komunikazio-sistema alternatiboen laguntza du.
3.2. Zeregina planifikatzean eta egitean autonomia maila onargarria agertzen du.
3.3. Erabilera baztertzaileak saihesten ditu eta hizkuntzako beste alternatiba batzuk bilatzen ditu.
3.4. Ahozko aurkezpenak egitean, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**4. Ikasgela-barruko ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa izatea eta gaiari buruz hausnartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz; hau da, egoki eta behar bezala narratzea, azaltzea eta argumentatzea, eta, horrez gain, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Ikuspuntu desberdinak alderatu eta berea berrikusi egiten du.
4.2. Zentzuzko ondorioak ateratzen ditu.

4.3. Ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen ditu.
4.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.
4.5. Gainerakoekin lankidetzan aritzen da, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen ditu.

**5. Hainbat generotako testu idatziak sortzea: narrazioak, azalpenekoak eta informatzea edo iritzia agertzea helburu duten kazetaritza-testuak; horretarako, komunikazio-egoerara egokitutako prozedurak eta plangintzak erabili behar dira, eta, halaber, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-printzipioak kontuan hartzeaz gain, zeregin hori betetzeko norberaren ahaleginak duen garrantzia onartu behar da.**

5.1. Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzen ditu, helburua lortzeko beharrezkoa den informazioa bilatzeko eta hautatzeko.
5.2. Komunikazio-egoera identifikatu ondoren, testu-edukia planifikatzen du, eta, horretarako, eskemak, oharrak... erabiltzen ditu; horrez gain, sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoa jarraitzen du.
5.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.4. Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.
5.5. Ideien barne-kohesioa lortzeko, oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu.
5.6. Testuen hizkuntza-, gramatika- eta ortografia-zuzentasuna lortzeko estrategiak aplikatzen ditu.
5.7. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
5.8. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, testua bera berrikustean eta hobetzean, autonomiaz jokatzen du.
5.9. Adierazpen baztertzaileak saihestu eta hizkuntzako beste alternatiba batzuk bilatzen ditu.
5.10. Estilo propioaz adierazten da, eta hizkuntza-baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu.
5.11. Era argian eta txukunean aurkezten du testua: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna…

**6. Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eduki osoa irakurri eta horri buruz hausnartu ondoren, ahozko eta idatzizko laburpena egitea.**

6.1. Testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa bereizten ditu.
6.2. Jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatu eta adierazten ditu.
6.3. Ideia nagusia edo nagusiak arrazoitzeko esaldiak erabiltzen ditu.
6.4. Laburpenean jatorrizko testuko ideiak edo informazioak sartzen ditu, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna aintzat hartuta eta estilo propioa landuz.
6.5. Informazioa birsortzean objektibotasuna agertzen du.

**7. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna kritikoki interpretatzea.**

7.1. Euskararen jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuenak idatziz azaltzen, kontatzen edo deskribatzen ditu.
7.2. Hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen ditu, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

7.3. Inguruko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du idatziz, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
7.4. Inguruko hainbat egora soziolinguistikorekin lotutako testuak ikuspegi kritikoarekin irakurtzen ditu.
7.5. Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa aztertzen eta baloratzen du.
7.6. Euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera azaletik deskribatzen du.

**8. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan nahiz euskararen normalizazio-prozesuan kontzientziaz parte hartzea eta hizkuntza hori ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.**

8.1. Eskolan nahiz inguruan euskararen normalizazioarekin eta euskal kulturaren transmisioarekin eta sorkuntzarekin lotuta antolatzen diren jardueretan parte hartzen du.
8.2. Euskararen normalizazioa sustatzen duten erakundeak eta ekimenak ezagutzen ditu eta horien garrantzia baloratzen du.

**9. Hizkuntza-errealitateen aniztasuna kritikoki interpretatzea, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.**

9.1. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
9.2. Hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen ditu, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

**10. Egoeraren eta inplikatutako pertsonaren edo pertsonen arabera egokitutako erregistroan modu argian eta errespetuz adierazteko formulazio egokia hautatzea; horretarako, komunikazio-sistema alternatiboak eta, beharrezkoa balitz, zeinu-hizkuntza erabiliko ditu.**

10.1. Ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arau batzuk behar bezala aplikatzen ditu.
10.2. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.
10.3. Mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak berriro formulatzea, galdera erretorikoak…
10.4. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu hizkuntza-erabilerak hobetzeko, eta horiek berrikusten eta hobetzen autonomiaz jokatzen du.

**11. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

11.1. Era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.
11.2. Emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatzen ditu eta horien ondorioak ateratzen ditu.
11.3. Testu idatziak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak autonomiaz erabiltzen ditu.
11.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.

11.5. Hizkuntzari buruzko era guztietako informazioa autonomiaz lortzen du, bai hainbat euskarritan dauden hiztegietatik, bai beste kontsulta-lan batzuetatik.
11.6. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
11.7. Ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza erabiltzen ditu –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak–, gainerako hizkuntzetan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
11.8. Beraren testuak sortzean, hizkuntza-ezagutzak gero eta autonomia eta eraginkortasun handiagoz aplikatzen ditu, erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra errazteko.

**12. Beharrezko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena–, eta ezagutza hori hizkuntza idatziari buruzko hausnarketa-jarduteretan erabiltzea.**

12.1. Hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko beharrezko den terminologia ulertzen eta erabiltzen du.
12.2. Hainbat euskarritan dauden hiztegi motak egoki erabiltzen ditu.
12.3. Gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen du oinarrizko eskola-hiztegietatik (hainbat euskarritan aurki daitezke) eta beste kontsulta-lan batzuetatik.

**13. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jardueran idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.**

13.1. Ahozko eta idatzizko mezuen edukia ulertzeko eta zabaltzeko informazioa bilatu eta kontsultatzeko ohitura du; horretarako, hainbat iturri erabiltzen ditu: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
13.2. Ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen du.
13.3. IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
13.4. Testu-tratamenduko teknika digitalak erabiltzen ditu: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesatzea, multimedia-formatuko aurkezpenak…
13.5. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita edo komunikazio-sistema alternatiboak erabilita.

**14. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.**

14.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartze aktiboa du.
14.2. Ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu eta idatziz edota komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin adierazten ditu.
14.3. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzen ditu eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzen du.
14.4. Bere ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak ezagutzen ditu.
14.5. Berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartze aktiboa du (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gain, besteek egindako ekarpenak baloratzen ditu.

14.6. Autoerregulaziorako hizkuntza batean ikasitako estrategiak kontzienteki erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**15. Testu laburrak edo literatura-obretako zatiak ulertzea, eta honako hauek kontuan hartzea: behin eta berriz errepikatzen diren gaiak eta arrazoiak, genero-ezaugarriak, hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoa eta testuaren balio erretorikoen funtzionaltasuna.**

15.1. Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen ditu, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jarduéretan eraginkortasunez parte hartzen du.
15.2. Genero-ezaugarriak ezagutzen ditu.
15.3. Besteak beste, estiloaren eta gaiaren ezaugarriak sailkatzen ditu, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.
15.4. Oinarrizko erretorika- eta estilo-baliabide batzuk ezagutzen ditu.
15.5. Euskal literaturako, gaztelaniaz idatzitako literaturako eta literatura unibertsaleko egile eta obra garrantzitsuen ezagutza du; zehazki, literaturako hainbat garaitan eta mugimendutan sailkatuak.
15.6. Obra baten sortze-uneko historia- eta kultura-testuinguruari buruzko informazioa erabiltzen du, haren esanahia berreraikitzeko.

**16. Irakurritako eta aztertutako obren artean dauden loturak, obren testuingurua nahiz euskal literaturan, gaztelaniazko literaturan eta literatura unibertsalean landu diren egile garrantzitsuenak azaltzea; hau da, nork bere informazioa bildu eta laburtzea. Komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.**

16.1. Egile eta literatura-obren zati errepikatuak (estereotipoak) sortu ziren garaiarekin edo dagokien literatura-mugimenduarekin lotzen ditu.
16.2. Literatura-obra jakin bati buruzko informazioa gehitzeko, hainbat iturri eraginkortasunez erabiltzen ditu.
16.3. Paperean nahiz euskarri digitalean, bakarkako lana egiten du, eta, bertan, egile, obra, mugimendu edo garai bati buruz lortutako informazioa sintetizatzen du.

**17. Sentsibilitate estetikoa eta sormena erakutsiz bizipenak, sentimenduak edota hausnarketak adieraztea; hau da, hainbat generotako idatzizko literatura-testuak sortzea, eredutzat ikasgelan landutako literatura-obra garrantzitsuak hartuta.**

17.1. Hautatutako generoaren egitura berezia erabiltzen du.
17.2. Hautatutako generoari bereziki dagozkion eta ikasturtean zehar landu diren erretorika- eta estilo-prozedura batzuk erabiltzen ditu.
17.3. Ikasturtean landutako adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu, transmititu nahi duen edukiari egokituta.
17.4. Landutako literatura-ereduak sormena landuz erabiltzen ditu berak egindako testuetan.
17.5. Estilo propioaz adierazten da, eta baliabide estilistikoak erabiltzen ditu.
17.6. Testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen ditu.

**18. Ahozko euskal literaturaren adierazpenak eta berezko baliabide erretorikoak ezagutzea, norberaren nortasun kulturala eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarearen transmisore izateko.**

18.1. Ahozko literaturaren hainbat adierazpenen oinarrizko ezaugarriak identifikatzen ditu, bai eta dagokien generoa ere.

18.2. Euskal kulturako ondarean aurki daitezkeen adierazpen, esaera edota atsotitzen esanahia interpretatzen du eta horiek erabili egiten ditu.

**19. Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea idatziz, eta aurrez landutako irizpideetan oinarrituta arrazoitzea.**

19.1. Landutako literatura-lanen edukia aztertzen du, emandako jarraibideak kontuan hartuta: kontakizuneko elementuak, narratzailearen zeregina…
19.2. Edukia historia- eta gizarte-testuinguruarekin lotzen du.
19.3. Literatura-narrazio bateko elementu bereizgarriak aztertu eta identifikatu ondoren, horri buruz duen iritzia ematen du; halaber, horren edukia planifikatu eta, aipatutako elementuei dagokienez, arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen ditu.

**20. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

20.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu, une atseginak igarotzeko.
20.2. Gogotsu parte hartzen du, eta bere bizipenak eta literatura-gertaerari buruzko ikuspegia adierazten ditu txat batean, blog batean...
20.3. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

## LAUGARREN MAILA

### EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Ikasgelaren barnean eta ikastetxean hainbat helbururekin garatzen diren ahozko elkarrekintzetan nahiz ikus-entzunezko jardueretan parte hartzea, beharrezkoa balitz, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, ikasleen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, betiere: helburu horietako bat gizarte-harremana eratzea izan daiteke.
- Testuak ulertzea eta idaztea, eta komunikazio-prozesuez gogoeta egitea.
- Ikaskuntza-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Lagunduta, hizkuntzan gertatzen diren lagunarteko erabilerak eta erabilera formalak bereiztea, eta horiek zein komunikazio-egoeratan erabili behar diren jabetzea.
- Parte-hartze gidatua gero eta zailtasun handiagoko gai akademikoei buruzko debateetan, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin. .
- Elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien erabilera, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) aurki ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzea eta identifikatzea, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzea (oharrak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketak…) entzuteko prozesuan; beharrezkoa bada, laguntza teknikoak edo/eta komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke.

- Landutako ahozko testuen egitura osoaren eta testuen atalen lotura logikoen berreraikuntza; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea –lagundu egingo zaie–, landutako testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz.
- Ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Askotariko ikuspuntuak onartzen dituzten azalpenak egitea ahoz jarduera akademikoari edo gaur egungo gaiei buruz, aurrez plangintza eginez eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz.
- Aurrez planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea; beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Estrategiak eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin.
- Oinarrizko estrategiak kontzienteki erabiltzea, ahozko testu gero eta zailagoen ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Era guztietako aurreiritziak inplizituri k dauden hizkuntza-erabileretan jarrera kritikoak bultzatzea.
- Jarrera positiboa ahozko elkarrizketetan hainbat hizkuntzaren erabileraren aurrean, baita zeinu-hizkuntzaren erabileraren aurrean ere.
- Elkarrekintza balioestea, komunikatzeko eta jarduera arautzeko baliabide den heinean.
- Lan bateratua egitean iritzi desberdinak izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta bestekiko errespetua agertzea.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Eguneroko bizitzari buruzko testu idatzietatik, gizarte-harremanetatik eta ikasle-interesen hurbileko komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea: arrazoiketa, ideia eta informazioen azalpena, administrazio-testuak (administrazioari zuzendutako gutunak, eskari-orriak eta -gutunak, curriculumak, aurkezpen-gutunak, inprimakiak), nahiz esparru akademikoko agiriak.
- Testu idatzien edukia aztertzeko jarraibideak erabiltzea: koadro sinoptikoak, diagramak, eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea.
- Igorlearen tesia eta argudioak identifikatzea.
- Informazioa eta iritzia bereiztea.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia identifikatzea eta interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Testu idatzien edukiaren balioespen kritikoa egitea eta norberaren ezagutzekin konparatzea.
- Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.

- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Plangintza egin ondoren, ongi egituratutako testu idatziak sortzea, hainbat komunikazio-testuingurutatik abiatuta: arrazoiketa, lanen eta txostenen azalpena; administrazio-testuak (administrazioari zuzendutako gutunak, eskari-orriak eta -gutunak, aurkezpen-gutunak, inprimakiak), egoera, testuinguru eta euskarri bakoitzerako egokiak diren arauak errespetatuz.
- Plangintzarako prozedurak, komunikazio-egoeraren ezaugarriak aurretiaz identifikatu ondoren, egokitzapen maila egokia eta testu idatzien koherentzia lortzeko.
- Testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak aplikatzea, testu idatzietan egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroa erabiltzea.
- Hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko: testu-lokailuak eta prozedurak, diskurtsoak aurrera egiteko.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko.
- Lan akademikoetan elementu formalak erabiltzea: bibliografiako aipamenak.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak sortzeko eta zuzentzeko.
- Estrategiak jakinaren gainean erabiltzea, landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza arautzeko.
- Edozein hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– eta alorretan garatutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, beste hizkuntzetan egindako testu idatziak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Idazmena hainbat modutan baloratzea: informazio- eta ikaskuntza-iturritzat; norberaren esperientziak, ideiak, iritziak eta ezagutzak komunikatzeko bidetzat; eta jokabidea arautzeko modutzat.
- Era guztietako aurreiritziak inpliziturik dauden hizkuntza-erabilerei dagokienez, jarrera kritikoak bultzatzea.
- Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Testuak ondo idazten jakiteak norbanakoan eta gizartean duen garrantziaz kontzientziatzea.
- Testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa, paperean nahiz euskarri digitalean.
- Konbentzitzea helburu duten mezuei dagokienez, jarrera zuhurra eta kritikoa izatea; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuei dagokienez.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Euskal literaturako eta gaztelaniaz idatzitako literaturako obrak edo obra-zatiak (adin horretarako egokiak direnak) autonomiaz edo norbaiten laguntzaz irakurtzea, eta, horrez gain, obra eta egile garrantzitsuenak nahiz horien kultura-testuingurua ezagutzea.
- Euskal eta espainiar literaturari eta berorien kultura-testuinguruei buruzko oinarrizko ezagutza, abiaburutzat landutako testu-zatiak hartuta eta beste arte batzuekin lotuz.
- Literatura unibertsaleko obra eta egile esanguratsuenen ezagutza, landutako testu-zatiak irakurriz eta beste arte batzuekin lotuz.
- Landutako literatura-testuak beren testuinguruan kokatzea: obra, egile eta mugimendu adierazgarrienak.
- Narrazioaren aldetik egitura eta ahots askotarikoak eskaintzen dituzten lanak irakurtzea, lagunduta eta elkarrekin.
- Literatura-testua aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.

- Literatura-testuen iruzkin bateratua egitea, lagunduta; aldi berean, behin eta berriz aipatzen diren gaiak autoreek garai desberdinetan nola landu dituzten konparatzea, eta elementu sinbolikoen eta olerkien erretorika- eta metrika-baliabideen funtzioa baloratzea.
- Literatura-xedea duten testuen ekoizpena, aurrez plangintza egin ondoren, gogoetan eta ereduen azterketan oinarrituta.
- Azterketa eta plangintza egin ondoren, irakurritako literatura-testuen iruzkin kritikoak egitea; horretarako, egitura errazak eta argudiatuak hartuko dira oinarri.
- Informazio-teknologiak erabiltzea nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko.
- Ikastetxeko liburutegia, liburutegi publikoa eta liburutegi birtualak autonomiaz erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta komunitatean antolatzen diren literatura-jardueretan parte hartzea.
- Irakurtzeko autonomia eskuratzea eta literatura plazera lortzeko eta beste errealitate, kultura eta mundu batzuk ezagutzeko iturritzat hartzea.
- Literatura-sorkuntzei dagokienez, sentsibilitate estetikoa lortzea eta sorkuntza- eta estilo-elementuak baloratzea.
- Literatura-testuen balio esplizituei eta inplizituei dagokienez, jarrera kritikoa izatea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko komunikazioan eta komunikazio idatzian erabili ohi diren oinarrizko hizkuntza-elementuak identifikatzea eta erabiltzea.
- Argudiatzea eta azalpenak ematea helburu duten diskurtsoen nahiz administrazio-diskurtsoen ezaugarriak (guztia ikasgelan landuak) identifikatzea.
- Igorleak testuan duen inplikazioa adierazten duten hizkuntza-formak identifikatzea eta erabiltzea: pertsona-deixia; ziurtasuna, probabilitatea eta betebeharra adierazteko hizkuntza-formak, eta balioespena.
- Testu-kohesiorako zenbait mekanismo identifikatzea eta erabiltzea; arreta berezia jarri beharko da gaia sartu, ideiak lotu, enfasia eman, ondorioak aipatu edota zenbait ideia (kausa eta ondorioak, helburua, baldintza, aurkaritza eta hainbat aukeren artean hartutako jarrera) adierazteko erabiltzen diren lokailuetan.
- Testuetako erlazio lexikoak eta semantikoak identifikatzea.
- Testu idatzia aberasteko prozedurak aplikatzea; horretarako, estilo-elementuak eta lexiko zehatza erabiliko dira, eta, beraz, anaforak bultzatu eta errepikapenak baztertu nahiz hitz generikoak ezabatuko dira.
- Testu-generoen egitura ezagutzea.
- Testu idatziak antolatzeko puntuazioa erabiltzea.
- Testu idatzietako inkoherentzia semantikoez jabetzea.
- Landutako testuetako aditz-jokoak ezagutzea eta koherentziaz erabiltzea; hain zuzen, arreta berezia jarriko da aditz-jokoan, denbora-ardatzen arteko korrelazioan eta aspektu-balioetan.
- Hartzaileak mezua uler dezan erabili beharreko prozedurak erabiltzea (aposizioa, adibideak, definizioa eta erlatibozko esaldia).
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea, eta ondorioak ateratzea.
- Hizkuntza-elementuak gero eta gehiago ezagutzea eta erabiltzea, perpauseko osagaiak elkarlotzeko eta enuntziatuak kohesionatuta eta zuzentasunez sortzeko; horretarako, arreta berezia jarri beharko zaie ikasturtean zehar landutako deklinazioari eta aditz-komunztadurari.
- Perpausaren eskema semantikoa eta horren garapen sintaktikoak ezagutzea.
- Subjektua eta predikatua identifikatzea, bai eta beste osagarriak ere.
- Norberak egindako testuetan, zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.

- Testuen hizkuntza zuzentzeko eta gramatika berrikusteko estrategiak autonomiaz erabiltzea; horretarako, hiztegiak eta ortografia-zuzentzaileak erabili eta kontsultatuko dira.
- Bi hizkuntzetan erabilgarria den hizkuntza-terminologia erabiltzea.
- Hainbat hizkuntzatan –baita zeinu-hizkuntzan ere– helburu berberarekin erabilitako prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Hainbat hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak identifikatzea eta zuzentzea.
- Hizkuntzetako batean –baita zeinu-hizkuntzan ere– jasotako ezagutzak besteetan erabiltzea, gainerako hizkuntzei buruzko hausnarketan laguntzeko.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta norberaren testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza-prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra bultzatzeko, ortografia-arauek duten garrantzia eta gizarte-balioa aitortzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak egiteko bitartekotzat eta komunitate baten identitate-seinaletzat baloratzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan hitz egiten diren hainbat hizkuntzatan sortutako testuak irakurtzea, egungo euskal gizartearen ezaugarri den eleaniztasun-egoera konplexuaz jabetzeko.
- Elkarrekin azterketa gidatuak eginez, euskararen bilakaera historikoa eta euskalkiak ezagutzea.
- Bakoitzaren euskalkia baloratzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza-barietate desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Azterketa gidatuak eginez eta testuak trukatuz, gaztelaniaren bilakaera historikoa eta, latina oinarri hartuta, hizkuntza erromanikoek eta horien aldaerek izan duten bilakaera ezagutzea; halaber, egun munduan duten egoera zein den jakitea.
- Hizkuntzen arteko ukipenaren ondorioz sortutako fenomeno batzuk aztertzea eta ezagutzea (gehiengoaren hizkuntza/gutxiengoaren hizkuntza/hizkuntza gutxitua, nazioarteko hizkuntza frankoa, elebitasuna, diglosia, hizkuntza-ordezkapena...), bai eta hizkuntzei eta hiztunei buruzko kontzeptu soziolinguistikoak ere.
- Diagnosia eginez eta barneratutako ezagutzak erabiliz, inguruko egoera soziolinguistikoa identifikatzea.
- Hizkuntza bat desagertzeko, indartzeko edota hedatzeko lagungarri izan daitezkeen faktore batzuk (historikoak, sozialak, politikoak) ezagutzea eta kritikoki balioestea.
- Hizkuntzen arloko aurreiritziak ezagutzea eta balioestea.
- Hizkuntzen aurreko jarrera positiboak garatzea, zehazki, euskara berreskuratzeko prozesuaren aurrekoa.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Lagunduta, komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) ulertzea, informazioa eta datu garrantzitsuenak nahiz tesia identifikatuz.**

1.1. Ahozko testuak aztertzeko baliabideak eraginkortasunez erabiltzen ditu.
1.2. Entzute-helburuaren arabera egokitutako informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.3. Entzute-prozesuan, informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdetegiak...).
1.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
1.5. Landutako ahozko testuen esanahi osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzen ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.6. Iritzia eta informazioa bereizten ditu, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.7. Informazioa ematen duten ahozko testuen ideia nagusiak eta elkarrizketa edo eztabaida bateko argumentuak eta ondorioak laburbiltzen ditu.
1.8. Diskriminazioa adierazten duten esapide askoren zentzua ulertzen du.
1.9. Konbentzitzea helburu duten mezu batzuk jarrera kritikoz interpretatzen ditu; bereziki, gizarte-komunikabideetatik eratorritako mezuak.

**2. Zenbait testu idatziren (azalpenekoak, argudioak ematen dituztenak eta administraziokoak) esanahia interpretatzea, eta horien esanahi orokorra identifikatzea eta ondorioztatzea; halaber, ideologikoki soilak diren eta gai ezaguna duten testuen edukia eta forma ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.**

2.1. Testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gaiak bereizten ditu.
2.2. Testuaren esanahi orokorra identifikatzen du, eta ideia nagusia nahiz bigarren mailako ideiak bereizten ditu.
2.3. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.4. Testu idatzien egitura osoa berreraiki eta horien atalen arteko lotura logikoak egiten ditu.
2.5. Igorlearen tesia eta testuan defendatzen diren ideiak identifikatzen ditu; hau da, gauzen zergatia eta arrazoiketa edota argumentuak azaltzen dituztenak.
2.6. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.
2.7. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.8. Egileak helburu zehatz bat lortu nahian erabilitako testu-ezaugarriak identifikatzen ditu (tipografia, espazio-banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
2.9. Gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta adierazpenak identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.
2.10. Dituen ezagutzetan oinarrituta, informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten du.
2.11. Bere iritzia adierazten eta arrazoitzen du, bere hizkuntza-gaitasunaren arabera, eta, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabilita; horretarako, testu-unitateak hautatuko dira, iritzi horien aldekoak edo aurkakoak.
2.12. Planifikatu ondoren, ikaslearen interesekoak diren egungo gertaerei edo curriculum-edukiei buruzko aurkezpen argiak egiterakoan parte hartzen du; horretarako, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.

2.13. Hainbat iturritatik jasotako informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen du: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak; komunikazio-sistema alternatiboen laguntza du.
2.14. Zeregina planifikatzean eta egitean autonomia maila onargarria agertzen du.
2.15. Ahozko aurkezpenak egitean, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.
2.16. Erabilera baztertzaileak saihesten ditu eta hizkuntzako beste alternatiba batzuk bilatzen ditu.

**3. Ikasgela-barruko nahiz kanpoko ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa izatea eta gaiari buruz hausnartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, beharrezkoa bada, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz; hau da, egoki eta behar bezala narratzea, azaltzea eta argumentatzea, eta, horrez gain, lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

3.1. Komunikazio-arazoak identifikatzen ditu eta horiek behar bezala konpontzen ditu.
3.2. Modu naturalean esku hartzen du, eta bere ikuspegia argudiatuz azaltzen du.
3.3. Besteen argudioak gezurtatzen ditu.
3.4. Ikuspuntu desberdinak alderatu eta berea berrikusi egiten du.
3.5. Zentzuzko ondorioak ateratzen ditu.
3.6. Ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arauak behar bezala aplikatzen ditu.
3.7. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.
3.8. Gainerakoekin lankidetzan aritzen da, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen ditu.

**4. Hainbat generotako testu idatziak sortzea: arrazoiketak, azalpenak, narrazioak eta administrazio-testuak; horiek, ondoren, komunikazio-egoerara egokituko dira. Halaber, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartzea, eta, horrez gain, zeregin hori betetzeko norberaren ahaleginak duen garrantzia onartzea.**

4.1. Liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzen ditu, helburua lortzeko beharrezkoa den informazioa bilatzeko eta hautatzeko.
4.2. Sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten du.
4.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
4.4. Egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiltzen du.
4.5. Ideien barne-kohesioa lortzeko, oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu.
4.6. Testuen hizkuntza-, gramatika- eta ortografia-zuzentasuna lortzeko estrategiak aplikatzen ditu.
4.7. Adierazpen baztertzaileak saihestu eta hizkuntzako beste alternatiba batzuk bilatzen ditu.
4.8. Estilo propioaz adierazten da, eta hizkuntza-baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu.
4.9. Egokiro eta zuzen aurkezten du testua: marjinak, idazpuruak, irakurgarritasuna…

**5. Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen eduki osoa irakurri eta horri buruz hausnartu ondoren, idatzizko laburpena egitea.**

5.1. Testuaren generoa, gaia eta egilearen komunikazio-asmoa ezagutzen ditu.
5.2. Jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatu eta adierazten ditu.

5.3. Ideia nagusia edo nagusiak arrazoitzeko esaldiak erabiltzen ditu.
5.4. Laburpenean jatorrizko testuko ideiak edo informazioak sartzen ditu, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna aintzat hartuta eta estilo propioa landuz.
5.5. Informazioa birsortzean objektibotasuna agertzen du.

**6. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak erabiliz, Euskal Herriko errealitate elebiduna kritikoki interpretatzea, eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa onartzea.**

6.1. Euskararen eta gaztelaniaren jatorriaren eta bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuenak azaldu, narratu edo deskribatzen ditu, idatziz.
6.2. Hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatzen ditu idatziz eta horien adibideak ematen ditu, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.
6.3. Inguruko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du idatziz, soziolinguistikako oinarrizko zenbait kontzeptu aplikatuz.
6.4. Inguruko hainbat egora soziolinguistikorekin lotutako testuak ikuspegi kritikoarekin irakurtzen ditu.
6.5. Hizkuntza estandarrak eta euskalkiek euskararen iraupenean eta transmisioan duten funtzioa aztertzen eta baloratzen du.
6.6. Euskarak eta gaztelaniak egun munduan duten egoera azaletik deskribatzen du.
6.7. Hizkuntzen iraupenaz eta garapenaz arduratzen diren erakundeak ezagutzen eta baloratzen ditu.

**7. Euskal kulturaren transmisioan eta sorkuntzan parte hartzea eta euskara ohiko komunikazio-egoeretan erabiltzea.**

7.1. Euskal kulturaren transmisiorako eta sorkuntzarako jardueretan parte hartzen du.
7.2. Euskararen normalizazioa sustatzen duten erakundeak eta ekimenak ezagutzen ditu eta horien garrantzia baloratzen du.

**8. Hizkuntza-errealitateen aniztasuna kritikoki interpretatzea, oinarrizko ezagutza soziolinguistikoak erabiliz.**

8.1. Soziolinguistikako oinarrizko kontzeptuak aplikatuz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa deskribatzen du, eta, halaber, errespetua agertzeaz gain, hizkuntzekiko eta hiztunekiko aurreiritziak baztertzen ditu.
8.2. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
8.3. Europako eta gaztelaniaz hitz egiten den herrialdeetako egungo hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak aipatzen ditu.
8.4. Hizkuntza baten egoera zehazten duten oinarrizko faktoreak deskribatu eta horien adibideak ematen ditu, bai eta hizkuntzen arteko ukipen-egoeren ondorioz sortutakoak ere.

**9. Egoeraren eta inplikatutako pertsonaren edo pertsonen arabera egokitutako erregistroan adierazteko formulazio egokia hautatzea; horretarako, komunikazio-sistema alternatiboak eta, beharrezkoa balitz, zeinu-hizkuntza erabiliko ditu.**

9.1. Ahozko elkarrizketari dagozkion gizarte-komunikazioko arau batzuk behar bezala aplikatzen ditu.
9.2. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.

9.3. Mezuak ulergarriago egiteko eta hartzaileak inplikatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak berriro formulatzea, galdera erretorikoak, erregistro-aldaketak…
9.4. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu hizkuntza-erabilerak hobetzeko, eta horiek berrikusten eta hobetzen autonomiaz jokatzen du.

**10. Hizkuntzen erabilera-sistemari eta -arauei buruz hausnartzea, testuak, idatziak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

10.1. Era askotako testu idatzietan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.
10.2. Emandako irizpideei jarraiki, testuak edo enuntziatuak alderatzen ditu eta horien ondorioak ateratzen ditu.
10.3. Bi hizkuntzetan erabilgarria den hizkuntza-terminologia ezagutzen du, eta ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen du.
10.4. Ikasturtean zehar hizkuntza batean ikasitako zenbait ezagutza erabiltzen ditu –testuinguruari, testuari, perpausari eta hitzari buruzkoak–, gainerako hizkuntzetan landutako testu idatzien ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
10.5. Testu idatziak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak autonomiaz erabiltzen ditu.
10.6. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
10.7. Hizkuntzari buruzko era guztietako informazioa autonomiaz lortzen du, bai hainbat euskarritan dauden hiztegietatik, bai beste kontsulta-lan batzuetatik.
10.8. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testuetan, bai besteen testuetan.
10.9. Berak egindako lanetan nahiz besteek egindakoetan, ezagutzen duen beste hizkuntza batetik hartutako kalko okerrak antzematen ditu.
10.10. Beraren testu idatziak sortzean, hizkuntza-ezagutzak gero eta autonomia eta eraginkortasun handiagoz aplikatzen ditu, erabiltzaileen arteko komunikazio eraginkorra errazteko.

**11. Beharrezko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena–, eta ezagutza hori hizkuntzari buruzko idatzizko hausnarketa-jardueretan erabiltzea.**

11.1. Hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan, azalpenak eta argibideak jarraitzeko beharrezko den terminologia ulertzen eta erabiltzen du.
11.2. Hainbat euskarritan dauden hiztegi-motak egoki erabiltzen ditu.
11.3. Gramatikari buruzko informazio orokorra gero eta autonomia handiagoz lortzen du oinarrizko eskola-hiztegietatik (hainbat euskarritan aurki daitezke) eta beste kontsulta-lan batzuetatik.

**12. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskola-jardueran idatzizko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko.**

12.1. Idatzizko mezuen edukia ulertzeko eta zabaltzeko informazioa bilatu eta kontsultatzeko ohitura du; horretarako, hainbat iturri erabiltzen ditu: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
12.2. Ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen du.

12.3. IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren idatzizko elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
12.4. Testu-tratamenduko teknika digitalak erabiltzen ditu: atalak eta edukiak antolatzeko testu-prozesatzea, multimedia-formatuko aurkezpenak…
12.5. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita edo komunikazio-sistema alternatiboak erabilita.

**13. Norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) parte hartze aktiboa izatea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea.**

13.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartze aktiboa du.
13.2. Ikaskuntza-helburuak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzen ditu eta idatziz edota komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin adierazten ditu.
13.3. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzen ditu eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzen du.
13.4. Bere ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak ezagutzen ditu.
13.5. Berak egindako nahiz besteek egindako ekoizpenak berrikusten eta hobetzen parte hartze aktiboa du (autoebaluazioa eta taldeko ebaluazioa), eta, horrez gain, besteek egindako ekarpenak baloratzen ditu.
13.6. Autoerregulaziorako hizkuntza batean ikasitako estrategiak kontzienteki erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**14. Testu idatzi laburrak edo literatura-obretako zatiak ulertzea, eta honako hauek kontuan hartzea: behin eta berriz errepikatzen diren gaiak eta arrazoiak, genero-ezaugarriak, hizkuntza poetikoaren balio sinbolikoa eta testuaren balio erretorikoen funtzionaltasuna.**

14.1. Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzen ditu, eta horien esanahi bateratuak sortzeko jardueretan eraginkortasunez parte hartzen du.
14.2. Genero-ezaugarriak ezagutzen ditu.
14.3. Besteak beste, estiloaren eta gaiaren ezaugarriak sailkatzen ditu, aurrez emandako irizpideak kontuan hartuta.
14.4. Oinarrizko erretorika- eta estilo-baliabide batzuk ezagutzen ditu.
14.5. Euskal literaturako, gaztelaniaz idatzitako literaturako eta literatura unibertsaleko egile eta obra garrantzitsuen ezagutza du; zehazki, literaturako hainbat garaitan eta mugimendutan sailkatuak.
14.6. Obra baten sortze-uneko historia- eta kultura-testuinguruari buruzko informazioa erabiltzen du, haren esanahia berreraikitzeko.

**15. Irakurritako eta aztertutako obren artean dauden loturak, obren testuinguru historiko eta literarioa nahiz euskal literaturan, gaztelaniazko literaturan eta literatura unibertsalean landu diren egile garrantzitsuenak azaltzea; hau da, nork bere informazioa bildu eta laburtzea. Komunikazio-sistema alternatiboak erabil daitezke laguntzeko.**

15.1. Egile eta literatura-obren zati errepikatuak (estereotipoak) sortu ziren garaiarekin edo dagokien literatura-mugimenduarekin lotzen ditu.

15.2. Literatura-obra jakin bati buruzko informazio gehiago lortzeko, hainbat iturri erabiltzen ditu, autonomiaz eta eraginkortasunez.
15.3. Paperean nahiz euskarri digitalean, bakarkako lana egiten du, eta, bertan, egile, obra, mugimendu edo garai bati buruz lortutako informazioa sintetizatzen du.

**16. Sentsibilitate estetikoa eta sormena erakutsiz bizipenak, sentimenduak edota hausnarketak adieraztea; hau da, hainbat generotako idatzizko literatura-testuak sortzea, eredutzat ikasgelan landutako literatura-obra garrantzitsuak hartuta.**

16.1. Hautatutako generoaren egitura berezia erabiltzen du.
16.2. Hautatutako generoari bereziki dagozkion erretorika- eta estilo-prozedura batzuk erabiltzen ditu.
16.3. Transmititu nahi duen edukirako egokiak diren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu.
16.4. Landutako literatura-ereduak sormena landuz erabiltzen ditu berak egindako testuetan.
16.5. Estilo propioaz adierazten da, eta baliabide estilistikoak erabiltzen ditu.
16.6. Testuak sortzeko prozedura orokorrak autonomiaz eta eraginkortasunez aplikatzen ditu.

**17. Ahozko euskal literaturaren adierazpenak eta berezko baliabide erretorikoak ezagutzea, norberaren nortasun kulturala eraikitzeko eta oinordetzan jasotako ondarearen transmisore izateko.**

17.1. Ahozko literaturaren hainbat adierazpenen oinarrizko ezaugarriak identifikatzen ditu, bai eta dagokien generoa ere.

**18. Luzera jakin bateko irakurketa-zatiei edo adin horretarako egokiak diren lanei buruz norberak duen iritzia ematea idatziz, eta aurrez landutako irizpideetan oinarrituta arrazoitzea.**

18.1. Landutako literatura-lanen edukia aztertzen du, emandako jarraibideak kontuan hartuta: kontakizuneko elementuak, narratzailearen zeregina…
18.2. Literatura-obraren egitura orokorra ezagutzen du.
18.3. Obraren esanahia zehazten du, historia- eta kultura-testuingurua nahiz norberaren esperientzia kontuan hartuta.
18.4. Literatura-narrazio bateko elementu bereizgarriak aztertu eta identifikatu ondoren, horri buruz duen iritzia ematen du; halaber, horren edukia planifikatu eta, aipatutako elementuei dagokienez, arreta gehien piztu dioten alderdiak arrazoitzen ditu.

**19. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

19.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu, une atseginak igarotzeko.
19.2. Gogotsu parte hartzen du, eta bere bizipenak eta literatura-gertaerari buruzko ikuspegia adierazten ditu txat batean, blog batean...
19.3. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
# ATZERRIKO HIZKUNTZA

## HELBURUAK

Atzerri-hizkuntza irakastearen helburua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gaitasun hauek lortzea izango da:

1. Komunikatzeko aukeren arabera eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, komunikazio-egoera arruntetako eta ikaslearen gaitasun mailari egokitutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, norberaren helburuak eta gizarteko nahiz eskolako helburuak lortzeko.

2. Ahoz eta idatziz behar besteko autonomiaz adierazteko gaitasuna izatea, ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren premiei behar bezala, koherentziaz eta zuzen erantzuteko.

3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta ikuspegi kritikoaz interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko; dibertsitate hori, zehazki, kultura-aberastasun gisa baloratuko da.

4. Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz hausnartzea; horrez gain, hizkuntzari buruzko ezagutzak eta hizkuntzaren erabilera-arauak autonomia apur batez aplikatuko dira, eta hizkuntzen artean transferi daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliko dira, norberaren sorkuntzak hobetzeko.

5. Hizkuntzek dituzten gizarte-erabilera desberdinei buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak eskuratzeko; horrela, atzerriko hizkuntza eta hizkuntzak, oro har, jatorri, hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonak komunikatzeko eta elkar ulertzeko baliabidetzat hartuko dira, eta, horrez gain, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

6. Gizarte-komunikazioko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.

7. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, atzerriko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko ahalmenari dagokionez, nork bere buruan gero eta konfiantza handiagoa izango du ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko.

8. Testu garrantzitsuak eta norberak hautatutako testuak (mota guztietako adierazpenetan) irakurriz literatura-obrez gozatzea, eta, duen hizkuntza-gaitasunaren arabera, ikus-entzunezko beste eremu artistiko batzuk ere kontuan hartzea, mundua eta giza egoera ulertzeko, hizkuntzari dagokionez aberasteko eta sentsibilitate estetikoa garatzeko.

## LEHENENGO MAILA

## EDUKIAK

### *1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea*

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ohiko jarduerekin lotuta dauden gelako ahozko testu errazak ulertzea, askotariko euskarri bisualak edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, eta ahozko elementuak eta ahozkoak ez direnak baliatuz, ahozko testu errazen informazio espezifikoa eskuratzea eta erabiltzea, aurreikusitako helburuak lortzeko; testu horiek hainbat komunikabidetan lantzen diren eguneroko gaiei eta ikasketei buruzkoak izango dira.
- Ahozko testuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuak aztertzeko azaldutako jarraibideak erabiltzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Testuaren zentzu orokorra identifikatzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera, eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
- Lagunduta eta ahozko testuen testuinguruko elementu esplizituetatik abiatuta, igorlearen asmoa zein den ezagutzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen parte hartzea, lagunduta, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Lagunduta, ahozko testuen edukia planifikatzen parte hartzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan laguntzaz parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoen (plangintza, ebaluazioa eta azken txostena) kudeaketarako premiazkoak diren egoeretan.
- Ikasgelan egiten diren jardueretan, irakasleak eta ikasleek eskatutako informazioei erantzun egokiak ematea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak eskuratzea, norberaren ulermena erregulatzeko; elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko; eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ahozko elkarrekintza gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, jarrera eta keinu egokiak.
- Talde txikietan, lagunduz eta errespetuz parte hartzea komunikazio-harremanetan, bereziki, ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helburuekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

### *2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea*

- Jarduerak behar bezala egiteko oinarrizko argibideak ulertzea.
- Ikasleen adinaren arabera egokitutako edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotutako gaiei buruzko testu errazak, benetakoak eta moldatuak (paperean edo euskarri

digitalean daudenak) osotasunean ulertzea, eta bertan ematen den informazio espezifikoa identifikatzea.
- Ulermenerako oinarrizko estrategiak erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena bereizteko.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk oinarritzat hartuz, testu idatzien esanahi orokorra eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, testu idatzien informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak oinarri hartuta.
- Ereduak oinarri hartuta, testu laburrak sortzea.
- Lagunduta, testu idatzien edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren: hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak eta abar sortzea, eta horiek hautatzea.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Jarraibideak oinarri hartuta testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementuak (landu direnak eta bereizgarriak direnak) aplikatzea eta, ereduetan oinarrituz, egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Landutako hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa nahiz ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak erabiltzea eta horiek idatzizko komunikazioan duten garrantzia aitortzea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkar komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Norberak idatzitako sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea.
- Idatzizko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero-moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Adinaren, interesen eta gaitasun-mailaren arabera egokitutako testuak autonomia nahikoaz irakurtzeko gai izatea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan errespetuz parte hartzea eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, norberaren testu idatziak berrikusteak duen garrantzia baloratzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (hainbat euskarritan daudenak) lagunduta irakurtzea ,eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerki txikiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasleak komunikatzeko dituen aukeren arabera, gelako eta ikastetxeko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen-modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinea...
- Literatura-testua plazera lortzeko, kultura desberdinak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat baloratzea, eta bere iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Hainbat komunikazio-egoeretara egokitu diren eta ikasgelan landu diren testuetako hizkuntza-formen erabilera eta esanahia ereduen laguntzaz aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Komunikazio-egoera ezagunekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak identifikatzea eta erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia –hainbat hizkuntzatan baliagarria dena eta jardueretarako beharrezkoa dena– ulertzea eta erabiltzea.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta gehiago erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Etengabe, askotariko baliabideak erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.

- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Lagunduta, ebaluazioan parte hartzea, eta idatzizko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntza nazioartean komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta kultura eta bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko bitartekotzat aitortzea eta baloratzea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, horretarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa baloratzea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna baloratzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, komunikabideetatik edo eskola-esparrutik eratorritako ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea; horrez gain, informazio zehatzak identifikatuko dira, eta aurrez emandako jarraibideak erabiliko dira.**

1.1. Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen ditu, lagunduta.
1.2. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, gaia eta mintzatzailearen komunikazio-helburua ezagutzen ditu.
1.3. Aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien eta laburren ideia nagusia nahiz informazio espezifiko eta garrantzitsu batzuk identifikatzen ditu, lagunduta.
1.4. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, komunikabideetan sortu diren eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusiak (ikus-entzunezko testuetakoak nahiz testu digitaletakoak) identifikatzen ditu.

1.5. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, landutako ahozko testuen esanahi orokorra berreraikitzen du.
1.6. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak eta antzekoak erabiltzen ditu, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.7. Gogoz entzuteko jarrera dauka.

**2. Ikasle-esperientziatik hurbil dauden gizarte-eremuetako nahiz bizitza akademikoko testu idatzien esanahia ulertzea, eta, horretarako, azterketarako emandako argibideak jarraituz, informazio eta datu garrantzitsuak identifikatzea.**

2.1. Testuaren generoa bereizten du, eta gai nagusia identifikatzen du.
2.2. Norberaren intereseko gaiei buruzko testu idatzien esanahi orokorra berreraikitzen du, eta ideia nagusiak bereizten ditu.
2.3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
2.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.5. Pixkanaka, testu idatzien egitura osoa berreraiki eta bere atalen arteko lotura logikoak egiten ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.6. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.7. Gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten zenbait irudi eta eduki identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.
2.8. Paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin erabiltzen ditu, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

**3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, gai ezagunei buruzko ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egiten parte hartzea eta jarduera akademikoarekin lotzea; horiek aurrez planifikatu egingo dira eta, gero, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dira (ikus-entzunezkoak, IKTak...).**

3.1. Lagunduta eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz, informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzen du, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Emandako jarraibideak kontuan hartuz, informazioa logikari jarraiki antolatzen laguntzen du.
3.3. Zeregina planifikatzean eta egitean, autonomia maila onargarria agertzen du.
3.4. Ahozko aurkezpenak egitean, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, gero eta eraginkortasun handiagoz.

**4. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, eskola barruko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, norberaren esku-hartzeari buruzko galdera xumeak erantzuten ditu, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, betiere.

4.2. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, gainerakoen esku-hartzeari buruzko galderak eta iruzkinak egiten ditu, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, betiere.
4.3. Oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.4. Hitz egiteko txanda errespetatzen du eta kortesia-arauak betetzen ditu.
4.5. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.

**5. Plangintza egin ondoren eta gero eta autonomia handiagoz, aurrez gelan landu diren hainbat generotako testu idatzi xumeak sortzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.**

5.1. Ereduei jarraiki, helburua lortzeko informazio garrantzitsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen du, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen ditu.
5.2. Sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten du.
5.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.4. Genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak erabiltzen ditu.
5.5. Oinarrizko sintaxia, ortografia, puntuazioa eta lexikoa erabiltzen ditu; hain zuzen ere, testuingurura egokituta daudenak.
5.6. Ideien barne-kohesioa lortzeko, ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu: anaforak, lokailuak, puntuazio-zeinuak...
5.7. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzen ditu, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, gero eta autonomia handiagoa erakusten du.
5.8. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
5.9. Testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten ditu.

**6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu garrantzitsuak identifikatzea eta nork bere hizkuntzako elementuekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.**

6.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den lekuko gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren zenbait ezaugarri ezagutzen ditu.
6.2. Atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko zenbait oinarrizko datu aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
6.3. Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
6.4. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
6.5. Bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesa agertzen du.
6.6. Beste herrietako baloreak eta portaerak errespetatzen ditu.

**7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea, batez ere idatziz, kultura eta hizkuntza desberdinetako pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko.**

7.1. Atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte hartzen du, lagunduta.
7.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
7.3. Gizartean komunikatzeko oinarrizko arauak egokiro aplikatzen ditu.
7.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea saihesten du.
7.5. Mezuak ulergarriago egiteko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu.

7.6. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzen ditu, bere hizkuntza-erabilerak hobetzeko, eta, gero eta autonomia handiagoa erakusten du horiek berrikusten eta hobetzen.
7.7. Inguruan hizkuntza-mota ugari izatea onartu eta positiboki baloratzen du.
7.8. Hainbat jatorri eta kultura dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia onartzen du.

**8. Aurrez eskolan landu diren hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

8.1. Ikasturtean landutako hizkuntza-terminologia ezagutzen eta erabiltzen du.
8.2. Era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak) identifikatzen ditu.
8.3. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testu idatziak ulertzeko eta sortzeko.
8.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testu idatziak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.5. Emandako argibideei jarraiki, hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai berak egindako testu idatzietan, bai besteek egindakoetan.

**9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak ereduetan oinarrituz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testu idatziak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak egiteko. Horrez gain, erabilera horrekiko interesa agertzea.**

9.1. Lagunduta, informazioa bilatzen du, askotariko iturriak erabiliz: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
9.2. Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
9.3. Testu-tratamenduko oinarrizko teknika digitalak erabiltzen ditu: testua prozesatzea atalak eta edukiak antolatzeko; multimedia formatuko aurkezpenak...
9.4. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitartekoek eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita.
9.5. Harreman pertsonalak egiteko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak identifikatzea, erabiltzea eta azaltzea.**

10.1. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.
10.2. Ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago da.
10.3. Hainbat bide laguntzarekin aplikatzen ditu, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
10.4. Hiztegiak, baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.

**11. Lagunduta, beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.**

11.1. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
11.2. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**12. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta lagunduta, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea eta gogoz parte hartzea.**

12.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen du, ereduak oinarri hartuta.
12.2. Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.
12.3. Jarraibideak emanda, norberaren nahiz besteen sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan parte hartzen du (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta gainerako pertsonek egindako ekarpenak balioesten ditu.
12.4. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.**

13.1. Moldatutako pasarteak eta testuak, hainbat literatura-generotakoak, irakurtzen ditu, eta irakurgaiak hautatzerakoan bere irizpideak azaltzen ditu, une atseginak igarotzeko.
13.2. Testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.
13.3. Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzen ditu.

## BIGARREN MAILA

## EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ohiko jarduerekin lotuta dauden gelako testuak ulertzea, mota guztietako euskarri bisualak edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, ahozko testu errazen informazio orokorra eta espezifikoa eskuratzea; testu horiek hainbat komunikabidetan lantzen diren eguneroko gaiei eta ikasketei buruzkoak izango dira.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuak ulertzeko oinarrizko estrategiak erabiltzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren zentzu orokorra identifikatzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera, eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.

- Lagunduta, igorlearen asmoa zein den identifikatzea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak ezagutuz.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak eta antzekoak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Informazio garrantzitsua bilatzea eta hautatzea, lagunduta, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Laguntzarekin, ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ikasketa-eremuko komunikazio-egoeretan laguntzarekin parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoen (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena) kudeaketarako premiazkoak diren egoeretan.
- Ikasgelako komunikazio-egoeretan erantzun egokiak ematea.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak eskuratzea, norberaren ulermena erregulatzeko; elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko; eta komunikazioan gertatzen diren etenak gainditzeko.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ahozko elkarrekintza gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, jarrera eta keinu egokiak.
- Talde txikietan, lagunduz eta errespetuz parte hartzea komunikazio-harremanetan, bereziki, ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.***

- Ikasleen adinaren arabera egokitutako edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testuren (benetakoak eta moldatuak) informazio orokorra eta espezifikoa ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.
- Ulermenerako estrategiak erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena bereizteko.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.
- Eskemak, grafikoak eta ideiak antolatzeko beste baliabide batzuk erabiliz, testu idatzien esanahi orokorra eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Testu idatzien edukia pausoz pauso aztertzea, ideia nagusiak identifikatzeko; horiek argi ikusteko, eskemak egingo dira.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, testu idatzien informazio espezifikoa eskuratzeko.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak oinarri hartuta.
- Ereduak oinarri hartuta, testu-mota ugari sortzea.

- Laguntzarekin, idatzizko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren. hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak eta abar sortzea, eta horiek hautatzea.
- Testu idatziak egituratzean, eskema errazak erabiltzea; horiei esker, ideiak ordenatuko dira.
- Jarraibideak oinarri hartuta testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementuak (landu direnak eta bereizgarriak direnak) aplikatzea eta, ereduetan oinarrituz, egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Landutako hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa nahiz ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak erabiltzea eta horiek idatzizko komunikazioan duten garrantzia baloratzea.
- Norberak idatzitako lanak berrikusteko eta erregulatzeko estrategiak erabiltzea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkar komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Idatzizko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero-moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Luze samarrak diren eta ikasleen interesekin lotura duten testuak autonomiaz irakurtzeko iniziatiba izatea.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan aktiboki parte hartzea eta errespetuz eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia baloratzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helburuarekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz.
- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera egokitutako literatura-testuak (hainbat euskarritan daudenak) irakurtzea eta horien iruzkinak egitea, lagunduta.
- Eredu batean oinarrituta, literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerki txikiak eta kontakizun laburrak) birsortzea eta konposatzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasleak komunikatzeko dituen aukeren arabera, gelako eta ikastetxeko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen-modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinea...

- Literatura-testua plazera lortzeko, kultura desberdinak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat baloratzea, eta bere iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Hainbat komunikazio-egoeretara egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza-formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Hainbat komunikazio-egoerarekin lotutako funtzioei dagozkien egiturak, adierazpen arruntak eta esaerak erabiltzea.
- Landutako testuetan, testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien eta horien bereizgarri diren oinarrizko hizkuntza-elementuak identifikatzea eta erabiltzea.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak identifikatzea landutako testuetan.
- Emandako irizpideak oinarri hartuta, komunikazio-unitateak (testuak, enuntziatuak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta eraldatzea, eta ondorioak ereduetan oinarrituz formulatzea.
- Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hainbat hizkuntzatan lortutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko hausnarketa errazago egiteko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Etengabe, askotariko baliabideak erabiltzea egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Lagunduta, ebaluazioan parte hartzea, eta idatzizko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.

- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntza nazioartean komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta kultura eta bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko bitartekotzat aitortzea eta baloratzea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, horretarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa baloratzea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna baloratzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, komunikabideetatik edo eskola-esparrutik eratorritako ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea; horrez gain, informazio zehatzak identifikatuko dira eta aurrez emandako jarraibideak erabiliko dira.**

1.1. Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen ditu lagunduta.
1.2. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, gaia eta mintzatzailearen komunikazio-helburua ezagutzen ditu.
1.3. Aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien eta errazen ideia nagusia identifikatzen du, lagunduta.
1.4. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, komunikabideetan sortu diren eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusiak (ikus-entzunezko testuetakoak nahiz testu digitaletakoak) identifikatzen ditu.
1.5. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, landutako ahozko testuen esanahi orokorra berreraikitzen du.
1.6. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak eta antzekoak erabiltzen ditu, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.7. Lagunduta, zereginak egiteko garrantzitsua den informazioa bereizten du.

**2. Bizitza akademikoko testu idatziek eta ikasleen interesetatik hurbil dauden gaiak lantzen dituzten komunikabideetako testu idatziek duten esanahia interpretatzea; horretarako, azterketa egiteko emandako jarraibideak oinarritzat hartuz, informazio eta datu garrantzitsuak identifikatzea eta ondorioztatzea.**

2.1. Testuaren generoa bereizten du, eta gai nagusia identifikatzen du.
2.2. Norberaren intereseko gaiei buruzko testu idatzien esanahi orokorra berreraikitzen du eta ideia nagusiak bereizten ditu.
2.3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
2.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.

2.5. Pixkanaka, testu idatzien egitura osoa berreraiki eta bere atalen arteko lotura logikoak egiten ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.6. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.7. Gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten zenbait irudi eta eduki identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.
2.8. Paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin erabiltzen ditu, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

**3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, gai ezagunei buruzko eta jarduera akademikoarekin lotutako ahozko aurkezpen laburrak eta argiak egiten parte hartzen du; horiek aurrez planifikatu egingo dira eta hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dira (ikus-entzunezkoak, IKTak...).**

3.1. Lagunduta eta komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz, informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzen du, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Emandako jarraibideak kontuan hartuz, informazioa logikari jarraiki antolatzen laguntzen du.
3.3. Zeregina planifikatzean, autonomia maila onargarria agertzen du.
3.4. Ahozko aurkezpenak egitean, laguntza moduan ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, gero eta eraginkortasun handiagoz.
3.5. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, ahozko erabilera hobetzeko.

**4. Lagunduta, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, eskola barruko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, norberaren esku-hartzeari buruzko galdera xumeak erantzuten ditu, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, betiere.
4.2. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, gainerakoen esku-hartzeari buruzko galderak eta iruzkinak egiten ditu, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, betiere.
4.3. Oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.4. Hitz egiteko txanda errespetatzen du eta kortesia-arauak betetzen ditu.
4.5. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.

**5. Plangintza egin ondoren eta gero eta autonomia handiagoz, aurrez gelan landu diren hainbat generotako testu idatzi errazak sortzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.**

5.1. Ereduei jarraiki, helburua lortzeko informazio garrantzitsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen du, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen ditu.
5.2. Sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten du.
5.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.4. Genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak erabiltzen ditu.

5.5. Oinarrizko sintaxia, ortografia, puntuazioa eta lexikoa erabiltzen ditu; hain zuzen ere, testuingurura egokituta daudenak.
5.6. Ideien barne-kohesioa lortzeko, ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu: anaforak, lokailuak, puntuazio-zeinuak...
5.7. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzen ditu, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, gero eta autonomia handiagoa erakusten du.
5.8. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
5.9. Testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten ditu.

**6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu garrantzitsuak identifikatzea eta nork bere hizkuntzako elementuekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.**

6.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den lekuko gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren zenbait ezaugarri ezagutzen ditu.
6.2. Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko zenbait datu aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
6.3. Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
6.4. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
6.5. Bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesa agertzen du.
6.6. Beste herrietako baloreak eta portaerak errespetatzen ditu.

**7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea, batez ere idatziz, kultura eta hizkuntza desberdinetako pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko, eta, horretarako, argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz adieraztea.**

7.1. Atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte hartzen du, lagunduta.
7.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
7.3. Gizartean komunikatzeko oinarrizko arauak ongi aplikatzen ditu.
7.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea saihesten du.
7.5. Mezuak ulergarriago egiteko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu.
7.6. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzen ditu, bere hizkuntza-erabilerak hobetzeko, eta, gero eta autonomia handiagoa erakusten du horiek berrikusten eta hobetzen.
7.7. Inguruan hizkuntza-mota ugari izatea onartu eta positiboki baloratzen du.
7.8. Hainbat jatorri eta kultura dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia onartzen du.

**8. Aurrez eskolan landu diren hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testu idatziak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

8.1. Ikasturtean landutako hizkuntza-terminologia ezagutzen eta erabiltzen du.
8.2. Era askotako testuetan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak (ikasturte honetan landuak) identifikatzen ditu.

8.3. Testu idatziak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.
8.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testu idatziak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.5. Hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa lortzen du, gero eta autonomia handiagoaz.
8.6. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testu idatzietan, bai besteen testuetan.
8.7. Sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea positiboki baloratzen du, horrek ulergarri egiten baititu.

**9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak lagunduta erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testu idatziak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak egiteko. Horrez gain, erabilera horrekiko interesa agertzea.**

9.1. Lagunduta, informazioa bilatzen du, askotariko iturriak erabiliz. idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
9.2. Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.
9.3. Testu-tratamenduko teknika digitalak erabiltzen ditu. testua prozesatzea atalak eta edukiak antolatzeko; multimedia formatuko aurkezpenak...
9.4. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitartekoek eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita.
9.5. Harreman pertsonalak egiteko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak identifikatzea, erabiltzea eta azaltzea.**

10.1. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.
10.2. Ikaskuntza-prozesuan dituen gaitasun eta zailtasunekiko gero eta kontzienteago da.
10.3. Egindako ikaskuntzak biltzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko hainbat baliabide aplikatzen ditu, gero eta autonomia handiagoz.
10.4. Hiztegiak, baliabide bibliografikoak, informatikoak eta digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.

**11. Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako ezagutzak eta estrategiak lagunduta erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.**

11.1. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.
11.2. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**12. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta lagunduta, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea eta gogoz parte hartzea.**

12.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen du, ereduak oinarri hartuta.
12.2. Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.
12.3. Jarraibideak emanda, norberaren nahiz besteen sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan parte hartzen du (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta gainerako pertsonek egindako ekarpenak balioesten ditu.
12.4. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.**

13.1. Moldatutako pasarteak eta testuak, hainbat literatura-generotakoak, irakurtzen ditu, eta irakurgaiak hautatzerakoan bere irizpideak azaltzen ditu, une atseginak igarotzeko.
13.2. Testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.
13.3. Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzen ditu.

## HIRUGARREN MAILA

## EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, eskola-esparruko gai zehatzei eta ezagunei buruzko testuen informazio orokorra eta zehatza ulertzea, mota guztietako euskarri bisualak edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, ikus-entzunezko komunikabideetako ahozko testu errazen informazio orokorra eta espezifikoa eskuratzea eta ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuak ulertzeko oinarrizko estrategiak gero eta gehiago erabiltzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren zentzu orokorra identifikatzea eta informazio garrantzitsua bereiztea, ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
- Komunikazio-sistema alternatiboak edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuen esanahi orokorra eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Lagunduta, igorlearen asmoa zein den identifikatzea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak ezagutuz.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko informazio-testuen ideia garrantzitsuak laburtzea.
- Informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzea, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

- Laguntzarekin, ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Aurrez planifikatu ondoren, ahozko azalpen errazak ematea.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ikasketa-eremuko ahozko elkarrizketetan eta komunikazio-egoeretan lagunduta parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoak kudeatzeko (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak, gidoiak eta abar erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, eta, horrez gain, elkarrekintzan sortzen diren arazoak konpontzea.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ahozko elkarrekintza gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, jarrera eta keinu egokiak.
- Talde txikietan, lagunduz eta errespetuz parte hartzea komunikazio-harremanetan, eta, bereziki, ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.***

- Interes orokorreko eguneroko gaiei edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testuren (benetakoak eta moldatuak) informazio orokorra eta espezifikoa ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.
- Ulermenerako hainbat estrategia erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua bereizteko.
- Testu idatzien edukia aztertzeko jarraibideak erabiltzea: koadro sipnotikoak, diagramak, eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.
- Informazioa eta iritzia bereiztea.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, eta, horretarako, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak sortzeko eta ulertzeko.
- Plangintza egin ondoren, hainbat helburu dituzten testu errazak eta egituratuak sortzea, besteak beste, hau kontuan hartuta: komunikazio-egoerara egokitzea (koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna).

- Idatzizko testuak planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren: hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak eta abar sortzea, eta horiek hautatzea eta antolatzea, laburpen, eskema, ohar, gidoi, kontzeptuzko mapa eta abarren bidez.
- Testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko: testuaren oinarrizko lokailuak eta prozedurak, diskurtsoak aurrera egiteko.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa nahiz ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia-arauak aplikatzea.
- Norberaren idatzizko sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkar komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Idatzizko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero-moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ikasleen interesekin lotutako testuak autonomiaz irakurtzea, lagunduta.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan errespetuz parte hartzea eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia baloratzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera moldatutako literatura-testuak eta benetako literatura-testu batzuk ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz.
- Lagunduta, ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera moldatutako literatura-testuak eta benetako literatura-testu batzuk (hainbat euskarritan daudenak) irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerkiak, antzerkiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea).
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Ikasleak, komunikatzeko dituen aukeren arabera, gelako eta ikastetxeko literatura-jardueretan parte hartzea.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen-modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinea...

- Literatura-testua plazera lortzeko, kultura desberdinak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat baloratzea, eta bere iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Norberak edo besteek egindako literaturako eta literatura-asmoko sorkuntzak baloratzea, eta horiei buruzko iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Landutako testuetako hainbat hizkuntza-formaren erabilera eta esanahia aztertzea eta horiei buruz hausnartzea; horretarako, besteak beste, ezagutzen dituen beste hizkuntzekin –zeinu-hizkuntza barne– alderatu eta egiaztatuko ditu.
- Egitura, esapideak eta esaerak, hainbat komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta etengabe aplikatzea.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak identifikatzea landutako testuetan.
.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea, eta ondorioak ateratzea.
- Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Lagunduta, hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko gogoeta egitea bultzatzeko.
- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Ikasitakoa gordetzeko, buruz ikasteko eta berrikusteko bitarteko zenbait erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Lagunduta, ebaluazioan parte hartzea, eta idatzizko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea: literatura, artea, musika, zinema... Informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntzak hainbat jatorritako pertsonekin komunikatzeko tresnatzat, informazio berria eskuratzeko baliabidetzat, eta kultura eta bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko bitartekotzat duen erabilera baloratzea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntzaren hiztunekin edo ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea; komunikazio-harreman horiek papera nahiz euskarri digitalak erabiliz gauzatuko dira.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa baloratzea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna baloratzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, komunikabideetatik edo eskola-esparrutik eratorritako ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea, eta informazio eta datu garrantzitsuak identifikatzea.**

1.1. Informazio egokia identifikatzen eta ondorioztatzen du, behar bezala entzuteko.
1.2. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, gaia eta mintzatzailearen komunikazio-helburua ezagutzen ditu.
1.3. Aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien ideia nagusia eta informazio garrantzitsua identifikatzen ditu, lagunduta.
1.4. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, komunikabideetatik (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) eratorritako eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu erraz eta laburren gaia eta ideia nagusiak identifikatzen ditu.
1.5. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, landutako ahozko testuen esanahi orokorra berreraikitzen du. Ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak laburtzen ditu, lagunduta.
1.6. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak eta antzekoak erabiltzen ditu, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
1.7. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.
1.8. Lagunduta, zereginak egiteko garrantzitsua den informazioa bereizten du.

**2. Hainbat eremutako testu idatzien esanahi orokorra eta datuak identifikatuz eta ondorioztatuz, horien esanahia interpretatzea, eta, halaber, testu-edukia ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.**

2.1. Testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gai batzuk ezagutzen ditu.
2.2. Interes orokorreko gaiei buruzko testu idatzien esanahi orokorra identifikatzen du, eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
2.3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.
2.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.
2.5. Pixkanaka, testu idatzien egitura osoa berreraiki eta bere atalen arteko lotura logikoak egiten ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.
2.6. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.
2.7. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
2.8. Era bateko edo besteko gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta edukiak identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.
2.9. Dituen ezagutzetan oinarrituta, informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten du.
2.10. Paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin erabiltzen ditu, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

**3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, jarduera akademikoarekin lotutako gai ezagunei buruz ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egiten laguntzea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.**

3.1. Lagunduta, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz eta gero eta autonomia handiagoz, informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzen du, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
3.2. Komunikazio-asmoa kontuan hartuta, informazioa logikari jarraiki antolatzen laguntzen du.
3.3. Zeregina planifikatzean eta egitean, autonomia maila onargarria agertzen du.
3.4. Ahozko aurkezpenak egitean, lagungarri modura ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen ditu.
3.5. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, ahozko erabilera hobetzeko.

**4. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, eskola barruko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.2. Ahozko elkarrekintza arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak errespetatzen ditu.
4.3. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.
4.4. Gainerakoekin lankidetzan aritzen da, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen ditu.

**5. Plangintza egin ondoren eta gero eta autonomia handiagoz, aurrez gelan landu diren hainbat erabilera-eremutako generoetako testu idatzi errazak sortzea, bere aukeretara moldatuta, komunikazio-egoerara egokituta eta koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.**

5.1. Helburua lortzeko informazio garrantzitsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen du, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen ditu.
5.2. Sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten du.
5.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.
5.4. Genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak erabiltzen ditu.
5.5. Sintaxi, ortografia, puntuazio eta lexiko egokiak erabiltzen ditu; hain zuzen ere, testuingurura egokituta daudenak.
5.6. Ideien barne-kohesioa lortzeko, ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu: anaforak, lokailuak, puntuazio-zeinuak...
5.7. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, halaber, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, autonomia maila onargarria erakusten du.
5.8. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.
5.9. Testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten ditu.

**6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu garrantzitsuak identifikatzea eta nork bere hizkuntzako elementuekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.**

6.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren ezaugarri garrantzitsuak ezagutzen ditu.
6.2. Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
6.3. Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.
6.4. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.
6.5. Bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesa agertzen du.
6.6. Beste herrietako baloreak eta portaerak errespetatzen ditu.

**7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea, batez ere idatziz, kultura eta hizkuntza desberdinetako pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko; halaber, komunikazio-egoeraren eta bertan esku hartzen duten pertsonen araberako erregistroan (formala edo informala) argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz hitz egitea.**

7.1. Atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte hartzen du, lagunduta.
7.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
7.3. Gizartean komunikatzeko oinarrizko arauak ongi aplikatzen ditu.
7.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea saihesten du.
7.5. Mezuak ulergarriago egiteko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu.
7.6. Lagunduta, autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, idatzizko erabilerak hobetzeko, eta horiek berrikusten eta hobetzen behar besteko autonomiaz jokatzen du.
7.7. Inguruan hizkuntza-mota ugari izatea onartu eta positiboki baloratzen du.

7.8. Hainbat jatorri eta kultura dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia onartzen du.

**8. Aurrez eskolan landu diren hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

8.1. Era askotako testu idatzietan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.

8.2. Hainbat hizkuntzatan erabilgarria den hizkuntza-terminologia ezagutzen du, eta ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen du.

8.3. Testu idatziak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak behar besteko autonomiaz aplikatzen ditu.

8.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testu idatziak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.

8.5. Hainbat euskarritan dauden hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa lortzen du, gero eta autonomia handiagoz.

8.6. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testu idatzietan, bai besteen testuetan.

8.7. Sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea positiboki baloratzen du, horrek ulergarri egiten baititu.

**9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak egiteko. Horrez gain, erabilera horrekiko interesa agertzea.**

9.1. Informazioa bilatzen du, eta kontsultatzeko ohitura du; horretarako, hainbat iturri erabiltzen ditu: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.

9.2. Ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen du.

9.3. Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.

9.4. Testu-tratamenduko teknika digitalak erabiltzen ditu. testua prozesatzea atalak eta edukiak antolatzeko; multimedia formatuko aurkezpenak...

9.5. Jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten du; horretarako, hain zuzen, informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen ditu.

9.6. Harreman pertsonalak egiteko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak identifikatzea, erabiltzea eta azaltzea.**

10.1. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat hartzen eta onartzen ditu.

10.2. Bere ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak ezagutzen ditu.

10.3. Hainbat bide autonomiaz aplikatzen ditu, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.

10.4. Hiztegiak, bibliografia- eta informatika-baliabideak nahiz euskarri digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.

**11. Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.**

11.1. Ikasturtean landutako zenbait hizkuntza-prozedura alderatzen eta aztertzen ditu; prozedura horiek, gainera, helburu bera dute hizkuntza guztietan.

11.2. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

11.3. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

**12. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea eta gogoz parte hartzea.**

12.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen du, ereduak oinarri hartuta.

12.2. Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.

12.3. Jarraibideak emanda, norberaren nahiz besteen sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan parte hartzen du (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta gainerako pertsonek egindako ekarpenak balioesten ditu.

12.4. Hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak autonomia apur batez erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**13. Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.**

13.1. Moldatutako pasarteak eta testuak, hainbat literatura-generotakoak, irakurtzen ditu, eta irakurgaiak hautatzerakoan bere irizpideak azaltzen ditu, une atseginak igarotzeko.

13.2. Testu bati buruz duen iritzia modu errazean idatziz azaltzen du, eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

13.3. Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzen ditu.

## LAUGARREN MAILA

### EDUKIAK

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, modu antolatuan aurkeztutako gai ezagunei buruzko ahozko testuen informazio orokorra, zehatza eta garrantzitsuena ulertzea, mota guztietako euskarri bisualak edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, ikus-entzunezko komunikabideetako ahozko testu errazak eta argiak nahiz datu garrantzitsuenak ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuak ulertzeko estrategiak gero eta gehiago erabiltzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko testuak aztertzeko aurrez emandako argibideak jarraitzea.
- Diskurtsoaren zentzu orokorra identifikatzea eta informazio garrantzitsua bereiztea, ikasleen hizkuntza-gaitasunaren arabera, eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.
- Komunikazio-sistema alternatiboak edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko testuen esanahi orokorra eta horien atalen arteko lotura logikoak berreraikitzea.
- Lagunduta, igorlearen asmoa zein den jakitea, ahozko testuetan dauden testuinguru-elementu esplizituak kontuan hartuta.
- Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak erabiltzea, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz.
- Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin edota testuen egokitzapenak erabiliz, ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak laburtzea.
- Informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzea, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.
- Laguntzarekin, ahozko testuen edukia planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta IKT teknologiak erabiltzea, ahozko aurkezpenei laguntzeko.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, ikasketa-eremuko komunikazio-egoeretan parte hartzea; bereziki, zeregin akademikoak kudeatzeko (plangintza, jarraipena, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatzeko eta erakusteko, iritziak trukatzeko eta ondorioak nahiz ikaskuntzak azaltzeko.
- Ahozko testuen sorkuntza planifikatzeko, oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) garatutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea eta erabiltzea, atzerriko hizkuntzako ahozko testuak errazago ulertzeko eta sortzeko.
- Komunikazio-estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, elkarrekintzak hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, eta, horrez gain, elkarrekintzan sortzen diren arazoak konpontzea.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ahozko elkarrekintza gidatzen duten arauak ezagutzea, esaterako: hitz egiteko txandak, elkarrizketan izaten diren rol desberdinak, ahots-tonua, jarrera eta keinu egokiak.
- Talde txikietan, lagunduz eta errespetuz parte hartzea komunikazio-harremanetan, eta, bereziki, ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.***

- Interes orokorreko gaiei edo curriculumaren beste irakasgai batzuen edukiekin lotuta dauden gaiei buruzko hainbat testu (benetakoak eta moldatuak) orokorki eta espezifikoki ulertzea. Testu horiek paperean edo euskarri digitalean egongo dira.
- Irakurketak ulertzeko beste hizkuntzetan barneratutako estrategiak erabiltzea eta transferitzea.
- Testu idatzien edukia aztertzeko jarraibideak erabiltzea: koadro sipnotikoak, diagramak, eskemak.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, testu idatzietan dauden testuinguru-elementuak (esplizituak eta inplizituak) kontuan hartuta.
- Landutako testu idatzien egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Testuaren esanahi orokorra identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea, informazioa bilatzeko, hautatzeko eta antolatzeko.
- Informazioa eta iritzia bereiztea.
- Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzea: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.
- Hainbat generotako eta erabilera-eremuko testu idatzien eduki osoa sintetizatzea.
- Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, eta, horretarako, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko eta ulertzeko.
- Hainbat helburu dituzten era askotako testu egituratuak sortzea, autonomia apur batez; horretarako, genero bakoitzari dagozkion oinarrizko arauak, testuingurura egokitutako lexikoa, eta komunikazio-egoerara egokitzeko behar diren elementuak (koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna) erabiliko dira.
- Idatzizko testuak planifikatzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak identifikatu ondoren. Hainbat euskarritako informazio-iturriak erabiltzea, ideiak eta abar sortzea, eta horiek hautatzea eta antolatzea, laburpen, eskema, ohar, gidoi, kontzeptuzko mapa eta abarren bidez.
- Testualizatzea eta berrikustea, testu idatzietako edukien egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.
- Sortutako testuak erabil daitezkeen eremuei dagokien hizkuntza-erregistroaren elementu bereizgarriak aplikatzea eta egoera bakoitzean lexiko egokia hautatzea.
- Hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, testu-barnean ideien barne-kohesioa lortzeko: testuaren oinarrizko lokailuak eta prozedurak, diskurtsoak aurrera egiteko.
- Testu idatzian puntuazio-zeinuak erabiltzea, perpausak antolatzeko eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa nahiz ordenatzea).
- Oinarrizko ortografia-arauak aplikatzea.
- Norberaren idatzizko sorkuntzak berrikusteko eta erregulatzeko kontrol-estrategiak erabiltzea.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko, elkar komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Landutako testu idatzien genero-moten ezaugarri bereziak ezagutzea.
- Ikasleen interesekin lotutako testuak irakurtzea, lagunduta.
- Ikaskuntza-egoera partekatuetako komunikazio-harremanetan errespetuz parte hartzea eta lankidetzan jardutea.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.
- Egokitzapena, koherentzia eta zuzentasuna kontuan hartuta, testu idatziak berrikusteak duen garrantzia baloratzea.

- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.
- Idatziz adierazteko konfiantza eta iniziatiba izatea.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera moldatutako literatura-testuak eta benetako literatura-testu batzuk ulertzea, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz.
- Lagunduta, ikasleen adinaren, gustuen eta interesen arabera moldatutako literatura-testuak eta benetako literatura-testu batzuk irakurtzea eta horien iruzkinak egitea.
- Literatura-testu errazak (esaterako, komikiak, olerkiak, antzerkiak eta kontakizun laburrak) modu gidatuan birsortzea eta konposatzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere (mezu klasikoa gaur egunera egokitzea).
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea eta irakurtzeko autonomia eskuratuz joatea.
- Nork bere literatura-asmoko testuak sortzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta gehiago erabiltzea.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-generoen (narrazioa, lirika eta drama) ezaugarri bereziak jakitea.
- Literatura-obren beste adierazpen-modu batzuk ezagutzea: komikia, musika, zinea...
- Literatura-testua plazera lortzeko, kultura desberdinak hurbiltzeko eta hizkuntzaren eta norberaren aberastasuna lortzeko baliabidetzat baloratzea, eta bere iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Norberak edo besteek egindako literaturako eta literatura-asmoko sorkuntzak baloratzea, eta horiei buruzko iritzi arrazoitua idatziz adieraztea.
- Irakurtzeko autonomia garatzea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Hainbat komunikazio-egoeretara egokitutako eta ikasgelan landutako testuetan agertzen diren hizkuntza-formen erabilera eta esanahia aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
- Egitura, esapideak eta esaerak, hainbat komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta erabilpen hori finkatzea.
- Norberak egindako testuetan aplikatzeko zailtasun gehien sortzen duten ortografia-arauak ezagutzea eta aplikatzea.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak identifikatzea landutako testuetan.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea, eta ondorioak ateratzea.
- Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Lagunduta, hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzea eta zuzentzea, bai norberaren testuetan, bai besteen testuetan.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko gogoeta egitea bultzatzeko.

- Landutako testuetan, lexikoa antolatzeko, barneratzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak aplikatzea.
- Ikaskuntza-baliabideak gero eta autonomia handiagoz antolatzea eta erabiltzea; esaterako, hiztegiak, kontsulta-liburuak, liburutegiak edo informazio- eta komunikazio-teknologiak.
- Ikasitakoa gordetzeko, buruz ikasteko eta berrikusteko bitarteko zenbait erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Testuinguruari, testuari eta perpausari dagozkien oinarrizko hizkuntza-elementuak ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa izatea.
- Norberaren lana antolatzea, ikaskuntzan aurrera egiteko estrategiatzat.
- Ikasgelan eta testuinguru horretatik kanpo sortutako ikaskuntza-aukerak baliatzeko interesa agertzea.
- Norberaren sorkuntzak hobetzeko eta ikaskuntza-prozesuan aurrera egiteko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia baloratzea.
- Lagunduta, ebaluazioan parte hartzea, eta idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.
- Hizkuntzako eta komunikazioko ikaskuntza-prozesuek aurrera egin ahala, izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako kultura-elementu esanguratsuenak ezagutzea; informazio hori lortzeko hainbat baliabide erabiliko dira, Internet eta beste informazio- eta komunikazio-teknologia batzuk, esaterako. Halaber, norberarenak ez diren kultura-ereduak errespetatzea.
- Europako egungo hizkuntza-errealitatea eta atzerriko hizkuntzak munduan duen errealitatea ezagutzea (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).
- Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak identifikatzea.
- Atzerriko hizkuntzak nazioarteko harremanetan duen garrantzia baloratzea.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Hiztunekin edo atzerriko hizkuntzaren ikastunekin izaten den komunikazio-harremanarekiko interesa eta iniziatiba agertzea, eta, horretarako, papera nahiz euskarri digitalak erabiltzea.
- Ikasgelan, ikastetxean eta inguruan dauden hizkuntza guztiak komunikazio- eta ikaskuntza-bitarteko gisa baloratzea.
- Beste kultura bat duten eta beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonekin harremanetan egoteak norberarengan sortzen duen aberastasuna baloratzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta, hala behar izanez gero, komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin, komunikabideetatik edo eskola-esparrutik eratorritako ahozko testuak eta ikus-entzunezkoak ulertzea, eta informazioak, datu garrantzitsuak, tesia nahiz argumentuak identifikatzea.**

1.1. Informazio egokia identifikatzen eta ondorioztatzen du, behar bezala entzuteko.

1.2. Lagunduta eta komunikatzeko dituen aukeren arabera, gaia eta mintzatzailearen komunikazio-helburua ezagutzen ditu.

1.3. Aurrez aurreko komunikazio-egoeretan sortutako ahozko testu argien ideia nagusia eta informazio zehatza eta garrantzitsua identifikatzen ditu, lagunduta.

1.4. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, komunikabideetatik (ikus-entzunezkoak nahiz digitalak) eratorritako eta gai akademikoekin lotura duten ahozko testu argien eta laburren gaia eta ideia nagusi batzuk identifikatzen ditu.

1.5. Landutako ahozko testuen esanahi orokorra eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzen ditu, komunikatzeko dituen aukeren arabera.

1.6. Ahozko informazio-testu argien ideia garrantzitsuak laburtzen ditu, lagunduta.

1.7. Eskemak, taulak, hutsune-betetzeak eta informazioa husteko teknikak eta antzekoak erabiltzen ditu, ahozko testuen informazio espezifikoa eskuratzeko, komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzarekin.

1.8. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.

1.9. Lagunduta, zereginak egiteko garrantzitsua den informazioa bereizten du.

**2. Hainbat eremutako testu idatzien esanahia interpretatzea, eta horien esanahi orokorra nahiz horietan aurki daitezkeen datu zehatzak identifikatzea eta ondorioztatzea; halaber, ideologikoki soilak diren eta gai ezaguna lantzen duten testuen edukia eta forma ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.**

2.1. Testuaren generoa, gai nagusia eta bigarren mailako gai batzuk ezagutzen ditu.

2.2. Interes orokorreko gaiei buruzko testu idatzien esanahi orokorra identifikatzen du, eta ideia nagusiak eta bigarren mailako batzuk bereizten ditu.

2.3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, bere mailarako luzera egokia duten testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzen ditu; testu horiek, hain zuzen, hainbat euskarritan daude eta askotariko helburuak dituzte.

2.4. Igorlearen asmoa zein den antzematen du, testu idatzietan dauden testuinguru-elementu esplizituak oinarri hartuta.

2.5. Pixkanaka, testu idatzien egitura osoa berreraiki eta bere atalen arteko lotura logikoak egiten ditu, eta, horretarako, ideiak antolatzeko teknikak aplikatzen ditu; esaterako, informazioen lotura eta hierarkia adierazten duten eskemak eta grafikoak.

2.6. Informazioa eta iritzia bereizten ditu.

2.7. Hizkuntzazkoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, ortotipografikoak, etab.

2.8. Era bateko edo besteko gizarte-, arraza-, sexu- edota kultura-bazterketa adierazten duten irudiak eta edukiak identifikatzen ditu, eta, horrez gain, berak sortzen dituen ahozko eta idatzizko testuetan adierazpen horien erabilera baztertu egiten du.

2.9. Dituen ezagutzetan oinarrituta, informazioaren baliozkotasuna ebaluatu eta horri buruzko iruzkina egiten du.

2.10. Paperean nahiz euskarri digitalean dauden kontsulta-materialak laguntzarekin erabiltzen ditu, informazioa bilatzeko, dudak argitzeko eta hipotesiak berresteko.

**3. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, jarduera akademikoarekin lotutako gai ezagunei buruz ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egiten laguntzea; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.**

3.1. Lagunduta, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz eta gero eta autonomia handiagoz, informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen laguntzen du, iturri desberdinak erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.

3.2. Komunikazio-asmoa kontuan hartuta, informazioa logikari jarraiki antolatzen laguntzen du.

3.3. Zeregina planifikatzean eta egitean, autonomia maila onargarria agertzen du.

3.4. Ahozko aurkezpenak egitean, lagungarri modura ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

3.5. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, ahozko erabilera hobetzeko.

**4. Komunikatzeko dituen aukeren arabera eta komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, eskola barruko ahozko elkarrekintzetan parte hartzea, ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzea.**

4.1. Oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.

4.2. Ahozko elkarrekintza arautzen duten gizarte-komunikazioko arauak errespetatzen ditu.

4.3. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea baztertzen du.

4.4. Gainerakoekin lankidetzan aritzen da, eta, talde-lanak egitean edo arazoak konpontzean, dagozkion erantzukizunak betetzen ditu.

**5. Plangintza egin ondoren eta gero eta autonomia handiagoz, aurrez gelan landu diren hainbat erabilera-eremutako generoetako testu idatzi errazak sortzea, bere aukeretara moldatuta, komunikazio-egoerara egokituta eta koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuta.**

5.1. Helburua lortzeko informazio garrantzitsua bilatzen, hautatzen eta prozesatzen du, eta, horretarako, hainbat iturri baliatzen ditu.

5.2. Sortu beharreko testu-generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki, informazioa antolatzeko eskema egiten du.

5.3. Aurrez definitutako asmoa edo helburua egoki adierazten du.

5.4. Genero bakoitzari bereziki dagozkion oinarrizko arau ohikoenak erabiltzen ditu.

5.5. Sintaxi, ortografia, puntuazio eta lexiko egokiak erabiltzen ditu; hain zuzen ere, testuingurura egokituta daudenak.

5.6. Ideien barne-kohesioa lortzeko, ohiko hizkuntza-elementuak erabiltzen ditu: anaforak, lokailuak, puntuazio-zeinuak...

5.7. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzen ditu, landutako testu idatzien sorkuntza arautzeko, eta, halaber, norberaren testua berrikustean eta hobetzean, autonomia maila onargarria erakusten du.

5.8. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, bai informazioa lortzeko eta antolatzeko, bai azken testua idazteko eta zuzentzeko.

5.9. Testu argiak, garbiak eta ordenatuak aurkezten ditu.

**6. Atzerriko hizkuntzaren hiztunen komunitateko gizarte-, hizkuntza- eta kultura-elementu garrantzitsu batzuk identifikatzea eta nork bere hizkuntzako elementuekin lotzea; halaber, elementu horiek ezagutzeko interesa agertzea.**

6.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den gizarte-, kultura- eta geografia-testuinguruaren ezaugarri garrantzitsuak ezagutzen ditu.

6.2. Europako egungo hizkuntza-errealitateari eta atzerriko hizkuntzak munduan duen hizkuntza-errealitateari buruzko oinarrizko datuak aipatzen ditu (herri-hizkuntza edo hizkuntza frankoa).

6.3. Inguruko hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzaren arteko maileguak ezagutzen ditu.

6.4. Inguruan dagoen eleaniztasunarekiko eta kultura-aniztasunarekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa agertzen du.

6.5. Bereak ez diren kultura-ohiturak ezagutzeko interesa agertzen du.
6.6. Beste herrietako baloreak eta portaerak errespetatzen ditu.

**7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea, batez ere idatziz, kultura eta hizkuntza desberdinetako pertsonekin komunikatzeko eta elkar ulertzeko; halaber, komunikazio-egoeraren eta bertan esku hartzen duten pertsonen araberako erregistroan (formala edo informala) argitasunez eta kortesia-arauak errespetatuz hitz egitea.**

7.1. Atzerriko hizkuntzan egiten diren komunikazio-harremanetan parte hartzen du, lagunduta.
7.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
7.3. Gizartean komunikatzeko oinarrizko arauak ongi aplikatzen ditu.
7.4. Edonolako bazterketa adierazten duten estereotipoak erabiltzea saihesten du.
7.5. Mezuak ulergarriago egiteko oinarrizko estrategiak erabiltzen ditu.
7.6. Autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak laguntzarekin erabiltzen ditu, bere hizkuntza-erabilerak hobetzeko, eta horiek berrikusten eta hobetzen behar besteko autonomiaz jokatzen du.
7.7. Inguruan hizkuntza-mota ugari izatea onartu eta positiboki baloratzen du.
7.8. Hainbat jatorri eta kultura dituzten pertsonekin komunikatzeko hizkuntzak ikasteak duen garrantzia onartzen du.

**8. Aurrez eskolan landu diren hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzea, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak gero eta autonomia handiagoz idazteko eta berrikusteko baliatzea.**

8.1. Era askotako testu idatzietan egindako lana oinarri hartuta, testuinguruari, testuari edo perpausari buruzko hizkuntza-ezaugarriak identifikatzen ditu.
8.2. Hainbat hizkuntzatan erabilgarria den hizkuntza-terminologia ezagutzen du, eta ezagutza hori erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan erabiltzen du.
8.3. Testu idatziak ulertzean eta idaztean, hizkuntza-ezagutzak eta ortografia-arauak behar besteko autonomiaz aplikatzen ditu.
8.4. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testu idatziak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.5. Hainbat euskarritan dauden hiztegiak eta eskolako beste kontsulta-lan batzuk kontuan hartuta, hizkuntzari buruzko informazioa autonomiaz lortzen du.
8.6. Hizkuntzaren hainbat alorretan egindako oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, bai bere testu idatzietan, bai besteen testuetan.
8.7. Sorkuntzak formari dagokionez zuzenak izatea positiboki baloratzen du, horrek ulergarri egiten baititu.

**9. Informazio- eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak egiteko. Horrez gain, erabilera horrekiko interesa agertzea.**

9.1. Informazioa bilatzen du, eta kontsultatzeko ohitura du; horretarako, hainbat iturri erabiltzen ditu: idatzizkoak, digitalak eta ikus-entzunezkoak.
9.2. Ikasturtean landutako irizpideak oinarri hartuta, gizarte-komunikabideetako eta IKTetako mezuen fidagarritasuna edo sinesgarritasuna egiaztatzen du.

9.3. Komunikazio-sistema alternatiboen laguntzaz, IKTen baliabideak erabiltzean sortzen diren elkarrekintzetan aktiboki hartzen du parte; baliabide horiek, hain zuzen, beharrezkoak dira zeregin akademikoei buruzko informazioa bilatzeko eta komunikatzeko.

9.4. Testu-tratamenduko teknika digitalak erabiltzen ditu: testua prozesatzea atalak eta edukiak antolatzeko; multimedia formatuko aurkezpenak...

9.5. Jarduera akademikoetan sortutako informazioa ordenatuta eta argi aurkezten du; horretarako, hain zuzen, informazioaren eta komunikazioaren baliabideak eta teknologiak erabiltzen ditu.

9.6. Harreman pertsonalak egiteko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**10. Ikaskuntzan aurrera egiteko erabilitako ikaskuntza-estrategiak identifikatzea, erabiltzea eta azaltzea.**

10.1. Akatsak ikaskuntza-prozesuaren zatitzat hartzen eta onartzen ditu.

10.2. Bere ikaskuntzan aurrera egiteko dituen gaitasunak eta zailtasunak ezagutzen ditu.

10.3. Hainbat bide autonomiaz aplikatzen ditu, egindako ikaskuntzak pilatzeko, buruan gordetzeko eta berrikusteko.

10.4. Hiztegiak, bibliografia- eta informatika-baliabideak nahiz euskarri digitalak gero eta autonomia handiagoz erabiltzen ditu.

10.5.

10.6. Beste hizkuntzetan (zeinu-hizkuntza barne) eskuratutako ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, atzerriko hizkuntza ikasteko.

10.7. Ikasturtean landutako zenbait hizkuntza-prozedura alderatzen eta aztertzen ditu; prozedura horiek, gainera, helburu bera dute hizkuntza guztietan.

10.8. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutzak eredutzat erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuen ulermena eta sorkuntza hobetzeko.

10.9. Curriculumeko beste hizkuntzetan eskuratutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan landutako testuak hobeto ulertzeko eta sortzeko.

**11. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, norberaren ikaskuntza nahiz besteena ebaluatzen (autoebaluazioa eta koebaluazioa) aktiboki parte hartzea, eta hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko norberak duen gaitasunean konfiantza izatea eta gogoz parte hartzea.**

11.1. Ebaluazio-irizpideak definitzen dituzten kontrol-zerrendak egiten parte hartzen du, ereduak oinarri hartuta.

11.2. Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.

11.3. Jarraibideak emanda, norberaren nahiz besteen sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan parte hartzen du (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta gainerako pertsonek egindako ekarpenak balioesten ditu.

11.4. Hizkuntza batean autoerregulaziorako ikasitako estrategiak autonomia apur batez erabiltzen ditu gainerako hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**12.Literatura plazera lortzeko eta ikasteko erabiltzea, horrela hizkuntza eta pertsona bera hobetzea eta aberastea lortuko baita.**

12.1. Moldatutako pasarteak eta testuak, hainbat literatura-generotakoak, irakurtzen ditu, eta irakurgaiak hautatzerakoan bere irizpideak azaltzen ditu, une atseginak igarotzeko.

12.2. Testu bati buruz duen iritzia modu errazean azaltzen du (ahoz nahiz idatziz), eta, horretarako, hainbat euskarri erabiltzen ditu; gainera, literatura pertsona-multzo baten sentimenduak, pentsamenduak eta balioak transmititzeko baliabidetzat hartzen du.

12.3. Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzen ditu.